

# Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian

Iñigo Arteatx • Xabier Artiagoitia • Arantzazu Elordieta (arg.)



erron 10 zabal 1000



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL





**Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa:  
euskararen oinarritzko hitz hurrenkera  
ezbaian**



# **Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian**

Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia  
eta Arantzazu Elordieta (arg.)

eman la zabalazazu



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
A R G I T A L P E N  
Z E R B I T Z U A  
SERVICIO EDITORIAL



© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9860-070-4

Lege gordailua: BI-899-08

Fotokonposizioa: Rali, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimatzea: Gráficas Berriz, S.L.  
Muruetza, 23 - 48220 Abadiño

*Antisimetriaren hipotesia vs buru parametroa: euskararen oinarritzko hitz hurrenkera ezbaian jardunaldietako partaideak*



Ezkerretik ezkuinera: Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia, Luis Vicente, Itziar Laka, Javi Ormazabal, Arantzazu Elordieta eta Bill Haddican (erretratu-egilea: Beñat Oyharçabal).



Ezkerretik eskuinera: Luis Vicente, Xabier Artiagoitia, Itziar Laka, Arantzazu Elordieta, Javi Ormazabal, Beñat Oyharçabal eta Bill Haddican (erretratu-egilea: Iñigo Arteatx).





# Aurkibidea

Hitzaurrea: zenbait ohar antisimetria, euskal sintaxiaz eta liburu honetan dagoenaz <i>Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordieta</i> . . . . .	11
Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrik baten bila <i>Javier Ormazabal, Juan Uriagereka eta Myriam Uribe-Etxebarria</i> . . . . .	25
Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkerraldeko buruak euskaran <i>Jon Ortiz de Urbina</i> . . . . .	51
Euskal perpausaren oinarritzko <i>espez-buru-osagarri</i> hurrenkeraren aldeko argudio batzuk, <i>Bill Haddican</i> . . . . .	69
OA hizkuntzak: oinarritzko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez <i>Arantzazu Elordieta</i> . . . . .	97
El movimiento del verbo en un análisis antisimétrico del euskera <i>Luis Vicente</i> . . . . .	131
Izen sintagmaren hurrenkera: osagarriak aurretik, buruak gero <i>Xabier Artiagoitia</i> . . . . .	157
Simetria ala simetria eza? Hitzordenaz hausnarrean <i>Itziar Laka</i> . . . . .	199



# Hitzaurrea: zenbait ohar antisimetriaz, euskal sintaxiaz eta liburu honetan dagoenaz

## 0. Ikuspegi antisimetrikoa eta euskararen azterketa

### 0.1. Kayneren hipotesi antisimetrikoa

Duela hamahiru bat urte, Richard Kayne hizkuntzalariaren *The Antisymmetry of Syntax* liburuak (*Sintaxiaren Antisimetria* litzatekeena euskaraz) bazterrak harrotu zituen Chomskyzaleen artean, perpaus egituraren alorrean ikuspegi berritzailea zekarrelako: garai hartan nagusi zen buru parametroaren orde, Kaynek proposatzen zuen oinarrian hizkuntza orok zeukala *espezifikatzaile-buru-osagarri* hurrenkera, eta ondorioz azaleko edozein *osagarri-buru* hurrenkerak eratorria behar zuela izan.

Kayneren proposamenaren muina hauxe zen: harreman ezin estuagoa dagoela egitura hierarkikoaren eta hurrenkeraren artean, eta hitz katearen hurrenkera linealak egituraren hierarkia islatzen duela berak aldarrikatutako *Egokitasun Linealaren Axioma* delatik abiatuta:

#### (1) *Egokitasun Linealaren Axioma*


Hurrenkera lineala harreman antisimetrikoen ondorio zuzena da.

(Kayne 1994: 6-tik moldatua)

Alegia, eta liburu honetan Elordietak darabilen azalpena hona ekarriz: batetik, honek esan nahi du perpauseko elementuek ageri duten hurrenkera egiturazko hierarkiari dagokiola; hortaz, *aurretik agertzeak* hierarkian gorago egotea adieraziko du.

Kayneren ikuspegi eraldatzaileak, hartara, baztertu egin nahi zuen, beren-beregi baztertu ere, buru-parametroak aurreikusten zuen egoera:





Bi diagrama hauetan, jo dezagun  $B$  aditza dela, eta  $C$  haren osagarria,  $D$  osagarriaren barneko tarteko adabegia,  $b$  eta  $d$  txikiak amaierako adabegiak direlarik. Kayneren liburuaren aurreko teoria-proposamenetan,  $B$ -k  $D$  asimetrikoki o-komandatzeak ez zeukan inolako eraginik, eta (2i) zein (2ii) diagrama biak jotzen ziren posibletzat Gramatika Unibertsalaren barruan. Kayneren liburuaz gero zeharo aldatu da ikuspegia: haren aldarrikapena da, hain zuzen ere,  $B$ -k  $D$  asimetrikoki o-komandatzen duela-eta,  $B$ -ren azpiko  $b$  ale horrek  $D$ -ren azpiko  $d$ -ren aurretik agertu behar duela; ondorioz, (2ii) diagrama ezinezkoa da Kayneren proposamenaren barruan.

Kayneren liburuak harantzago jotzen du: saiatzen da  $X'$  Teoriaren muina eta funtsa perpaus egituraren hierarkia eta hurrenkera elkarrekin uztartzetik eratorzen, aurreikuspen interesgarriekin. Esaterako, adarreztatze hirutarra ezinezkoa dela iragartzen du (cf. Kayne 1994: 9), adarreztatze hirutarren ondorioz osagarri bi simetrikoeziak direlako, eta ondorioz ezinezkoa delako zein zeinen aurretik agertuko den zehaztea. O-komandoaren definizioan beharrezko aldaketak eginez (cf. Kayne 1994: 16) buru biko sintagma ezinezko zirela ere iragartzen du. Azkenik, eta asko laburtzeko, definizio beretik, Kaynek batera aztertzen ditu espezifikatzaileak eta adjuntuak (cf. Kayne 1994: 30hh), ordura arte ohikoa zen bereizketa ezabatuz eta praktikan (adjunzio-) mugida orok ezkerretara behar duela onartuz. Era berean, adjunzio/espezifikatzaile bakarra aurreikusten du sintagma bakoitzeko: nolabait esateko, sintagma beraren bi adjuntu/espezifikatzaile simetrikoeziak dira euren artean hurrenkera lineala ezarri ahal izateko (Kayne 1994: 21-22), eta horrenbestez Egokitasun Linealaren Axiomak eragotzi egiten ditu horrelako egoerak.

## 0.2. Euskararen azterketa ikuspegi antisimetrikotik

Hasierako orrialdeen eduki teorikoa alde batera utzita, Kayneren liburuaren muina bere analisirako potentzialki liskartsuak izan daitezkeen egituren berrikuspena da azken batean: azaleko *osagarri-buru* hurrenkera duten hizkuntzak, juntadura egiturak, eskuineko adjunzioztat jo ohi diren perpaus erlatiboak, eskuinerako mugidaren ondorioz aztertu izan diren bestelako egiturak (eskuineko destokitzea, IS astunen lerratzea), eta abar.

Euskal gramatikari dagokionez, ikerlan batzuek euskararen alderdiren bat edo beste aztertu zuten euskarak berak oinarrian *espezifikatzaile-buru-osagarri* hurrenkera zeukala jota. Horien artean, hauexek aipa daitezke: Albizu (1994, 1997, 2001), Ormazabal, Uriagereka eta Uribe-Etxebarria (1994) (OUU aurrerantzean), Elordieta (1997a-b), Etxepare (1996, 2003), Haddican (2004), Goenaga (2003), Oyharçabal (2006). Hala ere, OUU eta Haddicanen salbuespenarekin agian, lan hauek guztiek besterik eta eztabaida handirik gabe jotzen zuten zuzentzat antisimetriaren ikuspegia. Bestela esanda, gure uste apalean, Kayneren proposamena eta euskarazko datuak erkatu gabe, euskarazko datuak Kayneren proposamena zuzena balitz bezala berrinterpretatzera jo zuten. Jokabide ulergarri hau Kayneren proposamenaren tamainaren argitara ere balioetsi eta haztatu behar da: haren proposamenak ez zeukan helburutzat hizkuntza bat edo besteren berri ematea, perpaus egiturari dagokionez Gramatika Unibertsalaren mugak zedarriztatzea baino. Hartara, ezinezkoa zen (eta da oraindik ere) hizkuntza bakar baten azterketan oinarrituta Kayneren proposamena bere neurrian baloratzea.

## 1. Liburu hau nondik sortzen den

Aurreko atalean esan dugun moduan, euskal gramatikaren inguruko hainbat ikerketa, artikulu eta saio egin ziren 1994 urteaz gero Kayneren ikuspegia nola edo hala onartzen zutenak; baina beste hainbat ikerketa, artikulu eta saio ere egin ziren oraindik euskararen oinarritzko hurrenkera *espezifikatzaile-osagarri-buru* zela jotzen zutenak edo, sintagma askotarako behintzat, oinarri hori onesten zutenak. Inportanteak diren batzuk aipatuko ditut: Ortiz de Urbina (1994, 1995, 1999), Artiagoitia (1998, 2002), Uriagereka (1999), Laka (2000), Elordieta (2001), Arregi (2003), Etxebarria (2005). Eta ikuspegi biak jorratu dituzten ikertzaileak ere izan dira: Vicentek berak ikuspegi batetik bestera egin du jauzia, euskararen sintaxian egiazki mamizko *eztabaidagai* bat badugula agerian utziz.

Testuinguru honetan ulertu behar da, bada, liburu hau. Duela urte bi, *Orden básico y estructura de la complementación en euskera* delako ikerketa-proiektuaren barruan Iñigo Arteatx, Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordieta ikertzaileok geure buruari eginkizun eta helburutzat hauxe ipini genion: euskararen oinarrizko hurrenkeraren inguruan eztabaida bat piztu eta sortzea, ikustea ea euskararen barnetik zeintzuk argudio egon litezkeen antisimetria ontzat eman edo arbuiatzeko; ikuspegi biak (antisimetriarena eta buru parametroa onartzen zutenena) zituzten hizkuntzalariak euren ideiak eta planteamenduak aurkeztu eta buruz buru eztabaidatzera gonbidatu eta *behartzea* nolabait. Ikerketa-proiektu horren barruan aurreikusten genuen 2007 urtean *Antisimetriaren Hipotesia vs Buru Parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkera ezbaian* izena eramango zuten jardunaldiak aurrera ateratzea. Bagenekien ekarpen xumea izango zela hizkuntzalaritzaren unibertso zabalean, baina *etxean jokatzu gero* ezin saihestuzko eztabaida iruditzen zitzaigun, akaso eztabaida teorikoari argi apur bat ekarriko ziona eta, edozelan ere, ikasleek eskertuko zutena.

Jardunaldi horiek 2007ko otsailaren 13, 14 eta 15ean gauzatu ziren, giro adeitsuan gauzatu ere, EHUko Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean, eta bertan liburu honetan parte hartu duten gehienak mintzatu ziren, baina ez guztiak. Jardunaldi horietan Beñat Oyharçabal hizkuntzalariak ere egin zuen bere hitzaldi-ekarpena, baina ekarpen horrek, tamalez, ezin izan du liburu honetarainoko bidea egin. Eta, aitzitik, tamalez jardunaldietan parte hartzerik izan ez zuen Jon Ortiz de Urbinak artikulu bat atondu du liburu honetarako.

## 2. Liburu honetako artikuluen berri laburra

Liburu honetan zazpi artikulu aurkituko dituzu, irakurle: batetik garai bateko lanen itzulpenak diren Javier Ormazabal, Juan Uriagereka, eta Myriam Uribe-Etxebarria hizkuntzalarien “Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrikoko baten bila”, eta Jon Ortiz de Urbinaren “Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkerretako buruak euskarari”. Bestetik, inon argitaragabeak diren Bill Haddicanen “Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk”, Arantzazu Elordietaren “OA hizkuntzak: oinarrizko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez”, Luis Vicenteren “El movimiento del verbo en un análisis antisimétrico del euskera”, Xabier Artiagoitiaren “Izen sintagmaren hurrenkera: osagarriak aurretik, buruak gero”, eta, azkenik, Itziar Lakaren “Simetria ala simetria eza? Hitzordenaz hausnarrean”.

Javier Ormazabal, Juan Uriagereka eta Myriam Uribe-Etxebarria lagunen artikulua, esan bezala, 1994ko lan baten euskarazko itzulpena da eta bertan, Kayneren eredu teorikotik abiatuta, NZ-mugidaren eta hitz hurrenkeraren arteko elkar-eragina eta mugida teoriaren zenbait oinarri teoriko (*Kateen Uniformetasuna* eta *Kateen Bakartasuna*) lantzen dituzte egileek. Saio teoriko horretan, lehen aldiz aztertzen zen euskara eredu antisimetrikoaren arabera jendaurrean (guk dakigula behintzat), eta hain zuzen ere Kaynek aipatzen duen orokorpen bat betetzen ez duen neurrian berebiziko garrantzia zeukan horrek; izan ere, SOA hizkuntzek ez dute ageriko NZ-mugidarik baina euskaraz, aitzitik, badugu ageriko NZ-mugida. Hiru hizkuntzalariek, orduan, jokabide bikoitza edo bitarikoa ikusten dute euskarari: baiezko (mendeko) perpausetan, InfS osagaia Konplementatzaile buruaren espezifikatzailean agertuko litzateke, baina galderazkoetan NZ-hitza bera agertuko litzateke posizio horretan:

- (3) a. [<sub>InfS</sub> Jonek liburua irakurri du]-ela <sub>t<sub>InfS</sub></sub>  
 b. Zer<sub>i</sub> ... [<sub>KompS</sub> <sub>t<sub>i</sub></sub> [<sub>Komp'</sub> ... irakurri duela Jonek...]]

Interes handiko beste datu bat da perpaus osagarrietatik NZ-mugida gertatzea lotuta dagoela perpaus osagarria aditzaren ostean agertzearekin:

- (4) a. Zer ez duzu entzun [t irakurri duela Jonek]?  
 b. \* Zer ez duzu [t irakurri duela Jonek]<sub>KompS</sub> entzun <sub>t<sub>KompS</sub></sub>?

Adibide hauen arteko kontrastearen gakoa perpaus osagarriaren kokapenean dago: (4a)-n perpaus osagarria aditz nagusiaren osteko (eta, beraz, jatorrizko) posizioan dago, baina (4b)-n espezifikatzaile-posizio batean: autoreok hartzen duten interpretazio hertsian *Kateen Uniformetasuna* urratu da (4b) adibidean, NZ-hitza mugidak lehendik sortu den katearen bigarren mailari eragiten baitio bakar-bakarrik.

Pozgarria da, era berean, liburu honetan funtsean beraren 1999ko artikulua itzulpena den Jon Ortiz de Urbina "Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkerraldeko buruak euskarari" lana edukitzea, hizkuntzalari hau euskararen sintagma egituraren azterketan eragile handienetarikoa izan baita. Bera izan zen perpaus mailako Inflexio eta Konplementatzaile buru funtzionalak euskaraz nola gauzatu zitezkeen sakonen aztertu zuen lehendabizikoa eta hari zor zaio buru parametroaren arabera lehen proposamen indartsua (cf. Ortiz de Urbina

1989), euskarazko NZ-mugidaren eta foku-egituren deskribapenik zehatzena ere biltzen zuena: euskaraz buru gehienak azkenean letozke, salbu eta konplementatzailea, berak perpausaren ezker aldeko ingurumarian kokatzen duena:

- (5) a. genitiboa-*Izena*      b. IS-*Postposizioa*      c. AS-*Inflexioa*      ... baina  
 d. [<sub>KompS</sub> NZ-hitza, fokua [<sub>Komp</sub> **Komp** InfS]]

Ortiz de Urbinaren lanetariko asko zuzentzen dira era biko buruak onartzen dituen hurbilketa hau eta hainbat daturen azalpena (bereziki, ezeztapenaren eta adizki jokatuaren kokapena perpaus nagusi eta mendekoetan) uztartu eta garatzera. Hemen euskaraz ematen dugun saio honetan, Ortiz de Urbinak Rizziren (1997) proposamena hartzen du abiapuntutzat eta euskararako moldatzen eta justifikatzen du: hark bezala, Ortiz de Urbinak garai bateko Komp burua gutxienez hiru burutan banatzen du, *Indarra*, *Fokua*, eta *Jokatutasuna*. Orokorra litzatekeen partiketa honetan eta euskarazko *ea* partikula ilokutiboaren portaera sintaktikoan oinarrituta, proposatzen da euskaraz buru-lehenak *Topikoa*, *Indarra*, *Fokua* buruak direla, gainerakoak (*Inflexioa* eta *Jokatutasuna* barne) amaieran datozen bitartean. Emaizta, beraz, 1989koa baino proposamen landuagoa eta konplexuagoa dugu.

Haddicanen artikuluak aurreko lan baten (Haddican 2004) analisia berrikusten du. Izenburuak berak dioen moduan euskaraz oinarritzko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren argudio nagusi bi aurkezten ditu: partikula modalen jokabidea eta Inflexio/Denbora-Sintagmaren elipsia. Lehenari dagokionez, partikula modalek perpaus guztiaren gaineko besarkadura dutela azpimarratzen du Haddicanek. Partikula modalen buruz buruko mugimenduan oinarritutako azterbide baten desegokitasuna (Elordieta 1997, Elordieta 2001) erakutsi ondoren, Haddicanek honelako perpaus egitura bat proposatzen du:

- (6) [<sub>Mod-S</sub> omen/bide [<sub>DnbS</sub> Denb (ez) ... AS ]]

Hizkuntzalari honek oinarritzko kokapenean berreraikitzeari leporatzen dio ezeztapenak, berau ageri delarik, partikula modalen azpiko besarkadura edukitzea. Ezezkako perpaus nagusietan ezeztapenak berak beteko luke Mod-Sintagmaren gaineko kokagunea (polaritate-sintagman):

(7) [<sub>Pol-S</sub> ez [<sub>Mod-S</sub> omen da ez Elvis hil]]

- a. interpretazio egokia: omen > ez (diotenez, ez da Elvis hil)
- b. interpretazio desegokia: \*ez > omen (ez da egia Elvis hil dela diotenik)

... baina ezeztapena Denbora-Sintagmaren barruko posizioan interpretatuko litzateke. Perpaus egiturari buruzko ikuspegi bera iradokitzen du elipsi mota honek ere:

- (8) a. Jon etorri omen zen baina Miren ez omen zen etorri.  
 b. Jon etorri omen zen baina Miren ez ~~omen zen etorri~~.

Isildu edo ezabatutako material guztiak nolabaiteko sintagma izan beharko luke, eta Haddicanek dioenez, hori ez da hala gertatzen, ez bada (6) bezalako azterbide bat onartzen. Ikuspegi honen ondorioz, euskaraz baiezko eta ezezko perpausen artean sumatzen den kontrastea honela interpretatu behar da: ezezko perpausak islatzen du ondoen oinarritzko hurrenkera, bertan Denb (laguntzailea funtsean) ageri baita AS osagaiaren aurretik eta gainetik. Baiezko perpaus arrunten hurrenkera azaltzeko, Haddicanek Denb buruaren azpitik dagoen osagai-multzo osoa, *hondakin-mugida* eginez, Denb eta Modal buruen gainetik dagoen polaritate-sintagmara igotzen dela iradokitzen du:

- (9) a. omen zen [<sub>XS</sub> ... Jon etorri...]  
 b. [Jon etorri] omen zen [<sub>XS</sub> ... ~~Jon etorri~~...]

Puntu honetan, azterbidea korapilatu egiten da noski, mugitu den osagai horrek izan dezakeen konplexutasunaren arabera; baina, nola edo hala, osagai horren azken buruak aditz nagusia (gehi aspektu atzizkiak) izan behar du, nahitaez:

(10) \**etorri Jon* omen zen

Liburu honetan Haddicanek aurreko lanean murrizketa hauek azaltzeko egin zuen proposamena moldatzen du garai bateko Cheng eta Demirdache-ren (1993) proposamen bat abiapuntutzat hartuta: azterbide horren muina da aditzaren inguruko argumentuek kasua erkatzeko aditz sintagmatik kanpoko posizioetara mugitu behar dutela eta, ondoren,

mugitutako argumentu horiek eta aditza biltzen dituen osagai handia Polaritate-Sintagma mugitzen dela.

Arantzazu Elordietaren artikulua, besteak beste, ahalegin handia egiten du perpaus mailan azterbide antisimetrikorako eta buru parametroaren azterbiderako izan daitezkeen argudioen sintesi bat aurkeztu eta ikuspegi biak buruz buru, argi eta garbi, erkatzeko. Antisimetriaren aldekoak izan daitezkeen datuak beste artikulua batzuetan ere ageri direnez, begiratu bat eman diezaiegun berak aipatzen dituen buru parametroaren aldekoak: batetik sintagma-mugidarik zertan eduki ez duten edo mugidaren bidez justifikatzen zailak diren *izena + egin* (i.e. *berba egin, negar egin*) aditzak eta (*gorriak ikusi, adarra jo* tankerako) esamolde idiomatikoak aipatzen ditu: berauetan, azterbide antisimetrikoan ez legoke arrazoi handirik sakoneko egituratik aditzaren osagarria mugitzen dela justifikatzeko, eta, hala ere, osagarriak aditzaren aurretik agertzen dira, buru parametroak iragartzen duen moduan. Beste horrenbeste esan liteke aditzaren osagarri postposizionalerik:

- (11) a. Patxi Gasteizen bizi da (hurrenkera neutroa)  
 b. Patxi bizi da Gasteizen (hurrenkera markatua)

Osagarri hauek ere aditzaren aurretik ageri dira hurrenkera ezmarkatua eta hor nahitaez izateko arrazoi bakarra buru parametroak ematen duena litzateke (osagarriak buruaren aurretik *jaiotzen* dira); antisimetriak proposatu egin behar luke justifikatzen zaila dirudien mugidaren bat. Antzekoak dira moduzko adberbioen, perpaus osagarri jokatu gabeen eta AS-ren aurreratzea bezalako datuak: buru parametroa zuzentzat jota, datuok ez dute inolako iluntasunik, baina antisimetriaren arabera, eragile ezezaguneko nola edo halako mugidaren bat behar da datuen berri emango bada.

Elordietak buru parametroaren beharra defendatzen duen arren, onartu ere egiten du badirela ikuspegi bietarako liskartsuak diren datu multzo bi. Lehena hau da: perpaus osagarri jokatuak aditz eta laguntzailearen aurretik zein atzetik ager daitezke egoera bietan hurrenkera neutroa izanik; antisimetria ez dago mugida hau gertatzeko eragile nabarmenik, eta buru parametroaren arabera ere nekez da bikoizketa honen arrazoia ikusten. Bigarren datu multzoak (goiko (4) adibidea funtsean) lotura zuzena dauka aurrekoarekin: OUU-k azpimarratu bezala, badirudi NZ-mugida zilegi dela aditz nagusiaren osteko perpaus osagarri jokatuak baina ezinezkoa edo nekeza aditz nagusiaren aurreko batetik. Hala ere, datu hori uste



baino lausoagoa dela dio Elordietak eta azterketa sakonago baten beharra azpimarratzen du. Nolanahi ere den, Elordietaren ekarpenaren ondorioa da buru parametroak azaltzen duela ondoen kategoria lexikoen *osagarri-buru* hurrenkera, eta *de facto* euskaraz *buru-osagarri* dela oinarritzko hurrenkera buru funtzionalen alorrean, bere 2001eko tesian aldarrikatu zuen moduan.

Luis Vicenterena dugu bosgarren ekarpena. Bertan, ahalegin teoriko bat burutzen du egileak antisimetriaren ikuspegitik euskal perpaus neutroetako *aditza + laguntzailea* hurrenkera eratoritzeko. Haddicanen (2004, 2007) partikula modalen analisisia ontzat eman ondoren, Vicentek agerian uzten du Haddicanen jatorrizko azterbidean berak alderdi ahultzat daukana: DS kategoriako argumentu batek AStik kanpo mugitu behar duela onartuta ere, beste hainbat kasutan ere ezinbestean proposatu behar dugu justifikatzen zaila den mugida. Esaterako, perpaus osagarriekin:

- (12) a. dut [uste [<sub>KompS</sub> Miren etorriko dela]]  
 b. \* [uste [Miren etorriko dela]] dut ~~uste Miren etorriko dela~~

Alegia, (12a) bezalako hasierako oinarri batetik abiatuta, Haddicanen eredu antisimetrikoan nahitaez proposatu beharko litzateke *Miren etorriko dela* perpausa *uste* aditzaren (edo *aditza + aspektuaren*) ezkerretara mugitzen dela, azaleko hurrenkera azalduko bada behintzat:

- (13) a. dut [uste [Miren etorriko dela]]  
 b. dut [[Miren etorriko dela] uste [~~Miren etorriko dela~~]]  
 c. Miren etorriko dela uste dut [[~~Miren etorriko dela~~] uste [~~Miren etorriko dela~~]]

Vicentek, hartara, baztertu egiten du azaleko *aditza + laguntzailea* hurrenkeraren berri *aditza* eta mugitutako argumentuak biltzen dituen osagai baten hondakin-mugidaren bidez ematea. Horren orde, mugimendu teorian orain artean aurreikusi ez den mugida mota bat aldarrikatzen du: *aditza*, baina ez *aditz-sintagma*, mugituko litzateke *laguntzailearen* gainetik dagoen espezifikatzaile-gune batera; *aditzak* eta *laguntzaileak* buru konplexu gisa jokatzeari, bigarrenaren ahultasun morfologikokoaren albo-ondorio gisa azalduko genuke, eta ez buruz buruko mugidaren ondorio gisa. Azterbide berritzaile honek, nola ez, galdera berriak irekitzen

ditu: nola eratortzen da aditzaren aurretik S-IO-O argumentuak kokatzen dituen hurrenkera neutroa? Nola ematen da galdegai-egituren berri aditza eta laguntzailea mugitzen ez badira? Vicentek hemen bere beste lan batera (Vicente 2005) jotzeko gomita egiten digu; prosodian eta foku-azentuan aurkitu beharko lirateke mugida bi horien eragileak: kasu batean, perpaus osoa (beraz, argumentu guztiak) fokutzat hartzeak berak behartuko luke hondakinaren mugida, eta bestean foku-azentua jaso ahal izateak eragingo luke NZ-hitzaren edo fokuaeren mugida.

Artiagoitiaren artikulua izen-sintagmaren egituraz diharduen bakarra dugu eta bertan buru parametroa eta (bereziki Cinqueren 2005eko) antisimetria-ikuspegia eratzeko hiru datu multzo aurkezten dira: zenbatzaileen kokapena, izen-sintagmaren barneko adjektiboaren jokabidea eta mendebaleko euskararen hasierako erakusleak. Datuon berri buru parametroak arazorik gabe eman dezakeela argudiatzen da; horretarako nahikoa da zenbatzaileen artean batzuk buruak eta beste batzuk espezifikatzaileak direla bereiztea:

- (14) a. [DS [QS [XS horrenbeste] [IS lagun] [Q Ø]] [D Ø]]  
 b. [DS [QS [IS lagun] [Q bi]] [D Ø]]

Mendebaleko erakusleen berezitasuna ere espezifikatzaile gunean agertzea litzateke (hainbat hizkuntzatan ikusten dena), eta euskarazko adjektiboena, berriz, buru hutsak izatearena, antisimetrian bertan ere aurreikusi behar den aukera. Baina antisimetriak datu horien guztien berri emateko estrategia bikoitzak eta kontraesankorrak behar dituen bitartean, buru parametroak analisi bateratu bat egiten du posible.

Zazpigarren, eta azken, artikulua Itziar Lakaren “Simetria ala simetria eza? Hitzordenaz hausnarrean” dugu. Hamlet-en hitzen oihartzuna dakarren artikulua hau nabarmen aldentzen da besteetatik, abiapuntutzat jabekuntza eta prozesamenduaren alorreko datuak hartzen dituen neurrian. Izenburua gorabehera, ikertzaile honendako ez legoke zalantzarik: Kayneren Sintaxiaren Antisimetria zuzena izatera, euskara bezalako hizkuntza baten jabekuntzan, azalean *osagarri-buru* hurrenkera duen baten jabekuntzan alegia, haurrek ikusten ez diren tankera bateko hutsak egitea esperoko genuke, harik eta hipotesi hutsetik aldentzen den eredia nola eratorri asmatu arte. Nolako hutsak? Ba, *\*renama* edo *\*riamona* bezalakoak (cf. *amaren*, *amonari*), mugida sintaktikoa eskatzen duten egituren jabekuntzan ikusten diren hutsen antzekoak alegia (cf. *\*ez nahi dut/ ez dut nahi*). Era berean, Lakaren iritzian,

prozesamenduaren alorreko ikerketa berriek (cf. Erdozia 2006) iradokitzen dute euskaraz neutrotzat jo ohi den SOV hurrenkera prozesatze kosturik gabekoa dela, antisimetriak, zuzena izatera, iragarriko ez lukeena.

#### 4. Esker ematea

Azkenik, lehentasun handiko ohar batekin amaitu nahi dugu hitzaurre hau, gure esker ona erakutsiz alegia: eskerrak zor dizkiegu lehenik liburuko eta jardunaldietako parte hartzaile guztiei, geuk jarritako erronkari erantzun ziotelako; eurak gabe liburu hau oraindik ere proiektu hutsa izango litzateke. Esker bereziak, halaber, Jon Ortiz de Urbina eta Javier Ormazabali aspaldiko lan bat berrikusi eta euskaratzeko nekea hartzeagatik, eta Bill Haddicani bere lehen euskarazko artikulua idazteko prest agertzeagatik. Eskerrak ematen dizkiegu jardunaldietan izan ziren ikasle eta irakasleei ere, gure ideari harrera beroa egiteagatik. Eta, noski, geure esker ona erakutsi behar diegu bai Arabako Errektoreordetzari eta EHUko Ikerkuntza Errektoreordetzari (AE06/03), bai eta Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioari ere (HUM2006-27406-E), ekimen hau hiru erakundeek diruz lagundu eta babestu dutelako.

Irakurle, analisiak analisi eta zehaztasunak zehaztasun, hauxe baino ez dizugu opa hemengo ekarpenak eskuan hartzean: liburu hau izan dadila euskal gramatikan eta gramatika teoriaran hausnartzen jarraitzeko pizgarria.

Gasteizen, 2007ko urrian

Iñigo Arteatz, Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordieta

#### Aipamen bibliografikoak

Albizu, Pablo. 1994. "Word order in Basque and its implications for a theory of focus". University of Southern California-ko eskuizkribua, Los Angeles.

Albizu, Pablo. 1997. "Generalized Person-Case Constraint: a case for a syntax-driven inflectional morphology". In Amaya Mendikoetxea eta Myriam Uribe-Etxebarria (arg.) *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak. 1-33.

- Albizu, Pablo. 2001. "Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico". *ASJU* 35:1, 65-106.
- Arregi, Karlos. 2003. *Focus on Basque Movements*. Doktorego tesia, MIT.
- Artiagoitia, Xabier. 1998. "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan", *Uztaro* 27, 33-61.
- Artiagoitia, Xabier. 2002. "The functional structure of the Basque noun phrase". In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: A Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*, XLIV ASJUren Gehigarriak. Bilbao: ASJU-UPV. 73-90.
- Cheng, Lisa eta Hamida Demirdache. 1993. "External arguments in Basque". In J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.) *Generative studies in Basque linguistics*. Amsterdam: John Benjamins. 71-87.
- Cinque, Guglielmo. 2005. "Deriving Greenberg's Universal 20 and Its Exceptions". *Linguistic Inquiry* 36.3, 315-332.
- Elordieta, Arantzasu. 2001. *Verb movement and constituent permutation in Basque*. Doktorego tesia, University of Leiden.
- Elordieta, Gorka. 1997a. *Morphosyntactic feature chains and phonological domains*. Doktorego tesia, University of Southern California, Los Angeles.
- Elordieta, Gorka. 1997b. "Feature licensing, morphological words, and phonological domains in Basque". In Amaya Mendikoetxea eta Myriam Uribe-Etxebarria (arg.) *Theoretical issues at the morphology-syntax interface*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak. 171-202.
- Erdozia, Kepa. 2006. *Euskal Hitz Hurrenkerak Azterketa Psikolinguistiko eta Neurolinguistikoen bidez*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Etxebarria, Urtzi. 2005. *Quantification and Domain Restriction in Basque*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Etxepare, Ricardo. 1996. "Two types of Focus in Basque". In B. Agbayani & S. Tang (arg.), *Proceedings of the XXV West Coast Conference on Formal Linguistics*. Irvine: CSLI Publications. 113-128.
- Etxepare, Ricardo. 2003. "Nori berea: Nor bere egiturak euskaraz". In Jesus M<sup>a</sup> Makatzaga eta Beñat Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker-14 (1)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 233-254.

- Goenaga, Patxi. 2003. “-Ko eta -En atzizkiez atzera”. In Jesus M<sup>a</sup> Makatzaga eta Beñat Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker-14 (1)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 279-305.
- Haddican, William. 2004. “Sentence polarity and word order in Basque”. *The Linguistic Review* 21, 87-124.
- Haddican, William. 2007. “Euskal perpausaren oinarritzko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk”. Liburu honetan.
- Kayne, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Laka, Itziar. 2000. “Thetablind Case: Burzio’s generalization and its image in the mirror”. In Eric Reuland (arg.), *Arguments and Case. Explaining Burzio’s generalization*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 103-129.
- Ormazabal, Javier, Uriagereka, Juan eta Uribe-Etxebarria, Myriam. 1994. “Word order and wh-movement”. *Glow Newsletter* 32, 42-43.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. “Verb initial patterns in Basque and Breton”. *Lingua* 94, 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. “Residual verb second and verb first in Basque”. In Katalin Kiss (arg.), *Discourse configurational languages*. Oxford: Oxford University Press. 99-121.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999. “Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque”. In Jon Franco eta Alazne Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 179-194.
- Oyharçabal, Beñat. 2006. “DS-aren barneko zenbait ordena kontu”. In Beatriz Fernández eta Itziar Laka (arg.), *Andolin Eguzkitza gogoan*. Bilbo: EHU. 741-756 .
- Rizzi, Luigi. 1997. “The Fine Structure of the Left Periphery”. In Liliane Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 281-337.
- Uriagereka, Juan. 1999. “Minimal restrictions on Basque movements”. *Natural Language and Linguistic Theory* 17, 403-444.
- Vicente, Luis. 2002. *Prenominal relatives in Basque and Antisymmetry*. Lizentziatura tesina, Deustuko Unibertsitatea. ASJU aldizkarian agertzeko.
- Vicente, Luis. 2005. “Word order variation in Basque as non-feature-driven movement”. University of Leiden-eko eskuizkribua.



# Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrik baten bila\*

Javier Ormazabal, Juan Uriagereka & Myriam Uribe-Etxebarria

UPV/EHU, University of Maryland & UPV/EHU

## Laburpena

*Lan honen helburu nagusia euskara eta beste zenbait SOA hizkuntzako hitz hurrenkera eta NZ-mugidaren arteko erlazioa Kayneren (1994) antisimetria teoriaren argira aztertzea da. Horretarako, SOA hizkuntzetan IS eta KonpS osagarriek betetzen dituzten posizioen arteko asimetria batzuk aurkeztuko ditugu eta jokabide desberdin hauek NZ-mugidarekin erkatuko. Honen ondorioz, eremu batzuetatik NZ-ateratzea agerian egiteko ezintasuna NZ-hitza bera biltzen duen osagarriaren posizioarekin lotu behar dela argudiatu ondoren, murriztapena Chomsky eta Lasnik-en (1993) Kateen Uniformetasunaren Baldintzaren birformulazio hertsia baten bidez azaltzen dugu, horrela Subjektuaren Baldintza ere deribatuz. Azkenik, Uniformetasunaren Baldintzak jaso ezin ditzakeen kasuak, batez ere japoniera edo koreerako perpaus barruko NZ-mugidarik eza, proposatzen dugun Kateen Bakartasunaren Baldintza izeneko hatsarre berri batek azal zezakeela argudiatzen dugu eta murriztapen honek izan beharko lituzkeen ezaugarri nagusiak aurkezten ditugu.*

## 0. Sarrera

Lan honetan, NZ-mugida eta hitz hurrenkerearen arteko erlazioari buruzko alde desberdin batzuk aztertuko ditugu zenbait hizkuntzetan. Kayneren (1994) perpaus egiturari buruzko teoriaren oinarriak geure eginez, gure helburua bere teoriak eraikitako sistemak gramatikaren beste zenbait printzipioekin zer-nolako eragin-trukeak izango lituzkeen aztertzea izango da.

Lehenik, Subjektua-Objektua-Aditza hizkuntzen zenbait ezaugarri aztertuko ditugu, gaiaren inguruko bi galdera nagusiri behatzen diegularik: alde batetik, IS-k eta KonpS-ek aditzarekiko betetzen duten posizioari begira erakusten dituzten hitz hurrenkera desberdintasunak aztertuko ditugu; bestetik, IS eta KonpS osagarri hauen jokabide desberdinak NZ-mugidarekin erkatuko ditugu eta bi fenomeno hauek estuki loturik daudela erakutsiko.

---

\* Hemen argitaratzen den lana egileok 1995ean, Vienan ospatu zen GLOW kongresuan aurkeztu genuen hitzaldi baten itzulpena da. Inoiz argitaratu ez bazen ere, hitzaldiaren eskuizkribua nahikoa zabaldu zen bere garaian hizkuntzalaritza teorikoko ikertzaileen artean eta lan tekniko anitzetan aipatu da hemengo proposamena, aztertzen diren gai teorikoak urtetan eztabaidaren puri-purian egon direlako eta, neurri batean, oraindik ere badaudelako. Liburu honen editoreen eskaria onartuz, lana ikertzaile eta ikasle eskaldunen eskura jartzea erabaki dugu. Urte batzuk igaro dira lan hau idatzi genuenetik eta, espero zitekeenez, hiru autoreok geure iritzia aldatu dugu hemen egiten ditugun zenbait proposamenei buruz; iritzi eta proposamen berri horietariko batzuk argitara ere eman ditugu, bakoitzak bere aldetik. Hala ere, euskarazko bertsio hau argitaratzea erabaki dugu, euskararen egiturari buruz egiten diren proposamen teoriko zehatz baten eredu gisa lagungarri izan daitekeelakoan. [Javier Ormazabalek euskaratua].

Ondorio hauek oinarri, aditz aurreko osagarrien barnetik NZ-hitzak ateratzeko ezintasun orokorra *Subjektuaren Baldintza* izenez ezagutzen dugun Huang-en (1982) Ateratze Eremuen Baldintzaren zatiarekin batu daitekeela erakutsiko dugu ondoren. Ildo bera azken muturrera eramanez, Chomsky eta Lasnik-ek (1993) proposaturiko *Kateen Uniformetasunaren Baldintza* birformulatuz gero haren eremua zabal daitekeela argudiatuko dugu, horrela *Subjektuaren Baldintza* besarkatu beharko lukeen *Espezifikatzailearen Baldintza* deriba daitekeela erakutsiz.

Japoniera bezalako hizkuntzetan ikus daitekeen aditz aurreko perpausetatik NZ-mugida egiteko ezintasuna beste zenbait fenomenorekin erkatzeko proposamena egingo dugu, *Kateen Bakartasunaren Baldintza* izena eman diogun hatsarre baten azpian bilduz.

Bukatzeko, bi hatsarre hauek batuko lituzkeen baldintza *Interpretazio Osoa* izan daitekeela iradokitzen dugu, *Kateen Uniformetasuna* baldintza orokor honen FL-ko bertsioa eta *Kateen Bakartasuna* FF-koa direla proposatuz.

## 1. Hitz hurrenkeraren teoria murriztu bat

### 1.1. Hitz hurrenkera

Ontzat eman dezagun, abiapuntu gisa, Kayneren (1994) teoria perpaus egiturari buruz, batez ere egitura hierarkikoen eta lerroz lerroko hurrenkeraren artean banan-banako erlazio bat dagoelako ideia. (1)-eko baieztapena proposamen horren asmoa jasotzen saiatzen da:

- (1) O-komando asimetrikoak banan-banako hurrenkera lineala erabakitzen du.

Kayneren proposamenak oso hitz hurrenkera murrizta inposatzen dio sistemari, eta honetan datza, besteak beste, proposamen honen interesa. Zehazkiago, bere teoriak espezifikatzaileak eta osagaiak ardatzarekiko kontrako posizioetan agertzen direnako perpaus egiturak onartzen ditu bakar-bakarrik. Hau da, perpaus egituraren gaineko ongi-eratzte baldintzek bi hurrenkera posibletara murrizten dituzte aukera guztiak: *espezifikatzailea-ardatza-osagarria* eta *osagarria-ardatza-espezifikatzailea*. Zenbait ideia gehigarri onartuz, haren sistemak aukera guztiak *espezifikatzailea-ardatza-osagarria* hurrenkera oinarrian unibertsalki posiblea den hitz hurrenkera bakarrera murrizten ditu.

Argi eta garbi, Kayneren sistemak hizkuntzek erakusten duten ageriko hitz hurrenkera aukera



anitz ere azaldu behar du, hizkuntza barneko aniztasuna zein hizkuntzen artekoa ere. (2)-(3) adibideetan hitz hurrenkera aldaketan adibide soil bat ematen dugu. Ingelesak onartzen duen hurrenkera bakarra (2) adibideko S(ubjektua)-A(ditza)-O(bjektua) den bitartean, Japonierak SOA hurrenkera hertsia erakusten du, (3) adibidean erakutsi bezala:

- (2) a. John bought     **the book**     [ S-A-O ]  
       Jon   erosi-zuen   DET liburu  
       *‘Jonek liburua erosi zuen’*
- b. \*John **the book**   bought     [ \* S-O-A ]  
       Jon   DET liburu   erosi-zuen
- (3) a. Massao-ga   **sono hono**   yonda     [ S-O-A ]  
       Massao-nom   liburu hori-akus irakurri  
       *‘Masaok liburu hori irakurri du’*
- b.\* Masao-ga   yonda   **sono hono**     [ \* S-A-O ]  
       Massao-nom   irakurri liburu hori-akusat

Oinarrizko bi hurrenkera hauek, SAO vs. SOA, izango dira lan honetan aztertuko ditugun hitz hurrenkera eredu nagusiak.

## 1.2. NZ-mugida

Kayneren sistemak oso baldintza hertsia inposatzen du hitz hurrenkera aldaketak deribatzen moduari begira. Izan ere, kanonikoa ez den edozein azaleko hurrenkerak elementuren bat bere ezkerre mugitu izanaren ondorioa izan behar du.


Kayneren teoriaren alderdirik interesgarrienetarikoa bat da saiatu egiten dela, sendo saiatu ere, hizkuntza baten hitz hurrenkeraren eta hizkuntza berak NZ-mugidarekin duen portaeraren artean ikusten diren loturak azaltzen. Ezaguna denez, bi eratako hizkuntza mota nagusi daude NZ-mugidari dagokiola. Alde batetik, ingelesa bezalako hizkuntzek ageriko NZ-mugida erakusten dute; (4)-an ikus daiteke honen adibide bat. Bestetik, badira japoniera bezalako hizkuntzak zeintzuetan –(5) adibideak erakusten duen bezala– NZ-sintagma ez baita ageriko sintaxian mugitzen:

- (4) a. What did John buy?  
 Zer DO-lehen John erosi?  
 'Zer erosi zuen Jonek?'
- b. \*John bought what?  
 Jon erosi-lehen zer?
- (5) Jon-wa nani-o kaimasita ka  
 Jon-top zer-akus erosi GALD-MARKA  
 'Zer erosi zuen Jonek?' (Lasnik & Saito 1992)

Azalpen tipologikorik proposatu ez bada ere, askotan aipatu da literaturan orokorpen deskriptibo bat badagoela NZ-mugidari dagokiola. Ikusi izan da, hain zuzen ere, SOA hizkuntzek orokorrean ez dutela ageriko NZ-mugidarik erakusten.<sup>1</sup>

- (6) *Orokorpen deskriptiboa*: SOA hizkuntzek ez dute ageriko NZ-mugidarik.

Kaynek orokorpen hau azal dezakeen hipotesi berri eta interesgarri bat proposatzen du. Japoniera eta beste hainbat hizkuntzaren ohiko *ardatza azken* hurrenkera lortzeko, Kaynek ageriko syntaxian InfS osoa KonpS-ren espezifikatzaile mugitzen dela argudiatzen du; (7)-ko egiturak jasotzen du mugimendu hori:




InfS KonpS-ren espezifikatzaile mugitzeko operazioak Konp azken posizioan kokatzen duen hurrenkera ematen du, SOA hizkuntzetako ohiko hurrenkera lortuz. Bestalde, InfS barneko elementuen arteko SOA hurrenkera lortzeko bi aukera daude gutxienez. Bide bat aditz sintagma osoa InfS baino lehenagoko posizio batera mugitzea da, Konp-en espezifikatzaile hain zuzen. Beste aukerak, berriz, ez du Aditzaren Konp-erako mugida aintzat hartzen; aitzitik, Inflexio

<sup>1</sup> Bach (1971), Baker (1972), Bresnan (1972), etab.

Sintagma KonpS-ren espezifikatzaile mugitzen da eta aditz sintagma Inflexio Sintagmaren barruan gelditzen da. Ondorioz, SOA ordena argumentu guztiak bere ezkerrean leudekeen espezifikatzaile posizioetara mugituz lortuko litzateke.

Kayneren ustez, InfS-ren mugida honek ondorio zuzen bat izango luke: hizkuntza hauetan Konplementatzailearen espezifikatzailea ez litzatekeela ageriko NZ-mugidarako jomuga posiblea izango, posizio hau mugitutako InfS-k berak beteko bailuke. Hipotesiaren ezaugarri orokorrak (8)-ko irudian jasotzen ditugu:



Hurrengo atalean, NZ-mugidak eta hitz hurrenkerak nolako eragin-trukea duten aztertuko dugu modu zehatzago batean. (6)-ko orokorpen deskriptiboarekin bat ez datozen kasu batzuk aztertuko ditugu, batik bat. Ondoren, kasu hauek Kayneren “InfS KonpS-ren espezifikatzaile” proposamenaren barruan egokitzeko bide bat proposatuko dugu. Atala bukatzeko, InfS-ren mugidaren izaeraren inguruko zenbait gai eztabaidatuko ditugu; honek beste azterketa bat proposatzera eramango gaitu, non hitz hurrenkera eta NZ-mugidaren arteko erlazioa Inflexio Sintagmaren mugidarik gabe lortzen den.

## 2. InfS Konp-en espezifikatzaile hipotesia aztertuz

(6)-ko orokorpen deskriptiboak jasotzen duenaren kontra, badira SOA hizkuntzak ageriko NZ-mugida erakusten dutenak. Euskara genuke honen adibide garbia:

(9) Mirenek Joni liburua irakurri dio-la... [S-Z(ehar)O-O A(+Inf+Konp)]

(10) a. **Nori**<sub>i</sub> irakurri dio Mirenek t<sub>i</sub> liburua? [ NZ<sub>ZO</sub> -A-S-O ]


b. \*Mirenek **nori** liburua irakurri dio? [\* S-NZ<sub>ZO</sub>-O-A; cf. (9)]

(9)-ko adibideek euskararen adierazpen perpausetako SOA hurrenkera arrunta erakusten dute. Ohartzekoa da ardatza bukaeran duten beste hizkuntzetan ohikoa denez, hemen ere *-ela* konplementatzaileak *irakurri dio* aditz multzoari jarraitzen diola. (10a) berriz, galderazko

perpausen adibidea dugu; ikus daitekeenez, *nori* NZ-sintagma perpausaren hasierara mugitu da eta aditz-konplexuarekin ondokotasun hertsia mantenduz agertzen zaigu. (10b) adibideak erakusten duenez, *nori* NZ-hitza aurreratzen ez bada eta *in-situ* gelditzen bada, adibidea ez-gramatikala da. Euskara, beraz, japoniera eta beste hainbat SOA hizkuntzatatik aldentzen da, hizkuntza hauetan ageriko NZ-mugidarik ez baitago.


Badago (9)-(10) paradigma Kayneren InfS-ren mugidaren analisiaren barruan egokitzeko modu bat. Eman dezagun adierazpen perpausetan badagoela zerbait InfS KonpS-ren espezifikatzaile mugitzera behartzen duena, hala japonieraz nola euskaraz. Demagun galderazko perpausetan, aldiz, bi elementu lehiatzen direla posizio berbera betetzeko: InfS eta NZ-sintagma. Euskarak NZ-hitza aurreratzea aukeratzen du, atzean InfS bere lekuan utziz. (11) adibideko egituran, aditz-multzoa Konplementatzaile igo denez, berau azken posizioan ez duen hitz hurrenkera bat sortzen da:

(11) *Euskararen eredua:*



Japonieraz, aldiz, InfS KonpS-ren espezifikatzaile igozten da, adierazpen perpausetan zein galderazkoetan; KonpS-ren espezifikatzailea beterik dagoenez –InfS-k betetzen baitu–, NZ-hitza *in situ* gelditzen da, Kayneren hipotesiaren erara:

(12) *Japonieraren eredua:*



Ondorioz, japonierak, euskarak ez bezala, “ardatza azken” hurrenkera hertsia erakusten du adierazpen zein galderazko egituretan.

Kayneren *InfS-a KonpS-ren espezifikatzaile*ra hipotesitik abiatuta hemen proposatu dugun birformulazioa (13)-n laburbiltzen da:

(13) (i) *jokaera zintzoko* hizkuntzak:

	<i>InfS-ren KonpS-rako mugida</i>	<i>NZ-ren KonpS-rako mugida</i>	
a) SAO hizkuntzak	-	+	ingeleza
b) SOA hizkuntzak	+	-	japoniera

(ii) *jokaera erdibitua* dutenak:

	<i>InfS-ren KonpS-rako mugida</i>	<i>NZ-ren KonpS-rako mugida</i>	
a) Adierazpen perpausak	+	-	eusgara
b) Galderazko perpausak	-	+	

Ikuspegi honetatik, euskarak portaera nahasia agertzen du, adierazpen perpausetan “ardatza azken” diren hizkuntzen propietateak eta galderazko perpausetan “ardatza lehen” diren hizkuntzen *jokaera* erakusten baitu.

Puntu honetara helduta, *InfS-ren KonpS-ko* mugidaren izaerari buruzko galdera andana sortzen da. Japonieraz *InfS* agerian mugitzen dela proposatu denez, mugida hau *InfS-k KonpS-ren* proiektzioan erkatu behar duen tasun morfologiko bat asetzeko gertatzen dela ondorioztatu behar da. (13i)-ko taulako japoniera eta ingeleza bezalako hizkuntza-moten arteko banaketa osagarriak bat egiten du ikuspegi honekin baldin eta, soilik baldin,aldi berean onartzen badugu, gainera, ingelesez *InfS-k* ez duela mugitu behar, ez agerian ezta Forma Logikoan ere; hau da, baldin eta ingelesez *InfS-k* erkatzeko tasunik ez badu. Hau horrela da galderazko perpausetan *KonpS-ren* espezifikatzaile posizioa *NZ-hitzak* berak betetzen duelako, baita Forma Logikoan ere, *InfS-ren* posizio horretarako mugida behaztopatuz.

Kayneren hipotesirako arazo larriagoa sortzen da (13ii)-ko paradigmako hizkuntzak kontuan hartzen direnean. Izan ere, euskararen portaerari so egiten badiogu, hizkuntza honetako adierazpen perpausetan *InfS KonpS-ren* espezifikatzaile mugitzea nahitaezkoa dela ondorioztatu behar dugu, beti *Konp-en* aurretik agertzen denez. Hala ere, mugida hori ezin

daiteke beti derrigorrezkoa izan, galderazko perpausetan KonpS-ren espezifikatzaile posizioa InfS-ren ordean NZ-hitzak betetzen duelako. Baina hala bada, ondorio gisa atera behar dugu japonieraren eta euskararen artean oinarritzko desberdintasun bat dagoela InfS mugitzera behartzen duen baldintzaren izaeran, japonieraz mugida egoera sintaktiko guztietan derrigorrezkoa den bitartean euskaraz adierazpen perpausetan bakarrik gertatzen delako.

Eman dezagun, bestalde, InfS KonpS-ren espezifikatzaile mugitzeko arrazoia konplementatzailearen tasun morfologikoren bat erkatzea dela. Gutziaren arazoa alde batera utzirik, ondorioa litzateke euskaraz tasun morfologiko hau InfS edota NZ-hitzaren mugidaren bidez erka daitekeela. Baina biek erka badezakete ere, galderazko perpausetan NZ-hitzak izan behar du Konp-en baldintza morfologikoa betetzen duena, hizkuntza honetako ageriko NZ-mugidak erakusten duenez.

Gogora dezagun, halere, euskaraz ez bezala japonieraz NZ-hitza ez dela inoiz Konp-en espezifikatzaile agerian mugitzen. Hortaz, ondorioa litzateke hizkuntza honetan Konp-en tasun morfologikoa erka dezakeen elementu bakarra InfS dela eta inoiz ez NZ-hitza. Berrito ere, diferentzia honek euskararako eta japonierarako proposatzen diren tasun-erkaketen artean oinarritzko desberdintasun bat dagoela adierazten digu. Ohar hauek berez zenbait “ardatza azken” hizkuntzatan SOA hurrenkera InfS-ren mugidaren bidez lortzeko posibilitatea baztertzeko ez badute ere, badute iradokitzen hitz hurrenkera eta NZ-mugidaren arteko erlazioa euskara eta japoniera bezalako hizkuntzetan atal honetan eztabaidatu dugun mekanismoaz bestelako prozedura baten bidez lortu behar dela. Ondoko ataletan orain arte eztabaidatu dugun paradigmarako beste azalpen bat proposatuko dugu. Lehenik, euskara eta japoniera bereizten dituen beste zenbait ezaugarri ekarriko ditugu eztabaidara: SOA hizkuntzetan aditzaren osagarriaren izaerak hitz hurrenkera ereduetan duen eragina erakutsiko dugu batik bat. Diferentzia hauek, halaber, hizpide ditugun hizkuntzek NZ-mugidarekiko erakusten dituzten desberdintasunak azaltzen dituen mekanismoa InfS-ren KonpS-rako mugida ez den beste leku batean bilatu behar dugula ere erakutsiko dute.

### 3. NZ- ateratzea: aditzaren aurreko eta aditzaren ondoko osagarriak

#### 3.1. IS vs. KonpS Osagarriak: desberdintasunak hitz hurrenkeran

Hurbil gaitezen hitz hurrenkeraren auzira ikuspegi diferente xamar batetik eta ikus dezagun osagarriaren izaerak nola eragiten dion perpausa baten azaleko hitz hurrenkerari. Has gaitezen, bada, japonieraren eratako hizkuntzak aztertzen, horretarako lehenik honako adibide hauek aintzat hartuz:

- (14) a. Mary-ga [IS **sono hono**] yonda (koto) S IS A  
 -nom [ libururu hori] irakurri (kontua/izana)
- b. \*Mary-ga yonda [IS **sono hono**] (koto) \* S A IS  
 -nom irakurri [liburu hori]  
 ‘Maryk libururu hori irakurri zuelakoa’
- (15) a. \*Mary-ga John-ni yuuteta [KonpS **Paris-ni iku-te**] (koto) \* S A KonpS  
 -nom -dat esan [ -dat joan-Konp]
- b. Mary-ga John-ni [KonpS **Paris-ni iku-te**] yuuteta (koto) S KonpS A  
 -nom -dat [ -dat joan-Konp] esan  
 ‘Maryk Joni Parisa joango zela esan zion’

(14)-ko adibidean *yonda* (‘irakurri’) aditzaren osagarria –*sono hono* (‘liburu hori’)– IS izaerakoa da; (15)-ean, berriz, *yuuteta* (‘esan’) aditzaren osagarria KonpS –*Parisni ikute* (‘Parisa joango zela’). (14) eta (15)-eko bi adibideen arteko gramatikaltasun kontrasteak erakusten duenez, osagarria IS zein KonpS delarik, japonieraz onartzen den hurrenkera bakarra osagarria aditzaren aurrean duena da. Beraz, (14a)-ko *Mary-ga sono hono yonda* eta (15a)-ko *Mary-ga John-ni Paris-ni iku-te yuuteta* hurrenkera posible bakarrak dira. Japoniera bezalako hizkuntzek, beraz, SOA ereduari irmoki jarraitzen diote.

Ezaguna da, hala ere, hizkuntza guztiak ez dutela portaera uniforme bera erakusten osagarriak betetzen duen posizioari begira. Har dezagun, adibidez, holandesaren kasua, (16)-(17) adibideetan jasotzen dena:

- (16) a. dat Jan [IS het verhaal ] *vertelde* S IS A  
 KONP Jan [ det istorioa ] esan-zuen  
 ‘Janek istorioa kontatu zuela’

- b. \*dat Jan *vertelde* [<sub>IS</sub> het verhaal ] \* S A IS  
 KONP Jan esan [ det istoria ]
- (17) a. dat Jan *vertelde* [<sub>KonpS</sub> dat hij ziek geweest was] S A KonpS  
 KONP Jan esan-zuen [<sub>KonpS</sub> konp bera gaixo izan zen]  
 ‘Janek bera gaixorik izan zela esan zuela’
- b. \*dat Jan [<sub>KonpS</sub> dat hij ziek geweest was] *vertelde* \* S KonpS A  
 KONP Jan [<sub>KonpS</sub> konp bera gaixo izan zen] esan-zuen.  
 [Kaan 1992:92]

(16)-an, *vertelde* (‘esan zuen’) aditzaren osagarria IS bat da *–het verhall* (‘istorioa’). Gramatikaltasun juizioek erakusten dutenez, osagarria IS denean aditzaren aurrean agertu behar du nahitaez. Beraz, holandesa japoniera bezala portatzen da IS osagarriak betetzen duen posizioari dagokiola.

Azter ditzagun orain (17)-ko adibideak, aditzaren osagarria *dat hij ziek geweest was* (‘gaixorik zegoela’) KonpS dutenak. IS osagarriak ez bezala, perpaus osagarriek aditzaren eskuinera agertu behar dute.<sup>2</sup> Japonierak ez bezala, holandesak aditzak hartzen duen osagarriaren izaeraren arabera dabilen asimetria bat erakusten du argi eta garbi. IS osagarriak aditzaren aurrean kokatzen diren bitartean, KonpS-ek aditzari jarraitzen dio.

Euskararen kasua apur bat diferentea da; (18) eta (19) adibideek egoera orokorra erakusten dute.

- (18) a. Mirenek [<sub>IS</sub> **egia** ] *esan zidan* S IS A  
 b. \*Mirenek *esan zidan* [<sub>IS</sub> **egia**] [S=fokoa ez bada] \* S A IS
- (19) a. Mirenek *esan zidan* [<sub>KonpS</sub> **Paris-era joango zela**] S A KonpS  
 b. Mirenek [<sub>KonpS</sub> **Parisera joango zela**] *esan zidan.* S KonpS A

Hitz hurrenkera alda dezaketen galdegaia eta beste auzi batzuk albo batera utzirik, IS osagarriak aditzaren aurrean kokatzen dira euskaraz. Ikusi (18a) eta (18b) adibideen arteko aldea.

Ikus ditzagun orain aditzaren osagarria *Parisa joango zela* menpeko perpausa duten (19)-ko


<sup>2</sup> Alboan uzten ari gara aditz faktiboen perpaus osagarriak.



adibideak. Interpretazio desberdintasun txiki batzuekin, menpeko perpausa aditzaren eskuinera ager daiteke, (19a)-n bezala, edo bere ezkerrera, (19b)-n ikusten denez. Beraz, euskarazko IS osagarriak aditzaren ezkerrera agertzen diren bitartean, perpaus osagarriak aditzaren aurrean zein atzean ager daitezke.

Laburbilduz, hiru hizkuntzak berdin portatzen dira IS osagarria eta aditzaren arteko hurrenkerari dagokiola; ezaugarri honen aldetik, hirurak dira SOA. Jokoan KompS osagarriak sartzen direnean, berriz, hirurek dute jokabide desberdina onartzen duten hitz hurrenkera aldaketei dagokiela. KompS osagarria aditzaren aurrean kokatzen da japonieraz, aditzari jarraitzen dio holandesez eta aditzaren aurrean zein atzean koka daiteke euskaraz. Aurkeztu berri dugun paradigmak bi ondorio interesgarri ditu eztabaidatzen ari garen auzietarako; izan ere, paradigma honek zerbait esaten digu bai Kayneren KompS-ko espezifikatzaileako InfS-ren mugidaren hipotesiari buruz baita hitz hurrenkera eta NZ-mugidaren arteko eragin-trukeari buruz ere.

KompS-ko espezifikatzaileako InfS-ren mugidari dagokiola, euskarazko (18)-(19) paradigmak zalantza interesgarri batzuk sortzen ditu InfS-ren mugidaren izaeraren eta bere arrazoien inguruan. Konplementatzailea bukaeran duen hurrenkera InfS KompS-ren espezifikatzaile mugituz lortu baldin bada, (18) eta (19)-ko adibideen arteko hurrenkera desberdintasunek adieraziko lukete InfS-ren mugida bakar-bakarrrik osagarria IS denean dela derrigorrezkoa. Izan ere, osagarria KompS denean, konplementatzailea –aditz multzoarekin batera– aditzaren argumentuen aurrean ager daiteke, *Aditza-Konplementatzailea-Osagarria* hurrenkera sortuz. Hau (20)-ko eskemek islatzen dute.



Ondorioz, InfS-ren Komp-en espezifikatzaileako mugidaren hipotesiaren arabera, InfS-ren igoera osagarria IS delarik gertatzen dela proposatzera behartuta geundeke. Eztabaida honetan oinarriturik, hitz hurrenkera eta NZ-mugidaren arteko eragin-trukea azaltzen duen beste hautabide bat proposatu nahi dugu. InfS-ren mugidaren hipotesia alboratzen dugun momentuan, SOA hurrenkera argumentu guztiak dagozkien ezkerreko Komunztadura islapenetara mugituz

lortu behar dugu. Hipotesi honen arabera, KonpS-osagarriek betetzen duten aditz aurreko posizioa ere KonpS beraren ezkerreko mugidari egotziko litzaioke. Aldi berean, aditza ezin daiteke Objektu-Komunztadura baino gorago egon.

Sistema honetan, aztertzen ari garen zenbait hizkuntzatan KonpS osagarriek eta IS osagarriek betetzen duten posizioen arteko desberdintasunak elementu hauek zilegiztatze baldintza desberdinen menpean daudela adierazten digu.

Gelditzen zaigun zatian, SOA hurrenkeren analisi hau hizkuntza batzuek erakusten duten Subjektua-KonpS-Aditza hitz hurrenkeraren analisisira hedatuko dugu. Hortaz, zenbait SOA hizkuntzaren NZ-mugida agerian egiteko ezintasuna ezkerreko mugitutako elementuetatik ateratzeko ezintasunari lotu behar zaiola argudiatuko dugu eta azken murriztapen hau Kateen Uniformetasunaren Baldintzaren bidez azaltzea proposatuko.

### 3.2. IS/KonpS bereizketa eta NZ-mugida

Gogora dezagun gure aurreko eztabaidan holandesak, japonierak eta euskarak ez zutela hitz hurrenkera desberdintasunik erakusten osagarria IS kategoriakoa zenean. Osagarria KonpS denean, berriz, hiru hizkuntzen arteko desberdintasun nabariak daude. Interesgarria hau da, korrelazio estu bat dagoela KonpS osagarriak betetzen duen posizioaren eta menpeko perpausetatik ateratzeko aukeraren artean. Has gaitezen japonierazko (21) adibidea aztertuz:

- (21) Sinbun-wa [dare-ga erab-are-ta to] tutae-te-i-masu-ka ?  
 egunkaria-top [nor-nom aukeratu-dute-Comp] informatu-da- GALD ?  
 ‘Nor aukeratu dutela informatzen du egunkariak?’ [Nishigauchi 1990]

Espero daitekeenez, KonpS osagarria aditzaren aurrean agertzen da. Hizkuntza honetan, KonpS osagarriak beti aditz aurrean agertzea NZ-mugida ezarekin lotuta dago. Har dezagun, bigarrenik, holandesezko (22) adibidea:

- (22) a. dat Jan vertelde [<sub>KonpS</sub> dat hij een slang gezien had]  
 KONP Jan esan-du KONP bera DET suge ikusi du  
 ‘Janek esan du suge bat ikusi duela’  
 b. **Wat** vertelde Jan [<sub>KonpS</sub> dat hij t gezien had]?  
 Zer esan-du Jan KONP bera ikusi du  
 ‘Zer esan du Janek ikusi duela?’ [Kaan 1992:93]

Oraingo honetan, perpaus osagarrien aditzaren ondoko posizioa ageriko NZ-mugidaren aukerari loturik agertzen zaigu. (22b) adibideak menpeko perpausoko *wat* ('zer') osagarria NZ-mugidaren bidez aurrera daitekeela erakusten du. Egoera honetatik atera dezakegun orokorpen deskriptiboa –urteetan zehar literaturan aztertutako kasu askoren berrespen enpiriko sendoa jaso duena– ondoko hau da, aditzaren aurrean kokatuta dagoen osagarri batetik NZ-ateratzea ez dela posible. Gogora dezagun euskaraz, aurreko atalean ikusi dugunez, perpaus osagarriak aditzaren ezkerrean zein eskuinera ager daitezkeela. Hau erakusten duten adibideak (19)-an eman ditugu. Espero genezakeenez, perpaus osagarrietatik NZ-ateratzea posiblea da; (23) adibideak mugida hau erakusten du:

(23) **Zer** esan dizute [t irakurri dute-la]?

Adibide honetan, objektua *-zer* NZ-sintagma- aditzaren eskuinean dagoen menpeko perpausetik atera dugu. Guretzat oso garrantzitsua da NZ-ateratzea aditzaren ezkerrean azaltzen den menpeko perpausetatik ere posiblea den jakitea, eztabaidatzen ari garen orokorpen deskriptiboaren arabera aditz aurreko eta aditz ondoko osagarrien arteko asimetria bat esperoko baikenuke auzi honetan. Izan ere, NZ-mugidak euskaraz orokorpen deskriptiboa berresten du. Azter ditzagun, orain, (24)ko adibideak:

(24) a. [<sub>KonpS1</sub> **Zer** esan dizute [<sub>KonpS2</sub> entzun dutela [<sub>KonpS3</sub> t irakurriko du-ela Peruk]]]?  
 b. \* [<sub>KonpS1</sub> **Zer** esan dizute [<sub>KonpS2</sub> [<sub>KonpS3</sub> t irakurriko du-ela Peruk] entzun dutela]]?

(24a) adibideko galderazko perpausarekin has gaitzen. Perpaus-hasierako posizioan agertzen den *zer* NZ-hitza sintaktikoki menpekoen dagoen KonpS<sub>3</sub>-tik atera da. Kontuan izan (24a) adibidean menpeko bi perpausak euren aditzaren eskuinera agertzen direla. Gogoratu, ildo beretik, menpeko perpausa eskuineko posizioan agertzea berak biltzen dituen elementuen NZ-mugida baimentzearekin lotu dugula. (24b) adibidean, berriz, menpeko KonpS<sub>3</sub> tarteko perpausoko *entzun* aditzaren ezkerrean mugitu da. Kontuan izan *zer* NZ-hitza ezkerrean mugitu den KonpS honen barneko osagarria dela hain zuzen; gramatikaltasun juzkuek adierazten dutenez, mugimendua ezinezkoa da oraingo honetan.


Laburbilduz, badirudi datuek orokorpen deskriptiboa baieztatzen dutela; hortaz, aditz aurreko osagaien barnetik ateratzea ez dago onarturik.

#### 4. Ezkerrerako Mugida eta Kateen Uniformetasuna

##### 4.1. Uniformetasunaren Hedapenak

Lehenago orokorpena ikuspegi teorikoago batetik berrazter dezakegu. Gogoratu gure sisteman perpausa aditzaren ezker aldean agertzea KompS osagarria ezkerreko espezifikatzaile posizioen batera mugitu delako seinalea dela. Beraz, honako hau proposatu nahi dugu: aditzaren ezkerreko osagarrietatik ateratzeko ezintasuna espezifikatzaile posizio batera mugitu den sintagma baten barrutik ateratzea debekatzen duen baldintza orokorrago batetik jarraitzen dela. Hatsarre hau, *Espezifikatzailearen Baldintza* deitzen duguna, (25)-ean jasotzen dugu. (26)-ko irudikapenak Espezifikatzailearen Baldintza bortxatzen duen konfigurazio estrukturala erakusten du:

(25) *Espezifikatzailearen Baldintza*: espezifikatzaile posizio batera (hau da, ezkerrean) mugitu den sintagma baten barnetik ezin daiteke mugidarik gertatu.



(26)-ko adibidean YS sintagma XS-ren espezifikatzailean mugitu da. Espezifikatzailearen Baldintzaren bortxaketa ZS sintagma ezker aldean mugitu den YS-ren barnean ateratzen denean gertatzen da.

Espezifikatzailearen Baldintzaren azpian dagoen motibazioa aski ezaguna den Subjektuaren Baldintza bera InfS baino islapen funtzional gehiago duen teoria bati egokitzea besterik ez da. Murriztapenaren birformulatze honen bidez Subjektuaren Baldintzaren eremua hedatzen dugu batik bat, osagarriaren O-Komuntadura Sintagmaren espezifikatzaile posizioan agerian mugitzeko aukera ere jaso ahal izateko.

Lan honetan urrats bat haratago joan nahiko genuke, Espezifikatzailearen Baldintza estipulatzeko arrazoirik ez dagoela proposatuz. Izan ere, baldintza honen ondorioak Kateen

Uniformetasunaren Baldintzatik deriba daitezkeela uste dugu, baldintza honi Chomsky eta Lasnik-ena (1993) baino interpretazio apur bat zabalagoa ematen badiogu behintzat. Aukera hau azter dezagun zehaztasun pixka batekin. Har dezagun, abiapuntu gisa, Chomsky eta Lasnik-ek (1993) proposatu duten jatorrizko Kateen Uniformetasunaren Hatsarrea:

(27) **Kateen Uniformetasunaren Hatsarrea** (Chomsky eta Lasnik 1993: 4.1.)

- (a) Forma Logikoan zilegiztatutako objektuak:  $K = (\alpha_1, \alpha_2, \dots, \alpha_n)$  katea Forma Logikoko objektu zilegia da bbaldin  $K$  uniforme bada [i] edo  $(\alpha, \beta)$  operatzaile-aldagai egitura bada [ii]:
- i. a. Argumentu katea:  $(A, \dots, A)$
  - b. Adjuntu katea:  $(A', \dots, A')$
  - ii. Operatzaile-aldagai katea:  $(A', (A, \dots, A))$
- (b)  $K$  katea  $P$  propietatearekiko uniforme da kateko  $\alpha_i$  maila guztiek  $P$  propietatea badute edo  $\alpha_i$  guztiek  $P$  propietatea ez badute.

Chomsky eta Lasnik-ek baldintza hau erabiltzen dute, besteak beste, Kategoria Isilen Hatsarre (KIH) *klasikoaren* zenbait ondorio enpiriko deribatzeke. Beraz, Kateen Uniformetasunaren ondorioz, adjuntuen tarteko aztarnak ezin ezaba daitezke; horregatik, hain zuzen, KIH-ondorioak erakusten dituzte. Hori gogoan izanik, aintzat har dezagun orain ondoko paradigma:

- (28) a. \*How do you wonder whether John said Mary solved the problem ?  
 Nola DO zu jakin-nahi GALD-KONP John esan-zuen Mary ebatzi DET problema?  
 'Nola jakin nahi duzu Jonek esan ote zuen Mariak ebatzi zuela problema?'
- b. ??Who do you wonder whether John said solved the problem ?  
 Nor DO zu jakin-nahi GALD-KONP John esan-zuen ebatzi-zuen DET problema?  
 'Nork jakin nahi duzu Jonek esan ote zuen ebatzi zuela problema?'

Bi adibideetan aurreratutako NZ-sintagmak NZ-irla bat zeharkatzen du, azpikotasunaren baldintza bortxatuz. Horretaz gain, (28a)-n mugitu den elementua NZ-adjuntua dugu. Urratsez urratseko mugida ziklikoaren bidez sortutako katea  $A'$ -kate uniforme denez, Uniformetasunak – Azken Aukera murriztapenarekin batera– bortxaketa sortu duen tarteko aztarna FL-n gelditzera behartzen du. Aitzitik, (28b) adibidean, aurreratutako NZ-hitza argumentua da eta, ondorioz, bere


urratsez urratseko mugida ziklikoak (A'-A'-A) erako kate bat sortzen du; hau da, kate ez-uniforme bat. Kate honen tarteko aztarnak ezabatu behar dira FL-n, katea operatzaile-aldagai kate gisa interpretatu ahal dadin. Ezabaketa honen ondorioz, egiturako aztarna urratzailea ez da FL-n egongo.

Gogoratu behar da Uniformetasuna oso garrantzi handikoa dela kate uniforme baten mailak ezaba ez daitezten. Baldintza are indartsuagoa inposa genezake kateen uniformetasunaren gainean. Demagun ezin onar daitekeela kate uniforme baten kate-maila bati bakarrik eragin diezaiokeen transformaziorik. Hau da, guk proposatu dugun Uniformetasunaren bertsio hertsia honen arabera, ez bakarrik ezabaketa, baita kate baten maila batean sartzea edota bere barnetik mugitzea ere bazterturik leudeke. Hau Kateen Uniformetasuna ulertzeko era natural bat dela dirudi, kate uniforme batean FL-an objektu bakartzat interpretatzen dena katea bere osotasunean delako, eta ez bere mailak zein bere aldetik.

Hau guztia kontuan izanik, saia gaitzen Espezifikatzailearen Baldintza, (29)-an errepikatzen duguna, Kateen Uniformetasunaren Baldintzaren bertsio hertsienetik deribatzen.

(29=25) **Espezifikatzailearen Baldintza**: ezin daiteke mugidarik gertatu espezifikatzaile posizio batera (hau da, ezkerrera) mugitu den sintagma baten barnetik.

(30)-ean irudikatzen denez, osagarri bat espezifikatzaile posizio batera mugitzeak bi maila dituen kate uniforme bat sortzen du: maila bat jatorrizko posizioan eta bigarrena jomuga posizioan. Mugida honen ostean YS barnetik zerbait ateratzen saiatuz gero, ateratze horrek katearen maila bakar bati eragiten dio. Ondorioz, mugida honek Kateen Uniformetasuna, hemen proposatu dugun interpretazio hertsian, urratzen du:




Ondokoa deribazioaren pausu bakoitzean sortzen diren kateen irudikapena da.

- (31) i. [YS ... ZS ...] ... [YS ... ZS ...]  
 ii. ZS ... [YS ... t ...] ... [YS ... ZS ...]

Laburbilduz, egin dugun proposamenaren arabera, Espezifikatzailearen Baldintza eta bere ondorio enpiriko guztiak Kateen Uniformetasunetik deriba daitezke. Gogoratu gainera *Subjektuaeren Baldintza* (29)-an proposatu dugun *Espezifikatzailearen Baldintza* orokorrigoaren kasu berezi bat besterik ez dela. Gure proposamenaren arabera, beraz, *Subjektuaeren Baldintza*ren ondorioak ere *Uniformetasunaren Baldintza*ren barruan kokatzen dira. Huang-en (1982) Ateratze Eremuen Baldintza beste zatiari –*Adjuntuaeren Baldintza*ri, hain zuzen– dagokiola, ikusteke gelditzen da hori ere *Kateen Uniformetasunaren* barruan sar daitekeen ala, aitzitik, gramatikaren baldintza independente batetik deribatu beharko genukeen.

Kontuan izan, bidenabar, Kateen Uniformetasuna urratzen ez duen deribazio bat badagoela. Har dezagun, adibidez, (32), (30) deribazioaren alternatiba bat:



(32)-ko egituran, ZS jatorrizko gunean gelditu den YS-ren barrutik mugitzen da YS bera ezkerreko espezifikatzaile posizio batera mugitu baino lehen. Hortaz, ZS-ren mugidak sintagma hau osagarri baten barrutik ohiko moduan ateratzen du. YS mugitzen denean, (32ii)-n ikusten denez, sortzen den katea ondo eraturako kate uniforme bat da. Izan ere, Uniformetasunaren baldintza ez da urratu, ez baitago YS-k sortzen duen kate konplexuaren maila bati bakarrik eragiten dion transformaziorik.

Baina kontuan izan (32)-ko deribazioaren bi mugidak ageriko sintaxian gertatzen badira, bigarren pausak Ziklizitatea bortxatzen duela. Dena den, (32)-ko deribazioa izateko posibilitateak berak bidea irekitzen digu azaltzeko zergatik NZ-mugida posiblea den bere jatorrizko posizioan dagoen osagarri baten barrutik, FL-n osagarriak berak espezifikatzaile

posizio batera mugitu beharko badu ere. Ohartzekoa da deribazioaren bigarren pausua FL-n –eta ez ageriko sintaxian– gertatzen bada deribazioak bat egiten duela. Hori horrela da bigarren pausua FL-n gertatzen denean Ziklizitatea ez delako aplikatzen. Ziurrenik (33)-ko adibidea horrelako kasu bat da, osagarriak FL-n Komuntadura Sintagmaren espezifikatzaile mugitu behar badu behintzat:

- (33) Who did            you see [pictures of t]?  
 Nor DO-LEHEN zu ikusi [argazkiak GENIT t]  
*lit: 'Noren ikusi zenituen argazkiak?'*

#### 4.2. Uniformetasuna, hitz hurrenkera eta NZ-mugida

Espezifikatzailearen Baldintza eta bere ondorio enpirikoak Kateen Uniformetasunetik nola deribatzen diren ikusi ondoren, orain uler dezakegu 3. atalean eztabaidatu dugun hitz hurrenkeraren eta NZ-mugidaren arteko erlazioa, erlazio hau Espezifikatzailearen Baldintzak azaltzen dituen kasuen adibide bat besterik ez baita.

Gogora dezagun korrelazio bat dagoela KonpS-osagarriek betetzen duten posizio kanonikoaren eta osagarri hauetatik NZ-hitzak ateratzeko duen gaitasunaren artean. Japoniera bezalako hizkuntzetan, non perpaus osagarria aditzaren ezkerrean agertzen den, KonpS-ren barrutik ateratzea ezinezkoa da oro har. Gure terminoetara itzuliz, KonpS ezkerreko espezifikatzaile posizio batera mugituenez posizio horren barnetik zerbait ateratzeak Uniformetasuna urratzen du. Berriz, KonpS aditzaren eskuinera, bere jatorrizko gunean alegia, ager daitekeen hizkuntzetan –hau da, euskaraz eta holandesez zein ingelesa eta gaztelararen tankerako SAO hizkuntzetan besteak beste–, posiblea da jatorrizko posizioan dagoen KonpS-tik ateratzea. Erakutsi dugunez, mugidak sortzen dituen kateak ondo eratuak daude kasu honetan, menpeko perpausa FL-n Komuntadura Sintagmaren espezifikatzaile mugitu zein ez.

#### 4.3. Ezkerreko Mugida, berreraiketa eta Uniformetasuna

Atal hau bukatzeko, kontuan izan ditzagun hizpide dugun Uniformetasunaren Baldintzaren interpretazio hertsian eragina izan dezaketen beste zenbait kasu. Azter dezagun (34a) eta (34b) adibideen arteko kontrastea (Torregoren (1986) lanetik egokituak):



(34) a. \*Esta es la autora de la que varias traducciones han ganado premios  
 hau da DET egile GEN DET KONP batzuk itzulpen dute irabazi sari  
 internacionales.

nazioartekoak

*'Hau da egilea zeinaren itzulpen batzuek nazioarteko sariak irabazi baitituzten'*

b. Esta es la autora de la que no sabes qué traducciones han ganado  
 Hau da DET egile GEN DET KONP ez dakizu zeintzu itzulpen dute irabazi  
 premios internacionales

sari nazioartekoak

*lit: 'Hau da egilea zeinaren ez dakizun zein itzulpenek irabazi dituzten nazioarteko sariak'*

(34a)-n, lehendabizi *varias traducciones de la que* IS aditz aurreko subjektu posizioa igotzen da ohiko moduan eta orduan erlatibozko operatzailea, *de la que*, bere barnetik mugitzen da. Bigarren mugidak subjektuak sortu duen katearen maila bati eragiten dio bakarrik. Gure sisteman, NZ-mugidak Uniformetasuna urratzen du eta deribazioak huts egiten du.

Torrego ohartzen da adibidea nabarmenki hobetzen dela (34b) adibidean bezala gertatzen bada, alegia NZ-hitza biltzen duen subjektua bera NZ-mugidaren bidez tarteko KonpS baten espezifikatzaile mugitu bada. Hori da, hain zuzen, guk esperoko genukeena; bigarren adibide honetan, erlatibozko operatzailearen ateratzea kate ez-uniforme baten A' maila baten barrutik gertatzen da. Kate ez-uniforme hau KonpS-ren espezifikatzailean dagoen NZ-hitzak eta atzean utzitako aztarnek osatzen dute. Operatzaile-aldagai katea uniforme ez denez, katearen operatzaile zatitik NZ-hitz bat mugitzeak ez du Katearen Uniformetasunaren Baldintza bortxatzen eta, ondorioz, deribazioak bat egiten du.

(34a-b)-ko kontrastea gure hipotesiari egokitzen zaio, hipotesi honen arabera Uniformetasunak Espezifikatzailearen Baldintza biltzen baitu. Argumentuek perpausa barruan betetzen duten posizioa eta euren barnetik ateratzeko posibilitatea edo ezintasunaren arteko erlazioa azalduta gelditzen da, beraz.


## 5. Perpausa Barneko Mugida eta Kateen Bakartasuna

### 5.1. Kateen Bakartasuna eta Tasunen Indarra

Hala ere, Kate Uniformetasunak ezin du japoniera edo koreera bezalako hizkuntzetan aditz aurreko argumentuek erakusten duten mugida laburra egiteko ezintasuna azaldu. Beraz, badirudi badagoela egia zati bat lan honen hasieran eztabaidatu dugun orokorpenean, alegia SOA hizkuntzek ez dutela orokorrean ageriko NZ-mugida erakusten, hemen aurkeztu dugun kontrako ebidentzia egon arren.

Beste azalpenen bat beharko dugu, beraz, Uniformetasunaren Baldintzak bakarrik azaltzen ez dituen kasuak jasotzeko. Hau da, azaltzeke gelditzen zaigu japoniera edo koreera bezalako hizkuntzetan perpausaren barnean dauden aditzaren argumentuek erakusten duten azalean NZ-mugitzeko ezintasuna. Badirudi alde honetan ikus ditzakegun diferentzia parametrikoko aditzaren argumentuek aditzarekiko okupatzen duten posizioarekin lotuta daudela, SOA hizkuntzek SAO hizkuntzek erakusten ez duten NZ-mugidarik ez izateko joera sendo bat erakusten baitute. Izan ere, hori zen Kayneren KonpS-ko espezifikatzaileko InfS-ren mugidaren hipotesiak azaldu nahi zuena.


Gure sisteman, NZ-mugidaren ezintasunak argumentuak ezkerreko espezifikatzailearen batera mugitzearekin lotuta egon behar du. Hemen onartzen dugun sistema minimalistan, parametroa argumentuen ageriko mugidarekin lotuta baldin badago, orduan jokoan parte hartzen duten elementuen ezaugarri morfologikoeekin erlazionatuta behar du izan. Hortaz, bidezkoa da ontzat jotzea parametroak baduela zerikusia argumentuaren jomuga den komunztadura-posizioaren tasun morfologikoen indarrarekin. Izan ere, argumentua KmzS-ren espezifikatzaile mugitzen denean ezin daiteke NZ-mugida egin, hain zuzen ere. Xehetasunetan sartu gabe, interesatzen zaigun egitura (35)-koa da:



Azter dezagun konfigurazio hau zehaztasun pixka batekin. Argumentu bat islapen funtzional baten espezifikatzaile agerian mugitzeko arrazoia islapen horren buruarekin erkatzen den

tasuna sendoa dela izan behar du. Orduan, NZ mugitu ezin daitekeenean ardatzarekin tasun sendo bat erkatu den posizio batean egon behar du. Hala ere, tasunaren indarra ezin daiteke bortxaketaren arrazoi nagusia izan, behin erkatuz gero tasun sendoa desagertzen delako. Hortaz, ZS berriro mugitzen denean tasun sendoa ez litzateke hor egongo.

Hau guztia kontuan izanik, arazoa konpontzeko behin-behineko irtenbide bat proposatu nahi dugu. Gogoratu (35)-ko ZS-ren mugida goragoko posizio funtzional batean egon beharko duen tasun sendo batek eragiten duela nahitaez. Hori hala bada, saihestu nahi dugun mugida (36)-koa izango da:



(36)-n, zilegi ez den mugida tasun sendo bat erkatu den islapen funtzional baten espezifikatzailetik bigarren tasun sendo bat erkatuko den beste islapen funtzional baten espezifikatzaileira gertatzen denean aurkitzen da. Hala bada, mugidaren ezintasuna elementu batek maila berean tasun bat baino gehiago erkatzeko debeku baten ondorioa izan daiteke. Bestela esanda, Katea Sortu operazioak ezin du kate bat sortu zeinetan bi tasun sendo erkatzen diren. (37)-n proposatzen dugun *Kateen Bakartasuna* saiatzen da propietate hau jasotzen:

(37) *Kateen Bakartasunaren Baldintza*: *a* kateak tasun multzo bakar bat erka dezake

Baldintza honek japonieraz NZ-mugida egiteko ezintasuna azalduko luke: hizkuntza honetan argumentu guztiek *Agerian Utzi* baino lehen tasun sendo bat erkatu dute, hurrenkerak erakusten duenez. Kontuan hartzekoa da arazoa ikusteko modu honek ageriko NZ-mugida kateak erkatutako tasunen baldintza bati egotzen diola eta ez NZ-mugidari berari. Hau nahi dugun ondorioa da, lehen esan dugunez morfologikoa dirudien kontu baten aurrean baikaude.

## 5.2. Nola saihestu Kateen Bakartasuna: zenbait espekulazio

Baina orain gure arazoa bestelakoa da. *Kateen Bakartasunak* japoniera bezalako hizkuntzetan ageriko NZ-mugida ez egotea azaltzen du eta, orokorrean, lanean zehar eztabaidatu dugun orokorpenerako erantzun bat eskaintzen du, zeinaren arabera SOA hizkuntzek, oro har, NZ-mugidarik ez baitute. Baina, lehenengo atalean ikusi dugunez, badira SOA hizkuntzak NZ-mugida erakusten dutenak. Jarraitu dugun bidea kontuan izanik, posibilitate hau ez gertatzea esperoko genuke orain, Kateen Bakartasunak espezifikatzaile sendo batetik sortzen diren mugida aukera guztiak baztertzen dituelako.

Bi bide daude arazo honi aurre egiteko. Alde batetik, Kateen Bakartasuna ahuldu dezakegu arazoa sortzen duten kasuak onartu ahal izateko. Bestetik, azter ditzakegu SOA hizkuntzek erabil ditzaketen bide alternatiboak Kateen Bakartasunaren Baldintzaren ondorio indartsuegiak saihesteko. Artikulu honetan bigarren bideari jarraituko diogu, aldi berean zenbait SOA hizkuntzatan agertzen diren NZ-mugida gauzatzeko beste estrategia alternatiboak hizkuntza hauen ezaugarri independenteekin lotzen ditugularik. Egon daitezkeen alternatiba guztiak aztertzeko asmorik ez badugu ere, horien artean garrantzitsuenetako bi aipatu nahiko genituzke labur-labur.

Ezaguna da buru-mugida garrantzitsua dela mugida sintaktikoa murrizten duten baldintzak nolabait ahultzen. Aipa dezagun, adibidez, buru-mugidak KIH teorian askotan jokatu duen rola zenbait bortxaketa mota saihesteko. Aipa genezake, halaber, Bakerren (1988) *Buru Gobernuaren Gardentasunaren Korolaria*o, buruaren gobernu-eremua mugitu den posizioraino hedatzen duena. Bide bera jarraituz, proposatu nahiko genuke tasun sendoa erkatzen duen buruaren mugidak bere espezifikatzaile posizioan dagoen elementua mugitu daitezkeen eremua hedatzen duela modu batera edo bestera. Era intuitibo batean azaltzeko, tasun sendoa duen buruaren mugidak espezifikatzailea ahul bihurtzen du etor daitezkeen mugidei begira. Ideia hau modu desberdinetan gauza daiteke.

Posibilitate bat buru baten mugidak buru horren eta bere espezifikatzailearen arteko erkatze-erlazioak aldatzen dituela proposatzea da. Kontuan izan buru bat goragoko posizio batera igotzen bada, mugitu den buruak eta jomuga buruak mailaren batean edo bestean komunean erkatu beharreko tasun bat izan behar dutela nahitaez.

Bestalde, NZ-hitzaren mugida buruarekin tasunen bat erkatze operazio batek eragin behar du. Litekeena da espezifikatzailean dagoen islapen nagusia eta buruaren arteko tasun sendoaren erkatzea goragoko islapen honen konfigurazioan ere gertatu ahal izatea. Ildo honetatik doan

azalpenen bat zuzen badago, honek aukera emango luke zenbait hizkuntzatan NZ-hitza aditz aurreko posiziotik mugi zedin *a priori* esperoko ez genituzkeen testuinguruetan. Hau desberdintasun garrantzitsua izan liteke japonieraren eta konfigurazio batzuetan aditzaren mugida erakusten duten zenbait hizkuntza germaniarren artean dauden desberdintasunak azaltzeko.

Azkenik, euskara eta japonieraren arteko desberdintasuna bi hizkuntza hauen artean ikusi den beste diferentzia bati lotu dakioke. Bi hizkuntzek *pro-drop* estrategia zabal erabiltzen badute ere, hizkuntza hauek desberdinak dira *pro-drop* zilegiztatzten duten mekanismoen aldetik. Euskarazko argumentu-ezabaketaren posibilitatea hizkuntza honen aditz-sistemak komunztadura aberatsa erakustearekin oso lotuta dagoela dirudi. Bestalde, aditzarekin batere komunztadurarik erakusten ez duten japoniera bezalako hizkuntzetan, *pro-drop* fenomeno diskurtsoari lotua dagoela dirudi, Huang-en (1984) azalpenaren ildotik jarraituta. Lehenengo *pro-drop* mota aditz ondoko NZ-mugidaren posibilitatearekin lotu izan da. Izan ere, Rizzik (1982, 1989) eta ondorengo lanek hizkuntza erromanikoetan aditz ondoko subjektuen ateratzea *that*-aztarna ondorioak saihesteko modu bat dela argudiatu dute. Euskaraz ere NZ-mugida Aditz Sintagmaren barneko posizio batetik gertatzen bada –hizkuntza honek erakusten duen komunztadura aberatsa kontuan izanik oso onarterraza litzatekeen suposizioa–, aukera honek Bakartasunaren Baldintzaren bortxaketak saihesteko bide bat eskainiko liguke.

## 6. FF eta FL-ko Hatsarreak

Bukatu nahi dugu lan honetan eztabaidatu ditugun bi hatsarre nagusiak, *Uniformetasuna* eta *Bakartasuna*, orokorragoa den *Interpretazio Osoa* hatsarrearen bi alde besterik ez direla iradokiz. Litekeena da bi murriztapen hauek *Interpretazio Osoak* kateak objektu bakarrak direla adierazteko duen modua izatea. Hala balitz, bi hatsarre hauek *Interpretazio Osoaren* kasu bereziak lirateke.

### Aipamen bibliografikoak

Bach, Emmon. 1971. "Questions". *Linguistic Inquiry* 2, 153-166.

Baker, Carl Lee. 1972. *Indirect Questions in English*. Doktorego tesia, Indiana University.

Baker, Mark. 1988. *Incorporation. A theory of Grammatical Function Changing*. Chicago:

- University of Chicago Press.
- Bresnan, Joan. 1972. *Theory of Complementation in English Syntax*. Doktorego tesia, MIT.
- Chomsky, Noam. 1993. "A Minimalist Program for Linguistic Theory". In K. Hale & J. Keyser (arg.) *The View from Building 20*. Cambridge MA: MIT Press. 1-52.
- Chomsky, Noam & Howard Lasnik (1993). "The theory of Principles and Parameters". In J. Jacobs, A. Von Stechow, W. Sternefeld eta T. Vennemann (arg.), *Syntax: An International Handbook of Contemporary Research*. Berlin: de Gruyter. 506-569.
- Huang, James. 1982. *Logical Relations in Chinese and the Theory of Gramma*. Doktorego tesia, MIT.
- Huang, James. 1984. "On the distribution and Reference of Empty Pronouns". *Linguistic Inquiry* 15:4, 531-574.
- Kaan, Edith. 1992. *A Minimalist Approach to Extraposition*. Mastergo tesia, University of Groningen.
- Kayne, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Lasnik, Howard. 1993. "Lectures on Minimalist Syntax". *UCONN Occasional Papers in Linguistics* [MITWPL-ek zabaldua].
- Lasnik, Howard & Mamoru Saito. 1992. *Move  $\alpha$* . Cambridge MA: MIT Press.
- Nishigauchi, Taisuke. *Quantification in the Theory of Grammar*. Dordrecht: Kluwer Academic Press.
- Rizzi, Luigi. 1982. *Issues in Italian Syntax*. Dordrecht: Foris Pub.
- Rizzi, Luigi. 1989. *Relativized Minimality*. Cambridge MA: MIT Press.

*Javier Ormazabal*

<javier.ormazabal@ehu.es>

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

*Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila*

*Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea*

*Unibertsitatearen Ibilbidea 5*

*01006 Vitoria-Gasteiz, SPAIN*

*Juan Uriagereka*

*<juan.uriagereka@umd.edu>*

*University of Maryland*

*Linguistics Program*

*Marie Mount Hall 1104, College Park.*

*Maryland 20742, USA.*

*Myriam Uribe-Etxebarria*

*<myriam.uribe-etxebarria@ehu.es>*

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

*Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila*

*Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea*

*Unibertsitatearen Ibilbidea 5*

*01006 Vitoria-Gasteiz, SPAIN*





# Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaran<sup>1</sup>

Jon Ortiz de Urbina

Deustuko Unibertsitatea

## Laburpena


*Artikulu honetan ea morfema ilokutiboa burua duen Indar Sintagma baten aldeko ebidentzia aurkezten da. Sintagma hau, konplementatzaileak osastzen duenetik ezberdina dena, bai Foku eta Topiko sintagmen ezkerretara, bai eta konplementatzailearen beraren ezkerretara egongo litzateke kokatuta. Mugarri hau erabilgarria suertatzen da ezkeraldeko periferiaren osagai batzuen hurrenkera erlatibo eta ezaugarriak zehazteko. Operatzaileen jomugak diren Indar eta Foku sintagmen espezifikatzaileak eta, batez ere, osagarrien ezkerretara dauden Ind eta Fok buruek, euskararen A2/A1 antzeko fenomeno anitzen azalpen sinplea proposatzea ahalbidetzen dute.*

## 0. Sarrera

Perpausaren ezkeraldeko periferiaren eraketa analizatzean, Rizzik (1997) Konplementatzaile Sintagma (KonpS) ugaldu egin behar dela proposatzen du. KonpS bakar baten ordean, indar ilokutiboa eta jokatasuna sintagma bereziek zeregin informatibo, morfologiko eta semantikoak beteko lituzkete. Indar Sintagmak (IndS) aditz nagusiaren subkategorizazio beharrak aseko lituzke menpeko perpausaren tipoari dagokionean (galdera, adierazpena, etab.). Jokatasun sintagma (JokS), bestaldetik, menpeko perpausaren aditz inflexioaren ezaugarri morfologikoekin lotzen da. Bi sintagma hauen bitartean, informazio eraketaz arduratzen diren beste sintagmak aurki daitezke: Topiko Sintagma (TopS) eta Foku Sintagma (FokS). Ezkeraldeko periferia (1)ean bezala osatuko litzateke proposamen honen arabera:

---

<sup>1</sup> Artikulu honen jatorrizko bertsioa 'Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque' izenpean agertu zen, J. Franco, A. Landa & J. Martin, arg., 1999, *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*, Amsterdam: John Benjamins liburuan. Eskerrak eman nahi nizkieke Xabier Artiagoitia eta Arantzazu Elordietari euskaratzeko gomitatatik.



Tarteko Top eta Fok sintagma aukerazkoak dira; Topikoak (mintzagaiak) bat baino gehiago izan daitezkeenez, TopS-ak aniztu egin daitezke, FokS bakar bat egon daitekeen bitartean.

Analisi honek euskararen azterketaren ohiko arazo bat argitzen lagun diezaguke: sintagmen buruak nahiko sistematikoki eskumatara agertu arren (*pace* Kayne 1994), ezkerraldeko buru batzuk daudela onartu behar dugula ematen du. Buruz buruko mugimendutzat har daitezkeen mugimendu batzuek ezkerraldeko periferia dute jomuga, hala nola ezeztapena (Laka 1990) eta fokalizazioa/galdera eraketako *Aditza lehenengo* (A1) eta *Aditza bigarren* (A2) bezalako fenomenoak (ikus. Ortiz de Urbina 1995, Uriagereka 1992, eta bertako aipamenak; Ormazabal, Uriagereka eta Uribe-Etxebarria 1994 lanak ondo erakusten du euskararen A2 antzeko fenomenoak ikuspegi antisimetriko batetik aztertzean sortzen diren arazoak). Fenomeno hauek deskribatu eta azaldu ahal izateko, zenbait buru/jomuga hautatu dira ezkerraldeko periferiaren fenomeno hauen azterbide ezberdinetan: Konp (Ortiz de Urbina 1989),  $\Sigma$  (Laka 1990) edota Fokua bera (Uriagereka 1995, Ortiz de Urbina 1999). Egoera honetan, Rizziren (1)eko ‘komplementatzaile’ sistema artikulatuagoak arakatzea merezi duten bide berriak eskaintzen dizkigu. Hala ere, artikulua honetan zeharbidez bakarrik ukituko ditut gehienak, gehienbat Indar Sintagma baten aldeko ebidentzia aurkezten saiatuko naizelarik. Sintagma hau, komplementatzaileak osatzen duenetik ezberdina dena, bai Foku eta Topiko sintagmen ezkerretara, bai eta komplementatzailearen beraren ezkerretara egongo litzateke kokatuta. Mugarri hau erabilgarria suertatzen da ezkerraldeko periferiaren osagai batzuen hurrenkera erlatibo eta ezaugarriak zehazteko. Artikulua honela dago egituratuta: lehenengo atalean, *ea* partikula marka ilokutibotzat hartzearen aldeko datuak eskaintzen dira. Bigarren atalean marka hau eta mintzagaiak, fokuak eta nz-hitzen arteko hurrenkera erlazioak arakaten dira. Azkenik, hirugarren atalean *ea* burutzat hartzeko ebidentzia ematen da.

### 1. *Ea* galdetzailea *qua* indar alokutibo marka

*Ea* galdetzailea zehar galderen aurrealdean aurki dezakegun aukerazko osagaia da, ondoko adibideetan bezala:

- (2) a. Galdetu du (ea) nola egingo dudan  
b. (Ea) nork agindu duen hori jakin nahi nuke

Adibideotan ikus daitekeenez, *ea* normalean atzizki konplementatzailetzat hartzen den *-(e)n* markarekin batera azaltzen da. Azken hau adizki jokatuarekin lotzen da, laguntzailearekin aurreko kasuetan. *Ea* menpeko inguruetan agertzen da bereziki; perpaus nagusietako *ea*, (3) adibidekoa esate baterako, ez da galdetzailea, eta aholku eta desira ilokuzio motak markatzeko erabiltzen da:

- (3) *Ea* noiz heltzen garen!(\*?)

Adibide hau galdera zuzen bezala interpretatu nahi izango bagenu (galdera ikurraz markatzen den interpretazioa), oihartzun galdera izango litzateke, zentzu berezi batean: alde zurretik egindako galdera baten errepikapena.<sup>2</sup>

Hala ere, *ea* ezin da ageri sintaktikoki zehar galderak diren egitura guztietan. Suñerren (1993) terminologiari jarraituz, marka hau onargarria da galdera osagarrietan (4), baina ez erdi-galderetan (5):

- (4) a. Galdetu du (ea) egitea merezi duen  
b. Ez dakit (ea) nori esan ahal diodan  
(5) a. Azaldu didate (\*ea) nor etorriko den  
b. Badakite (\*ea) nork egin zuen hilketa

(4)-ko osagarriak interpretazio intentsionala dauka, (5)-ekoa estentsionala den bitartean: (4b) adibideko galdera osagarriak multzo bat definitzen du, (5b)-koa pertsona jakin batez ari den bitartean. Dagozkigun interpretazioetan, *galdetu* bezalako predikatu batek benetako galderen berri ematen digu, *azaldu* predikatuak erantzunetatik hurbilago dagoen osagarriak hartzen

<sup>2</sup> Lafittek (1944) *ea* eta ekialdeko euskalkietako *-a* bai/ezko konplementatzailea alderatzen ditu: lehenengoa menpeko galdera marka da, bigarrena perpaus nagusietara murriztuta dagoen bitartean. Antzekoa da *ea* gaztelaniazko *a ver* markarekin, eta Lafitteen gramatikak *voyns* bezala itzultzen du.

dituen bitartean. Batzuetan, predikatu batek interpretazio biak onar ditzake, ondoko adibideetan bezala:

- (6) a. Esan didate (ea) nor etorri den  
 b. (Ea) nor etorri den errepikatu dute

*Esan* edo *errepikatu* predikatuek bai ‘esaten’ edo ‘errepikatzen’ diren galdera osagarriak bai eta haien erantzunak (estentsioak) har ditzakete. Ondoko elkarrizketan, esaterako, esaten edo errepikatzen dena bai galdera bai eta erantzuna izan daiteke:

- (7) G. Nor heldu da?  
 E. Mikel.

*Ea* erabiltzen ez bada, bi interpretazioen arteko anbiguotasuna mantendu egiten da. Aldiz, *ea* erabiliz gero, osagarriak interpretazio intentsionala hartu behar du. Beraz, *ea* semantikaren aldetik galdera denarekin lotzen da, ez erdi-galderekin. Honen arabera, benetako galdera osagarrien indar ilokutibo marka bezala interpreta genezake.

Partikula hau bereizi egin daiteke *-(e)n* konplementatzailetik, gorago esan bezala, azken hau inguru denboradunetan bakarrik azaltzen baita. Bestaldetik, *ea* onargarria da inguru denboragabeetan ere:

- (8) a. Ez dakit ea hemen gelditu ala ez  
 b. Jakin nahi nuke ea zer egin

Rizziren hurbilketan, ulergarria da bereizketa hau: marka ilokutiboek predikatu nagusiaren osagarriaren indar mota adierazten dute, konplementatzaile bezala identifikatu dugun *-(e)n* morfema menpeko flexioaren jokatutasunarekin loturik dagoen bitartean.

## 2. Hurrenkera erlazioak

*Ea* partikula oso mugari erabilgarria suertatzen da nahiko sistematikoki ‘osagarri-burua’ motakoa dirudien hizkuntza honetako ezkerreko periferia aztertzeko. Periferia honetako beste osagaiak mintzagaiak, fokuak eta galdetzaileak dira. Mintzagaiak foku/nz-hitzen

ezkerretara agertzen dira, eta hauek flexio markak dauzkan aditz buruaren ezkerretara ere agertzen dira. Foku/nz-hitz bakarraren ezkerretara mintzagai bat baino gehiago egon daitezke, zerrenda intonazio batekin ahoskatzen direnak:

(9) Atzo/Mirenekin/Jon nora/ETXERA joan zen

Datu hauek analizatzerakoan zehaztasunak asko aldatzen badira ere azterbide ezberdinetan, eman dezagun batera ezin ager daitezkeen foku eta nz-galdetzaileek egongune berbera dutela jomuga, Foku Sintagmaren espezifikatzaile gunea hain zuzen. *Ea*-ri dagokionez, ondoan ezkerreko periferiako beste osagai hauekiko hurrenkera erlazioak zehazten dira:

(10) Mintzagaiak *Ea* Mintzagaiak Foku/nz

Hurrenkera hauek ondoko azpiataletan arakutzen dira.

### 2.1. *Ea* eta mintzagaiak

Goiko (1) zuhaitzak iradokitzen duenaren kontra, mintzagaiak *ea*-ren ezker zein eskumatara azal daitezke:

- (11) a. Galdetu dute liburua Jonek ea nori erregalatu dion  
 b. Galdetu dute ea liburua Jonek nori erregalatu dion  
 c. Galdetu dute liburua ea Jonek nori erregalatu dion

*Ea*-ren aurreko eta atzeko mintzagaien arteko ezberdintasuna ezin daiteke identifikatu, eman dezagun, analisi batzuetan perpaus barruko *pro* izenordainekin loturik dauden perpaus kanpoko osagai dislokatuekin (*ea*-ren aurreko mintzagaiak) eta (1) adibideko TopS guneetan dauden *A*-marra topikoekin (*ea*-ren atzekoak). Honetaz jabetzeko Echeparek (1996) aipatutako fokuen inguruko datu batzuez balia gaitzke. Echeparek foku kontrastibo eta enfatikoa ezberdintzen ditu. Normalean pentsatu bezala, foku kontrastiboak ale bakarreko zerrenda interpretazio bat (*exhaustive interpretation*) suposatzen du; gainera, auresuposizio existentzial batekin dago lotuta, (12b)-n erakutsi bezala:

- (12) a. JONEK eman zion Mireni erregalua  
 b.  $\exists X [x\text{-}k \text{ Mireni erregalua eman}], x=\text{Jon}$

Bestaldetik, oso ezberdina da foku enfatikoa. Honetan ebentoa elkarriketan inplikaturik da. Honen ondorioz, esandakoaren kontrako jarraipenak onargarriak dira, (13) adibidean bezala:

- (13) JONEK ikusi zuen Miren, benetan inork egin bazuen (= Echepeare #3).

Echepeareren (1996) arabera, ezkerrean dislokatutako mintzagaiak foku enfatikoekin batera ager daitezke, *scrambling* fenomenoetan sortutako mintzagaiak foku kontrastiboekin aurkitzen ditugun bitartean. Hau da (14)-ko kasua:

- (14) Mireni ardoa JONEK oparitu dio, \*inork oparitu ba-dio (=Echepeare #9b)

Kontrako jarraipena onartezina omen da hemen, foku kontrastiboa izatean baten batek Mireni zerbait oparitzea auresuposatuta dago eta. Echeparek adibide honetako fokuari aurreko mintzagai hauek ‘perpaus barruko’ *scrambling* baten ondorioztat hartzen ditu, foku kontrastiboak KonpS-ra mugitzen ez direlako bere analisiaren barruan. Hau horrela balitz, fokuari aurreko bi mintzagaiak (*Mireni ardoa*) oraindik ere InfS barruan egongo liriteke (Mahajanek 1990 eta Saitok 1992 proposatzen duten *A-scrambling* fenomenoaren kasuak). Eman dezagun hau honela dela, argudioaren izenean.<sup>3</sup> Hau guztiau *ea*-rekiko hurrenkerarekin lotzen dugunean, berehala konturatzen gara *scrambling*en bidez kokatutako *ea* aurreko eta *ea* atzeko mintzagaiek ez dutela fokuari interpretazioa aldarazten. Bi kasuetan fokalizazioa enfatikoa da, ez kontrastiboa:

- (15) a. Galdetu dute Mireni ardoa ea neuk eman diodan, inork eman badio  
 b. Galdetu dute ea Mireni ardoa neuk eman diodan, inork eman badio

Izenordaina fokalizaturik dago, eta, hizlariak berak esandakoaren aurkako jarraipenaren onargarritasunak erakusten duenez, interpretazio enfatikoa hartzen du, berdin dela *Mireni* eta

<sup>3</sup> Badago, hala ere, arazo bat arlo honetan ikerbide honetarako. Osagaiak fokuari ezkerretara agertzen direnean fokua eta aditzaren artean ezin daiteke inongo osagairik agertu:

(i) \*Tabernan Mireni JONEK ardoa oparitu dio

Baina, Echepeareren (1996) arabera, lotura hau foku enfatikoaren kasuan bakarrik gertatuko litzateke.

*ardoa* mintzagaiak *ea*-ren aurretik edo atzetik jartzen diren. Echepareren ikuspegi honetan, honek esan nahi du bi mintzagaiok ez daudela, delako *scrambling* baten ondorioz edo, perpaus ‘barruko’ A-egongune batean. Aldiz, InfS ‘kanpoko’ A-marra egongune batean edota dislokatuta egon behar dute. Cinque (1990), Lasnik & Saito (1992) eta Echepareren (1996) arabera, osagai bakar bat besterik ezin bada ezkerraldean dislokatuta agertu, orduan (15) adibidean mintzagai bat behintzat (eta beharbada biak) dago A-marra egongune batean.<sup>4</sup> Rizziren azterbidearen barruan mintzagai egongune hori(ek) Topiko Sintagmakoa(k) d(ir)a. Beraz, badirudi *ea* aurreko eta *ea* atzeko mintzagaiok elkarren antzekoak direla egongune sintaktikoari dagokion aldetik.

Polaritate osagai batzuen onargarritasunean, hala ere, ezberdintasun nabariak sumatzen dira *ea*-ren ezkerretara edo eskumatara agertzen diren. Honelako bi elementu ukituko ditugu hemen, *libururik* bezalako sintagma partitiboak eta *inor*, *ezer* bezalako zenbatzaile zehaztugabeak. Beste polaritate osagaiak bezalaxe, sintagma hauek inguru sintaktiko jakin batzuetan bakarrik ager daitezke, polaritatekoetan hain zuzen (Laka 1990, Uribe-Etxebarria 1994). Hala ere, zerbait gehiago gaineratu behar da mintzagai bezala nola erabiltzen diren ulertzeko. Ondoan onargarritasun ezberdintasunak azaleratzen ditugu *ea* aurrean eta atzean agertzearen arabera:

- (16) a. \*Galdetu du inor ea heldu den  
 b. Galdetu du ea inor heldu den  
 c. ??Galdetu du ea inor nork ikusi duen
- (17) a. Galdetu du libururik ea erosi duen  
 b. Galdetu du ea libururik erosi duen  
 c. Galdetu du ea libururik nork erosi duen

Kontrasterik nabarmenena (a) kasuetan aurkitzen da, zenbatzaileak *ea*-ren ezkerretara jartzen direnean: partitiboan dauden sintagma onargarriak dira (17a), zenbatzaile zehaztugabeak onartezinak diren bitartean (16a). Biak dira onargarriak *ea* osteko gunean (b). Hala ere, kontuz ibili behar dugu (b)-ko gunea besterik gabe mintzagai gunetzat hartu baino lehenago. Baliteke, esate baterako, (16b)-ko *inor* osagaia InfS ‘barruko’ A-gune batean egotea (demagun, subjektu gunean). Benetan interesatzen zaizkigun mintzagaiez ari garela

<sup>4</sup> Noski, oraindik ere *ea* aurreko edo atzeko mintzagai bat dislokatuta dagoela suposa genezake, Echeparerekin batera. Ageriko izenordain klitikorik gabeko hizkuntza batean, hala ere, zaila izango litzaioke hizkuntza bereganatzen duen umeari ezberdintzea *pro*-rekin loturik dauden mintzagai dislokatuak eta TopS-ko mintzagaiak.

ziurtatzeko (c) adibideak jarri dira. Nz-hitzak sartu dira adibidean, eta hauek Foku Sintagmaren antzeko espezifikatzaile gunean daudela onartzen badugu, haien ezkerretara dauden zenbatzaileak ere InfS-tik ‘kanpo’ egon behar dira. Hiztun askori gogorra egiten zaie (16c)-ko *inor*, eta hemen agramatikaltzat hartuko dugu, *ea* aurreko *inor* bezala (16a) eta *libururik* partitiboa ez bezala (17c). Paradigma horrelakoa bada, orduan topatzen dugun banaketan alde batetik *inor*, *ezer* zenbatzaile zehaztugabe soilak ditugu eta beste alde batetik *libururik* bezalako zenbatzaile partitiboak. Azken hauek (15b)-ko sintagma arruntak bezala portatzen dira eta *ea*-ren ezkerreko zein eskumako mintzagai gunean onargarriak dira.

Kontrastea ulertzeko, Rizziren (1997) mintzagaien analisisa onartuko dugu. Berak proposatzen duenaren arabera, mintzagaiak isilpeko operatzaile batekin daude lotuta. Operatzaileak mintzagaia hartzen du aitzindari (mintzagaiak *identifikatzen* du), bai eta InfS barruko aztarna bat uztartu ere:

(18)  $\text{TopS}[ \text{DS}_i [ \text{Op}_i \dots t_i ] ]$

*Op* hori mintzagaiak identifikatzen duen operatzaile anaforikoa da, isilpeko konstantea (Lasnik eta Stowell 1991) uztartzen duena. *Inor* zenbatzailea bada, Forma Logikoan Interpretazio Osoaren (*Full Interpretation*) hatsarrearen betebeharrak asetzeko aldagai bat uztartu behar du. Baina Rizziren hurbilpena bide onean badago, eta mintzagaiak isilpeko operatzaileekin lotuta badaude, ondoko itxura hartzen du egiturak:

(19)  $\text{TopS}[ \text{inor}_i [ \text{Op}_i \dots t_i ] ]$

*Op* operatzailea da eta *t* bere aztarna. Baina orduan ez dago *inor* zenbatzaileak uztartutako aldagai logikorik, aztarna bat ere ez baitagokio. Beraz, Forma Logikoan *inor* ez da objektu onargarria, aldagairik gabeko operatzailea baita. Bestela ikusita, aldagai bakarra dago hemen (*t* aztarna) eta operatzaile bi (*Op* eta *inor*). Beraz, *inor* bezalako zenbatzaile zehaztugabeak ezin daitezke mintzagaiak izan (16a,c), ezin baitute Forma Logikoan objektu egokirik osatu.

Ikus dezagun orain zergatik diren onargarriak zenbatzaile partitiboak. Garrantzizkoa da ohartzea partitiboak lexikoki murriztuta daudela, *inor* bezalako zenbatzaile zehaztugabeak ez bezala. Rizzik (1997) berak azpimarratzen duenez, lexikoki murriztutako eta murriztu gabeko



zenbatzaileek antzeko portaera erakusten dute italieraz (parentesi arteko zenbakiak bere adibideetakoak dira):

- (20) a. \*Molto, lo ho capito (=36)  
 asko LAG ulertu  
 ‘Asko, ulertu egin dut’
- b. Molti libri, li ho buttati via (=34c)  
 asko liburu LAG bota  
 ‘Liburu asko, bota egin ditut’

Rizzik suposatzen duenez, honelako egituretan zenbatzailea, fonetikoki izenarekin batera dagoena, kanporatu egiten da Forma Logikoan, murriztapenaren ondotik gorago. De Rijkekin (1972) batera partitiboek isilpeko operatzailea dutela onartzen badugu, ondoko egitura izango luke sintagma partitiboak Forma Logikoan:

- (21)  $Op_i$  [libururik  $t_i$ ] [ $Op_j$  ...  $t_j$ ]

Hemen  $Op_i$  partitiboaren operatzailea da (de Rijk), eta  $Op_j$  mintzagaiarekin lotuta dagoen operatzaile anaforikoa (Rizzi). Egitura hau ondo itxuratuta dago Forma Logikoaren betebeharren aldetik, operatzaile biok aldagai bana uztartzen baitute.

Ohartu *guztiak*, *batzuk*, *guti* bezalako zenbatzaileak guztiz onargarriak direla mintzagai bezala jokatzen dutenean nahiz eta murriztapen lexikorik ez izan:

- (22) Galdetu dute guztiak/batzuk... ea nork ikusi dituen

Forma hauek ezberdinak dira *inor*, *ezer* zenbatzaileetatik izen batekin zein bakarrik ager daitezkeelako; gogoratu gramatika tradizionalan batzuetan ‘adjektibo’ bezala eta bestetan ‘izenorde’ bezala tratatzen direla:

- (23) a. (ikasle) guztiak, (liburu) batzuk  
 b. (\*ikasle) inor, (\*liburu) ezer

Gaur egungo beste azterbideari jarraituz, eman dezagun (23a)-ko zenbatzaileek beti daukatela murriztapen lexiko bat, dela agerikoa ('adjektiboak') dela isilpekoa, solas inguruan identifikatuta ('izenordeak'). Honen arabera, zenbatzaile hauek beti egongo lirатеке lexikoki murriztuta. Forma Logikoan murriztapena gorago mugitzean (21) bezalako egitura onargarriak sortuko lirатеке. Ondorioz, partitiboak bezala portatzen dira zenbatzaile hauek.

## 2.2. Indarra, jokatasuna eta aditz mugimendua

Araka ditzagun orain osagai hauek eta Foku Sintagmako osagaien arteko hurrenkerak. Galdera egiturekin hasiko gara. Bai/ezko zehar galderetan *-(e)n* konplementatzailea beti agertzen da adizki jokatuarekin lotuta:


(24) Galdetu dute ea Mikel gaur garaiz heldu den

'Konplementatzaile' hau perpausen morfologia jokatu adierazten duen buru bat da, eta JokS-ko buru bezala analizatuko dugu. Goiko adibidearen hurrenkera neutroa da, eta JokS-ren burua, euskaraz beste askotan bezala, eskumatara agertzen dela esan genezake. Morfema askea ez denez, (eskumarako) buruz buruko mugimenduaren bidez aditz sostengu bat ematen zaio. Honelako esaldietan partizipioa eta laguntzailearen artean ezin dezakegu ezer tartekatu, beharbada Aditza lehenik Inf burura eta geroago Jok burura mugitzen delako.

Menpeko esaldietan, baina, Aditz+Inf+Jok buru multzoa ezkerretara azaltzen zaigu, nz-hitzaren ezkerretara. Ohi bezala, *ea* eta mintzagaiak haien ezkerretara ager daitezke:

(25) Galdetu dute ea Mikeli nork emango dion bihar liburua

Nz-hitzen helmuga FokS bada, bertan A2 ('aditza bigarren') antzeko efektuak sorraraziz, sintagma horren burua ezkerretara egon behar da kokatuta, buru mugimenduaren helburu bezala jokatzeko. Ondoko egitura suposatu behar dugu orduan:



Top eta Fok buruak agertzen badira, espezifikatzaile guneetan antzeko ezaugarriak dituzten sintagma agertu beharko dira (mintzagaiak edo fokuak).

Has gaitzen orain nz-galderak eta bai/ezko zehar galderen arteko ezberdintasunak aztertzen. Berriro ere, oro har, A2 efektuak lehenengoetan sumatzen ditugu, baina ez azkenekoetan. Hitz hurrenkera juzkuak ez dira batere errazak finkatzen euskararen arlo honetan, hautabideak ez baitira gramatikalak batzuk eta agramatikalak besteak; aldiz, litezkeen hurrenkeren artean gutxiago markatuak edo ‘naturalagoak’ zeintzuk diren erabaki behar da. Badirudi, hala ere, aurreko banaketa bide onean dagoela, eta bestelako datuek haren alde jotzen dute. Esate baterako, aditza ezezkoan badago, nz-ren eskumako osagaia ez da Aditza+Inf buru multzoa, ez+Inf multzoa baizik. Badirudi, beraz, ezezko forma perifrastikoetan Inf eta A banatuta daudela, eta Aditza AS barruan gelditzen dela (ikus Laka 1990 eta Ortiz de Urbina 1994 analisi ezberdinetarako):

- (27) a. Nork irakurri du liburua?  
 b. Nork ez du liburua irakurri?  
 c. \*Nork irakurri ez du liburua?

*Ez du* eta *irakurri* arteko erdibiketa, lehenengoaren ezkerretzearekin, derrigorrezkoa da (27b)-n. Baiezko esaldietako hurrenkera (27a) ezezkoetan mantentzen bada, esaldi onartezinak sortzen dira (27c). Analisi gehienek buruen ezkerretzearen jomuga zein den zehazterakoan bide ezberdinetatik jo arren, ados egoten dira aditz inflexioa ezkerretara mugitzen dela onartzean. Berriro ere, nz-hitza eta buru multzoaren arteko loturari bagagozkio, A2 fenomeno bezala deskriba daitekeen antzeko zerbait aurkitzen dugu. Eredu bera topatzen

dugu bai/ezko galdera nagusietan, baina hor, ageriko nz-morfemarik ezak A1 antzeko fenomeno bat sortzen du:

- (28) a. Ez du Jonek liburua irakurri?  
 b. \*Jonek liburua irakurri ez du?

Hala ere, menpeko ezezko perpausetan ikusten den eredua oso antzekoa da (24) eta (25) adibideetakoekin: ezezko nz-galderek A2 fenomenoak sortzen dituzte (*ez+Inflexio* buru multzoaren mugimendua nz-hitzaren eskumatara, (29a)), baina ez dugu A1 fenomenorik aurkitzen bai/ezko galderetan (29b):


- (29) a. Galdetu du ea nork ez dituen etxeko lanak egin  
 b. Galdetu du ea etxeko lanak egin ez dituen

Beraz, (28b) bezalako hurrenkera, inguru nagusietan onartezina dena, estandarra da (29b) bezalako menpeko inguruetan. Zehar galderetako inflexioa eskuman gelditzen da are normalean inflexioaren ezkerretarako mugimendua eragiten duen ezeztapenaren presentzian.

Goiko (26) egitura onartuz gero, aurreko datuak Rizziren (1996) arabera interpreta daitezke: ageriko nz-hitz bat Foku Sintagmaren espezifikatzaile gunean pausatzen bada, Inf buruaren [+nz] ezaugarriak erkatuta izan behar du, Inf buru honen Fok bururainoko mugimendua eraginez. Nz-hitzak berez fokalak direnez, FokS-ra mugitzea espero dugu. Nz-hitzak InfS barruan sortzen dira eta FokS-ra ‘kanporatzean’ operatzaile-aldagai kate arruntak eraikitzen dituzte. Isilpeko bai/ez operatzaileak, aldiz, nahiko ezberdinak dira, nekez pareka ahal baititugu foku kontrastiboekin. Hauek eta nz-hitzek ez bezala, esate baterako, operatzaileok ez dute auresuposizio existentzialik sortzen. Badirudi, beraz, hurbilago daudela marka ilokutiboetatik, eta Indar Sintagmaren espezifikatzaile gunean zuzenean, inondik mugitu gabe agertzen diren osagaitzat har ditzakegula. Rizziren (1996) analisiaren ildotik, menpeko perpausetan operatzaile hauen [+nz] ezaugarria komunztadura erlazio batean sartzen da predikatu nagusiak hautatzen duen menpeko Indar buruaren [+nz] ezaugarriarekin.<sup>5</sup>

<sup>5</sup> Ohartu Aditz burua eskumatara agertzen dela zuhaixkan, nahiz eta adibidean bere perpaus osagarriaren ezkerretara azaldu. Ohi bezala, perpausen kokapen hau deribatibotzat hartzen dugu hemen.

(30)



Erro perpaus nagusietan, aldiz, bai/ezko operatzaile honen [+nz] ezaugarria Ind burura mugitzen den Inflexioaren mugimenduak bakarrik sortzen du komuntzadura erlazioa. Hau guztiau minimalismoaren arabera ere molda daiteke. Erantzun behar den hasierako galdera bat indar ezaugarriak interpretagarriak diren ala ez izango litzateke. Interpretagarritzat hartuko ditut hemen, eta, ondorioz, galderetan gertatzen diren mugimenduak bestelako ezaugarrien eraginari leporatu beharko zaizkio. Indar ezaugarriak interpretagarriak badira ere, [nz] ezaugarriak interpretagaitzak direla pentsa genezake. Ondorioz, perpaus nagusietan inflexioa Foku burura igotzen da, nz-hitzaren ezaugarri interpretagaitza erkatuz. Mugimendu hau Lasniken (1995) *enlightened self-interest* delakoaren ('interes berekoi ilustratua') kasu bat da baldin eta inflexioaren [nz] ezaugarria bera interpretagarria bada. Indar Sintagmaren espezifikatzaile gunean bai/ezko operatzaile bat agertzen denean, inflexioa hara igoko da, A1 konfigurazioa sortaraziz. Ez dugu zertan pentsatu buru gunean berez indar ezaugarriarik dagoenik. Ezingo genuke, kasu horretan operatzailearen ezaugarria indar ezaugarri honek erkatuta egongo litzateke eta. Hala ere, menpeko inguruetan horrelako zerbait onartu beharko dugu, hau da, aditz nagusiak Indar buruan [+nz] indar ezaugarri bat hautatzen duela. Isilpeko operatzaileek orduan beren [+nz] ezaugarria Indar buruaren ezaugarri horrekin erka dezakete; ez da Inf mugimendurik gertatuko eta aditz multzoa eskuman geldituko da. Bestalde, menpeko [Espez, Fok] guneko nz-hitzek badute inguru nagusietan bezalaxe erkatu behar den ezaugarri interpretagaitz bat, inflexioaren (eta aditzaren) ezkerretzatzea eragiten duena.<sup>6</sup>

<sup>6</sup> Hurbilketa honetan azalkizun dago zergatik menpeko nz-hitzek ezin duten beren ezaugarria erkatu [+nz] marka baduen Indar Sintagmara mugituz. Beharbada behin *merge* elkartze prozesuak FokS eta InfS batuz gero, bai nz-hitzerako espezifikatzaile gunea bai eta galdetzaile horren ezaugarria erkatuko duen buru gunea sortzen dira. Deribazioaren une honetan oraindik ez da Ind Sintagmarik sortu, beraz ezingo genuke erabili. Honek ez du *Procrastinate* (luzamendutan ibiltze) hatsarrea bortzatzen, [nz] ezaugarriak ezin baitira 'geroago' (Forma Logikoan edo) erkatu.

### 3. *Ea* buru bezala

Artikulu honetako ikuspegiaren arabera, JokS-ren burua eskumatara kokatuko litzateke, Top eta Fok sintagmenak ezkerrean daudelarik. Non kokatuko litzateke Indar sintagmaren burua? Auzia da nola aztertu behar dugun *ea*, buru bezala ala espezifikatzaile gunean dagoen sintagma bezala. Burua balitz IndS-ak burua ezkerretara izango luke. Espezifikatzaile guneko osagaia balitz, bestelako ebidentzia bilatu beharko litzateke burua zein den eta non dagoen erabakitzeko. Kontzeptualki, beharbada simetrikoagoa izango litzateke alde batetik Indar eta Jokatusun sintagmak eta, bestaldetik Top/Fok sintagmak antzera eratuko balira. Orduan, JokS bezalaxe, IndS-ek ‘osagarri-burua’ hurrenkera izango luke eta *ea* espezifikatzaile guneko osagaitzat hartuko genuke. Baina hau datuen bidez sostengatu behar den auzi enpirikoa da. Badago hipotesiaren barruko honen kontrako ebidentzia ale bat: bai/ezko galderetan, aurreko atalean iradoki bezala, Indar sintagmaren espezifikatzaile gunea operatzaile batek hartuta badago, orduan *ea* buru bezala tratatu beharko dugu. Gainera, aurreko ataleko bai/ezko galdera nagusietako A1 fenomenoan analisiak ezkerrean dagoen Indar buru bat eskatzen du, aditz buruak ezkerretara mugituko badira.

Ebidentzia gehiago lor dezakegu *ea*-ren estatusaz osagai hau erabakitzen errazagoak diren beste osagaiekin alderatzen badugu. Alderagarria den osagai bat hurrengo perpausaren bezalako *nola* dugu:

(31) Erran daut nola zaldiz jina den. (Lafitte 1944:745)

Uriagerekak (1992:420, 11. oh.) ‘*de dicto* interpretazioa duen osagarri perpaus baten marka’ bezala deskribatzen du ale hau. Ohartu menpeko perpausa galdera ez izan arren oraindik ere menpeko aditza *-(e)n* konplementatzaileaz hornituta agertzen zaigula, galderak bezala, ez *-(e)la* adierazpen konplementagailuaz. Nahiz eta adierazpen osagarriak aurkeztean *nz*-hitzeekin bateragarria ez izan, *nola* foku eta mintzagaiekin ager daiteke:

- (32) a. Erran daut nola Jon, hona ZALDIZ etorri den  
 b. Azaldu zuen nola liburategietan IXILIK egon behar zen

*Nola*-ren kokapena antzekoa da *ea*-renarekin, mintzagai-foku taldearen aurretik topatzen baitugu. Eman dezagun *nola* hau *de dicto* adierazpen mota bat markatzen duen osagai ilokutiboa dela. Bere kide galdetzaileak bezala, espezifikatzaile gunean agertzen den

sintagmatzat hartuko dugu. Espezifikatzaile gunean balego, perpaus barruko osagaiak kanporatzea oztopatuko luke, eta, Uriagerekak erakusten duenez, horixe da egiten duena. Nz-hitzak irla ahulak diren zehar galderetatik kanporatzeak gehienez esaldi apur bat zalantzarriak sortu arren (33), *nola* adierazpenetatik kanporatzeak onartzen askoz zailagoak diren esaldiak sortzen ditu (34):<sup>7</sup>

- (33) a. ?Zer ez dakizu nola konpondu?  
 b. ?Zer ez dakizu nola konpontzen den?
- (34) a. \*Non<sub>i</sub> azaldu zuen [nola ixilik t<sub>i</sub> egon behar zen]?  
 b. ??Nor<sub>i</sub> esan du [nola t<sub>i</sub> zaldiz etorri den]?

*Nola* espezifikatzaile gune batean badago, onargarritasun eza minimalitate erlatibizatuaren efektu batek azal dezake. *Ea* partikulara itzulirik, ondoko esaldiek datu berberak aztertzen dituzte, zehar galderetako nz-hitzak *ea*-ren gainetik kanpora daitezkeen ikusteko asmoz:

- (35) a. ?Nor<sub>i</sub> galdetu dute [ea t<sub>i</sub> garaiz heldu den]?  
 b. ?Zer<sub>i</sub> galdetu dute [ea Mikeli t<sub>i</sub> oparitu diogun]?

Esaldi hauen onargarritasunak badu zerikusi gehiago goiko (33) esaldienarekin, ez baita heltzen (34)ren gramatikaltasun ezeraino. Honek *ea* eta *nola* ezberdinak direla iradokitzen du, eta lehenengoa burua izatearen aldeko datua da. Hau horrela bada, *ea*-ren sintagmaren burua, Top eta Fok sintagmen buruak bezala, ezkerrean kokatu beharko genuke. Kategoria lexikoen ‘osagarri-burua’ hurrenkera orokorra Jok sintagmara bakarrik hedatuko litzateke. Operatzaileen jomugak diren Indar eta Foku sintagmen espezifikatzaileek eta, batez ere, osagarrien ezkerretara dauden Ind eta Fok buruek, euskararen A2/A1 antzeko fenomeno anitzen azalpen sinplea proposatzea ahalbidetzen dute.

<sup>7</sup> Euskara *pro-drop* hizkuntza denez, ez dago arazorik subjektuak ageriko konplementagailuaren gainetik ateratzeko.

**Aipamen bibliografikoak**

- Cinque, Guglielmo. 1990. *Types of A' Dependencies*. Cambridge: MIT Press.
- Etxepare, Ricardo. 1996. "Two types of focus in Basque". In B. Agbayani & S. Tang (arg.), *Proceedings of the XXV West Coast Conference on Formal Linguistics*. University of California, Irvine: CSLI Publications. 113-128.
- Kayne, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge: The MIT Press.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire basque*. [1979ko berrargitalpena.] Donostia: Elkar.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in syntax: On the nature of functional categories and projections*. Doktorego tesia, MIT.
- Lasnik, Howard. 1995. "Case and expletives revisited: On greed and other human failings". *Linguistic Inquiry* 26, 615-633.
- Lasnik, Howard & Tim Stowell. 1991. "Weakest Cross-over". *Linguistic Inquiry* 22, 687-720.
- Lasnik, Howard & Mamoru Saito. 1992. *Move  $\alpha$* . Cambridge MA: MIT Press.
- Mahajan, Anoop. 1990. *The A/A' distinction and movement theory*. Doktorego tesia, MIT.
- Ormazabal, Javier, Juan Uriagereka & Myriam Uribe-Etxebarria. 1994. "Word Order and WH-movement: Towards a Parametric Account". XVII GLOW jardunaldietan aurkeztutako txostena.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. "Verb-initial patterns in Basque and Breton". *Lingua* 94, 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. "Residual Verb Second and Verb First in Basque". K. É. Kiss (arg.), *Discourse Configurational Languages*. New York & Oxford: Oxford University Press. 99-121.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999. "Focus in Basque". In G. Rebuschi & L. Tuller (arg.), *Proceedings of the Paris Table Ronde Internationale sur la Grammaire du Focus*. New York & Oxford: Oxford University Press. 311-333.
- De Rijk, Rudolf. 1972. "Partitive assignment in Basque". *ASJU* 6, 130-173.
- Rizzi, Luigi. 1996. "Residual verb second and the Wh-criterion". In A. Belletti & L. Rizzi (arg.), *Parameters and Functional Heads*. New York & Oxford: Oxford University Press. 63-90.
- Rizzi, Luigi. 1997. "The fine structure of the left periphery". In L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 281-337.



- Saito, Mamoru. 1992. "Long-Distance Scrambling in Japanese". *Journal of East Asian Linguistics* 1, 69-118.
- Suñer, Margarita. 1993. "About indirect questions and semi-questions". *Linguistics and Philosophy* 16, 45-77.
- Uriagereka, Juan. 1992. "The syntax of movement in Basque". In J. A. Lakarra & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Donostia: ASJUren gehigarriak. 417-445.
- Uriagereka, Juan. 1995. "An F Position in Western Romance". In K. É. Kiss (arg.), *Discourse Configurational Languages*. New York & Oxford: Oxford University Press. 153-175.
- Uribe-Etxebarria, María. 1994. *On the Typology of Negative Polarity Licensing*. Doktorego tesia, University of Connecticut.

*Jon Ortiz de Urbina Arruabarrena*

<urbina@fil.deusto.es>

*Deustuko Unibertsitatea*

*Filosofia eta Letrak Fakultatea*

*1. Postakutxa*

*48080 Bilbo*



# Euskal perpausaren oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkeraren aldeko argudio batzuk\*

Bill Haddican

University of York

## Laburpena

*Artikulu honek euskal perpausaren sintaxiaren azterbide antisimetriko (Kayne 1994) bat proposatzen du. Lehendabiziko zatian argudiatzen da azterbide antisimetriko batek azterbide ez-antisimetriko nagusiek (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001) baino hobeto azaltzen dituela partikula modal-ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidea. Bigarren zatian, aditzen osagarrien hitzordenaren analisi antisimetriko bat proposatzen dut. Bereziki, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei segituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara igotzen direla onartzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zen baino gorago direla aldarrikatuko dut.*

## 0. Sarrera

Lan honen helburu nagusia euskal perpausak oinarrizko *espez-buru-osagarri* ordena duelako hipotesiaren aldeko argudio batzuk aurkeztea da. Lehendabiziko zatian, ezezko eta baiezko perpausen arteko desberdintasun batzuen analisi antisimetriko (Kayne 1994) bat aurkezten dut. Argudiatuko dudan bezala, analisi honek partikula modal-ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidea hobeto esplikatzen ditu azterbide ez-antisimetriko nagusiek baino (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001).<sup>1</sup> Bigarren zatian, aditzen osagarrien hitzordenaren analisi antisimetriko bat proposatzen dut. Bereziki, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei segituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara igotzen direla defendatzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zirenak baino gorago direla proposatuko dut. Analisi alternatibo honek antisimetriari eusten dio baina Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihestuko ditu. Azterbide honek, zuzena baldin bada, ondorio argi bat dauka: mugitutako osagai batzuk

---

\* Hemen agertzen den materialari buruzko iruzkinengatik eskerrak eman nahi dizkiet Xabier Artiagoitiari, Arantzazu Elordietari eta *Antisimetria vs. buru-parametroa: euskararen oinarrizko hitz hurrenkeraren ezbaian* jardunaldietan parte hartu zutenei. Bestalde, Xabier Artiagoitiari zor zaizkio eskerrak lan honen euskarazko bertsioarekin laguntzeagatik. Testuan barrena honelako laburdurak erabili dira: Apl = aplikatiboa; Asp = aspektua; baiezt = baieztapena; Dnb = denbora; FL = Forma Logikoa; Lag = (aditz) laguntzailea; ezezt = ezeztapena, Pol = polaritate.

<sup>1</sup> Antzeko proposamen bat Haddican (2004) lanean agertu zen.

ez daudela *izoztuak*; hau da, ez dagoela mugitutako XS osagaien barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Ormazabal, Uriagereka eta Uribe-Etxebarria 1994, Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000: 38).

## 1. Partikula ebidentzialak eta hitzordena baiezko eta ezezko perpausetan


### 1.1 Baiezko eta ezezko perpausetako hitzordenak

Euskal gramatikan gehien ikertu diren fenomenoetariko bat da perpausen polaritateak nolako eragina duen hitzordenaren gain. Baiezko perpaus nagusietan, hitzordena A-Lag da; ezezko perpausetan, berriz, Ezezt-Lag-A:

- (1) Miren *etorri* da.
- (2) Miren *ez* da etorri.

Era biko buruak onartzen dituen hurbilketa ez-antisimetriko bat erabiliz, Ortiz de Urbinak (1989), Lakak (1990) eta Elordietak (2001) azterbide berdintsuak proposatzen dituzte fenomeno honen berri emateko. Hain zuzen ere, hizkuntzalari hauek proposatzen dute laguntzailea aditzaren eskuinean sortzen dela –baiezko perpausetan azalean agertzen den bezala– eta ezezko perpausetan igo egiten dela. Lakak (1990) (3a)-rako ematen duen egitura, adibidez, (4)-an agertzen da:

- (3) a. Ez da etxea erori.
- b. Etxea erori da. (Laka 1990: 19, 29)



(Laka 1990: 29)

Azterbide honetan, laguntzailea (*da*) ezeztapen buruari (*ez*) adjuntatzen zaio. Baiezko perpausetan, berriz, ezeztapen burua ez da agertzen eta laguntzailea, beraz, ez da igotzen. Eratorpen honek (3b)-n agertzen den hitzordena eragiten du.

Jarraian, partikula ebidentzialen besarkaduraren jokabideari dagozkion datu batzuk aurkeztuko ditut. Datu hauek iradokiko dute batetik azterbide hau ezin daitekeela zuzena izan, eta, bestetik, elementu hauen hurrenkera baiezko perpausetan –hots, Lag-AS hurrenkeradunetan– beraien oinarrizko hurrenkera dela.

## 1.2 Partikula ebidentzialak

Euskarak zenbait partikula ebidentzial eta modal ditu: *omen, ei, bide, al, ote, ohi*. Partikula hauen zerrenda euskalkiz euskalki aldatzen da, baina euskalki gehienek dute morfema hauetako bat edo beste.

Elementu hauen jokabide sintaktikoa berezi xamarra izaten da gutxienez bi alorretan. Bata beraien hitzordenari dagokio. Ezezko perpausetan, elementu hauek baino ezin dira agertu ezeztapenaren eta laguntzailearen artean, (5) eta (6) adibideetan erakusten den bezala:

- (5) Ez omen zuen urik topatu.
- (6) \*Ez zoritxarrez zuen urik topatu.

Era berean, baiezko perpausetan, aditzaren eta laguntzailearen artean elementu hauek baino ezin dira agertu:

- (7) Bazkalduko bide zuen.
- (8) \*Bazkalduko zoritxarrez zuen.


Elementu hauen bigarren ezaugarri bitxia beraien besarkaduraren jokabidea da: ezezko perpausetan partikula hauek *ez*-en gainean hartu behar dute besarkadura, (9) eta (10)-ean ikusten den bezala:

- (9) Ez al zuen urik topatu?

(10) Ez omen zen Oiartzunen jaio, # baina ez omen zen kanpoan jaio ere.<sup>2</sup>

Batetik, (9)-an *al* galderazkoak perpaus osoaren (eta, hortaz, ezeztapenaren) gaineko besarkadura dauka. Bestetik, (10)-ean bigarren esaldia pragmatikoki desegokia da, eta honek *ez*-en eta *omen*-en besarkaduraren ordena *omen* > *ez* dela iradokitzen du. Besarkaduraren ordena *ez* > *omen* izan balitz, bigarren esaldia egokia izango zen; hau da, “ez dute esaten Oiartzunen jaio zela, baina ez dute esaten Oiartzundik kanpo jaio zela ere” uler zitezkeen denera. Hala ere, (10)-ean norbait ez omen zela inon jaio da irakurketa arrunta (eta, horrenbestez, bitxia).

Elordietak (2001) partikula ebidentzalen hitzordenari dagokion azterbide ez-antisimetriko bat proposatzen du. Hain zuzen ere, Elordietak L-proiekzioek *osagarri-buru* ordena dutela argudiatzen du. Partikula ebidentzialak eta modalak proiektzio buru-azken batean (ModS) AS-ren eta laguntzailearen artean batzen dira, eta buru-adjunzioaren bidez igotzen dira laguntzailera. Eratorpen hau (11)-n erakusten da:



(Elordietak (2001: 183) lanetik hartuta)


Elordietak ez du jorratzen partikula hauen hitzordena ezezko perpausetan. Hala ere, beste ezezko egiturei emandako azterbidean oinarrituta, eratorpen sinesgarri bat jarraian garatzen dudana izan liteke. Lakari (1990) jarraituz, Elordietak Ezeztapen Sintagma buru-lehen bat laguntzailearen gainetik kokatzen du. Lehenik eta behin, partikulak laguntzaileari adjuntatzen zaizkio. Gero, beraz, laguntzailea Dnb-ra eta Ezeztapenera igotzen denean, partikula ere berarekin darama (Ortiz de Urbinari (1994) jarraituz, laguntzaileak lexikalizazio-baldintza bat bete behar duela onartzen du; baldintza hau buru-adjunzioaren bidez aditzarekin edo *ez*-ekin bete daiteke. Ezezko perpausetan, aditzak ez du baldintza hau bete behar *-ez*-ek lan hori egin

<sup>2</sup> Datu hauek Xabier Artiagoitiak aipatu dizkit. Eskerrak eman nahi dizkiot honegatik, eta datu hauei buruzko oharrengatik ere.

dezakeelako– eta aditza *in situ* gelditzen da). Proposamen hau, (12)-an eta (13)-an azaltzen da:

(12) Ez omen zuen urik topatu

(13)



Azterbide honek partikulen hitzordena esplikatzeko badu ere, ez du berauek ezezko perpausetan duten besarkaduraren jokabidea esplikatzeko. Arestian ikusi dugun bezala, partikula hauek *ez*-en gainean hartu behar dute besarkadura (12) adibidearen tankerako perpausetan. (13)-an ikusten den eratorpenean, ez dago argi nola esplika daitekeen hau, besarkadura ordenek FL-ko o-komando erlazioak islatzen dituztela onartzen duen teoria batean. Alderantzizko besarkadura ezin da berreraikitzearen bidez azaldu, eratorpen honetan partikulak ez baitute *ez* inoiz o-komandatzen. Partikulak ezeztapenaren gaineko posizio batera FL-n igotzen direla onartzea ere problematikoa da, partikulak sakonean sartuta baitaude laguntzailearen buru-adjunzio egituran.

Beste aukera bat *omen* ezeztapena baino gorago perpausaren ezkerreko periferian batzea da, (14)-an bezala:

(14) [<sub>ModS</sub> *omen* [<sub>EzS</sub> *ez* [<sub>DnbS</sub> Lag ...

Azterbide honetan, *omen* > *ez* irakurketa *omen*-ek *ez* FL-n o-komandatzen duelako esplikatzeko da. Hala ere, Forma Fonetikoko mugimendua erabili ezean, *ez-omen-Lag* hitzordena esplikatzeko zaila bihurtzen da orduan.<sup>3</sup>


<sup>3</sup> Antzeko beste aukera bat Elordietarena (1997) da: *omen*-en azpian elkartzen da *ez* eta *ez-omen-Lag* hitzordena buru-mugimenduen buruz eratorritzen da. Gero, 1.4 atalean, bihurtuko gara proposamen honetara.

Beraz, era biko buruak onartzen dituen hurbilketa ez-antisimetriko bat erabiliz eta ezezko perpausetan laguntzailea buru-mugimenduaren bidez *ez*-era igotzen dela ere onartzen bada, badirudi Elordietaren (2001) azterbidea modu bakarra dela partikulen hitzordena esplikatzeko.

### 1.3. Irtenbide baterantz

Azterbide alternatibo bat garatzean, oinarrizko *espez-buru-osagarri* hurrenkera onartuko dut Inflexio Sintagmarako (Ormazabal, Uriagereka and Uribe-Etxebarria 1994, Elordieta 1997, Vicente 2005). Azterbide hau gureganatzeak, aditza aditz laguntzailearen azpian batzen dela onartzearekin batera, esan nahi du ezezko eta baiezko perpausen hitzordenen desberdintasunak ezin direla ezezko perpausetako laguntzailearen buru-mugimenduaren bidez azaldu. Aitzitik, ezezko perpausen ordena –hots, Laguntzailea-Aditza– oinarrizko ordena dela onartuko dut, eta baiezko ordena –Aditza-Laguntzailea alegia– AS igotzen duen mugimendu batek eragiten duela.

Lehendabiziko urrats bat bezala proposamen hau garatzean, buelta gaitzen partikula ebidentzialen ezaugarri batzuetara. Arestiko (5)-(10) adibideetan ikusitako datuek Cinquek (1999: 5. kap) italieraz ezeztapenak adberbio ebidentzialen gain duen alderantzizko besarkadura azaltzeko egiten duen proposamena gogoratzen dute: ezeztapen morfema Ezezt-Sintagmaren espezifikatzailean batzen da, eta gero igotzen da partikulen gaineko posizio batera. Demagun euskal *ez*-ek antzeko eratorpen bat duela. Bereziki, demagun *ez* espezifikatzaile bat bezala elkartzen dela eta partikulen gaineko posizio batera mugitzen dela. Proiekzio hau Pol(aritate) Sintagma dei dezagun. Eratorpen hau (15)-ean erakusten da:





Azterbide honetan, beraz, alderantzizko besarkadura ezeztapenaren nahitaezko berreraikitzearen bidez, *ez* bere oinarrizko posizioa –partikula ebidentzialen azpian– nahitaez berreraikiaz alegia, azal daiteke.

Baiezko perpausetan, berriz, aditza ebidentzialen ezkerrean agertzen da, (16)-an erakusten den bezala:

- (16) a. Zorrak [ordain-du ahal] omen dituzte.  
 b. Zorrak [ordain-du nahi] omen dituzte.  
 c. Zorrak [ordain-du behar] ote dituzte?  
 (Ortiz de Urbina 1989: 129)

Banaketaren ohiko testek *ez* eta AS azaleko posizio berberean daudela iradokitzen dute. Lehenik eta behin, eskuin aldean, ezin da ezer ageri elementu hauen eta laguntzailearen artean, partikula ebidentzialak izan ezik; (17)-an erakusten den bezala ez subjektuak ez adberbioak ezin dira ageri hauen artean:

- (17) a. Laguntzen (\*Miren/\*maiz) omen zuen.  
 b. Ez (\*Miren/\*maiz) omen zuen laguntzen.

Ezkerretara, fokuek eta NZ-sintagmek *ez*-en edo AS-ren ondo-ondoan ageri behar dute:<sup>4</sup>

- (18) a. Nork/JONEK (\*Miren) ikusi du ( $\sqrt{\text{Miren}}$ ) ?/.  
 b. Nork/JONEK (\*Miren) ez du ikusi ( $\sqrt{\text{Miren}}$ ) ?/.

Antza denez, posizio honetako beste elementu bat baiezko *ba-* da (Laka 1990); (19)-an ikusten den bezala, *ba-* dagoenean, AS ez da igotzen:


- (19) Jon bada etorri. (Laka 1990: 101)

<sup>4</sup> Hala ere, hiztun batzuentzat, NZ-adjuntu batzuek ez dute elementu hauen ondo-ondoan ageri behar, (i)-an erakusten den bezala:

(i) Zergatik (Jonek) esan du garagardoa edango duela? (Uriagereka 1999)

Datu hauek ikusirik, demagun aditza biltzen duen sintagma bat PolS-ren espezifikatzaileira igotzen dela baiezeko perpausetan; ezezeko perpausetan, berriz, gertuago dagoen *ez* (ezeztapenaren espezifikatzailean) mugitzen da posizio honetara.<sup>5</sup> Demagun, bestalde, –Lakaren (1990)  $\Sigma S$  proposamenaren izpirituan– buru honek [baieztapen] tasun bat duela. Ezeztapen Sintagmarekin paralelismoa eginez, baieztapen buru honek baieztapen morfema isil bat izango du bere espezifikatzailean eta morfema honek [espez, PolS] gunera garraiatzen du bere ahizpa-adabegia. Proposamen hau argitzeko, (21)-ak (20) adibidearen goiko zatiaren eratorpena erakusten du.<sup>6</sup>

(20) Etorri omen da.



Orduan, azterbide honek partikula ebidentzialen hitzordenaren berri ederki ematen du, elementu hauek laguntzailearen azpiko posizio batean sartu gabe.<sup>7</sup> Are gehiago, azterbide ez-antisimetrikoek ez bezala, azterbide honek partikula ebidentzialen eta ezeztapenaren arteko besarkadura erlazioak azalpen erakargarri batez hornitzen ditu; hau da, *ez* berreraikitzen dela bere jatorrizko posiziora, partikula ebidentzialen azpian. Proposamen honek, gainera, ez du buru parametroa erabili behar, eta, beraz, bat egiten du gramatikaren teoria murriztaileago batekin.

<sup>5</sup> Ezeztapenetik PolS-erako mugimendu honek Zanuttinik (1994) proposatuko ezeztapen-mugimenduaren antza du.


<sup>6</sup> Ikus Koopman & Szabolcsi (2000) eta Ndayiragije (1999) buru neutro bat erabiltzen duen antzeko proposamen baterako.

<sup>7</sup> Ikuspuntu kartografiko batetik irtenbide honek erakargarriagoa dirudi laguntzailearen azpiko posizio batek baino (Rizzi 1997, Cinque 1999).


**1.4 Buru mugimendua eta sintagma mugimendua**

Nire aurreko proposamen horrek Elordietarenaren (1997) antza du, honek ere antisimetria ontzat jo eta baiezkoko perpausetan aditza laguntzailearen gaineko posizio batera igotzen dela onartzen baitu. Hala ere, Elordietaren proposamenan aditza buru-mugimenduaren bidez igotzen da, arestian ikusi den azterbidean ez bezala. Hain zuzen ere, Elordietak ezezko eta baiezkoko perpausetarako ematen dituen eratorpenak (22)-an eta (23)-an erakusten dira hurrenez hurren:

(22) Ez ei da etorri (G. Elordietak 1997:72)



(23) Etorri ei da. (G. Elordietak 1997: 72)



Goiko (22) adibidean, Konp<sup>0</sup>-era bidean, ez partikula ebidentzialari eta laguntzaileari adjuntatzen zaie (Konp<sup>0</sup>-ek ezeztapen operatzaile bat daukala onartzen du Elordietak). (23) adibidean, berriz, aditza adjuntatzen zaio partikulari, Dnb-ra bidean. Ortiz de Urbinari (1989) jarraituz, mugimendu hau laguntzaileari sostengu lexikoa emateko beharrak eragiten duela onartzen du Elordietak.

Azterbide honek, beraz, ondo azaltzen du zergatik ageri behar duten ez-ek eta aditzak laguntzailearen ondo-ondoan (ezezko perpausetan eta baiezkoko perpausetan hurrenez hurren): buru-adjunzio egiturak izanik, mugimendua ez da posible multzo hauen barnerantz. Gainera,

partikulak *ez* baino gorago batzen direnez, azterbide honek *ez*-en eta partikulen arteko besarkadura erlazioen azalpen bat iradokitzen du; hau da, pentsatzekoa da *ez* berreraiki egiten dela partikulen azpian duen bere jatorrizko posizioira (hala ere, Elordietak berak *ez* ditu besarkadura erlazio hauek jorratzen).

Nolanahi ere, mugimendu hau sintagma- edo XS-mugimendua delako ideiarene aldeko froga AS-ren elipsitik dator. Lakak (1990) adierazi zuen bezala, ezeztapenaren azpiko materiala ezabatu egin daiteke (24) perpausa bezalakoetan:

(24) Marik liburua erosi du eta Peruk ez.<sup>8</sup> (Laka 1990:33)

Gainera, material honek partikula ebidentzial bat eduki dezake:

(25) Jon etorri omen da, baina Maitane ez [□].

√ ‘Jon etorri omen da, baina Maitane ez **omen** da etorri’

√ ‘Jon etorri omen da, baina Maitane ez da etorri’

Hau da, (25)-eko lehendabiziko irakurketak iradokitzen du honelako sintagma isil bat:

(26) Jon etorri omen da, baina Maitane ez {~~omen da etorri~~}


(22)-an erakusten den eratorpenean, *ez* ez dago inoiz partikula ebidentziala, laguntzailea eta aditza biltzen dituen osagai batetik kanpo. Beraz, badirudi (22)-ko eratorpenak esan nahi duela (25) adibidearen lehendabiziko irakurketan ezabatzen den materiala ez dela osagai bat.

Elipsiaren arazoaren irtenbide posible bat da *ez* laguntzailearen eta partikula ebidentzialen gainean batzen dela (Elordietaren proposamenan, laguntzailea DnbS-n elkartzen da). Aukera hau (27)-an erakusten da:

---

<sup>8</sup> Lakak (1990) adierazten duen bezala, (24) ez da osagai-ezeztapena, hau da subjektoren ezeztapena. Honelako egituretan, subjektuak foku irakurketa du, eta *ez* subjektoren aurrean agertzen da, nahi eta nahiez:

(i) MARIK erosi du liburua, ez PERUK.



Hala ere, azterbide honetan zaila bihurtzen da ezeztapenaren eta partikula ebidentzialen arteko besarkadura erlazioak azaltzea. Hau da, eratorpen honetan partikula ebidentzialek ez baitute inoiz *ez* o-komandutzen, nekez ikusten da nola hartzen duten partikulek ezeztapenaren gaineko besarkadura.

Beraz, badirudi elipsi eta besarkadura datu hauek XS-mugimenduan oinarritutako azterbide bat iradokitzen dutela: *ez* partikulen azpian batzen baldin bada, zaila da elipsiaren datuak azaltzen, buru-mugimendu murrizketa bortxatu gabe (Travis 1984). *Ez* partikula ebidentzialen gainean batzen bada, berriz, elementu hauen arteko besarkadura erlazioak azaltzea bihurtzen da arazo.

## 2. Objektuen hitzordenak

Lan honen bigarren zatiak objektuen hitzordenak aztertzen ditu. Hain zuzen ere, Haddican (2004) eta Vicente (2005) lanei jarraituz, objektuak aditzaren gaineko kasu/komunztadura posizioetara mugitzen direla defendatzen dut. Hala ere, posizio hauek Haddican (2004) lanean proposatu zen baino askoz gorago direla proposatuko dut. Analisi alternatibo honek, antisimetria onartzearekin batera, Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihestuko ditu aldi berean. Hala ere, azterbide honek ondorioztat dakar mugitutako osagai batzuk ez daudela *izoztuak*; hau da, ez dagoela mugitutako XS osagaien barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000:38).

### 2.1 Objektuen posizioak eta hondakinaren mugimendua

Euskal objektuak kanonikoki aditzaren ezkerrean agertzen dira. Irakurketa neutro batean –hau da, “Zer gertatu da?” tankerako galdera bati erantzunez– hitzunak normalean aditzaren

ezkerrean nahiago dituzte objektuak, (28a,b) perpausetan bezala. Hala ere, hiztun batzuek aditzaren atzeko hitzordenak ere onartzen dituzte, (28c)-n bezala (Ortiz de Urbina 1989, Elordieta 2001):

- (28) a. Jonek [Mireni egia esan] dio. [baiezkoa]  
 b. Jonek ez dio [Mireni egia esan]. [ezezkoa]  
 c. Jonek ez dio [esan Mireni egia]. [ezezkoa]  
 (Ortiz de Urbina 1989:123)

Aurreko euskarari buruzko lan sortzaile gehienek aditzen osagarriak AS buru-azken batean (edo AS anizkun batean) batzen direla onartu dute (Ortiz de Urbina 1989, Laka 1990, Elordieta 2001). Elordietak (2001:42), adibidez, egitura hau proposatzen du:

- (29)
- 
- (Elordieta 2001: 42)

Egitura honen abantaila bat prosodiaren eta fokuaeren arteko erlazioari dagokio (Elordieta 2001, Arregi 2001). Kanonikoki, azentu nagusia aditzaren aurre-aurreko osagaiak darama:

- (30) Jonek Mireni txakúrta erakutsi dio.

Honelako perpausetan, hainbat osagai uler daitezke foku bezala: objektu zuzena; objektu zuzena, zeharkako objektua eta aditza dituen osagai bat; eta perpaus osoa, (31)-n erakusten den bezala:

- (31) [Jonek [Mireni [txakúrta] erakutsi] dio.]

Elordietak (2001) eta Arregik (2001) adierazten duten bezala, (31)-koa bezalako egitura batek datu hauek azaltzen lagun diezaguke, baldin eta onartzen badugu, gainera, foku-irakurketa jasotzen duen osagai batek nabarmentasun prosodikoa eduki behar duela, Cinquek (1993) proposatu zuen bezala:

- (32) Perpaus bateko fokua(k) azentu nagusia daraman osagaia menperatzen duen edozein osagai izan daiteke. (Cinque 1993).<sup>9</sup>

Hau da, (31)-n, objektu zuzenak darama azentu nagusia, eta beraz foku bezala uler daiteke. Gainera, AS-k ere menperatzen du azentu nagusia daraman elementua (*txakurra*), eta beraz AS-k ere jaso dezake foku-interpretazioa. Noski, KonpS-k ere menperatzen du *txakurra* eta, beraz, hau ere osagai fokalizatua bezala uler daiteke. Hortaz, (31)-ko egiturak, (32)-ko printzipioarekin batera, posible diren foku multzoak ongi iragartzen ditu hitzordena kanonikoetan.

Haddicanek (2004) objektuen hitzordenaren beste azterbide bat proposatzen du, antisimetria eta XS-mugimendua soilik erabiltzen dituen (Koopman and Szabolcsi 2002). Bereziki, perpaus neutroetan -(28a,b) bezala- objektuak aditzaren ezkerreko kasu-posizio batera mugitzen direla proposatzen du Haddicanek, (33)-an erakusten den bezala:

- (33) [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> [<sub>AS</sub> esan t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]]]

Gero, aspektu-burua gehitzen da, eta honek AS erakartzen du. Puntu honetan AS-k objektuak eraman ditzake edo hondakin bezala igo daiteke objektuak Kasu Sintagmetan utziz. Lehendabiziko aukera honek, (34)-an erakutsita, (28b)-n kako artean agertzen den hitz hurrenkera eragiten du. Bigarrenak, berriz, (28c)-ko beheko zatia eratoritzen du, (35)-ean erakusten den bezala. Azterbide honetan, beraz, (28b)-ren eta (28c)-ren arteko desberdintasuna mugitzen den osagaiaren tamainan datza:

- (34) [<sub>AspS</sub> [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> [<sub>AS</sub> esa t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]]]]<sub>l</sub> -n t<sub>l</sub> ]

- (35) [<sub>AspS</sub> [<sub>AS</sub> esa t<sub>j</sub> t<sub>k</sub>]]<sub>l</sub> -n [<sub>KasuS</sub> Mireni<sub>j</sub> [<sub>KasuS</sub> egia<sub>k</sub> ] ] t<sub>l</sub> ]

Ezezko perpausetan, aditza eta beraien objektuak ez dira gero igotzen. Baiezko perpausetan, berriz, hauek biltzen dituen osagai bat PolS-ra igoko da, arestian proposatu den bezala. Mugimendu honek azaleko AS-Lag hitzordena eragiten du (cf. 28a).

Azterbide honek, beraz, (28)-ko hitzordena aldaeren berri ematen du beste nonbait motibatuko mugimendu-motak erabiliz *-pied-piping* edo osagaien garraioa eta *stranding* edo

<sup>9</sup> Itzulpena Elordieta (2004: 47) lanetik hartuta.

osagaiak atzean uztea– hain zuzen ere. Gainera, oso teoria murriztaile batekin da bateragarria, proposamen honek ez baitu ez eskuinerako mugimendua, ez buru-mugimendua ez buru-parametroa ere erabiltzen.

Hala ere, proposamen honek gutxienez bi arazo enpiriko larri ditu. Lehendabizikoa hauxe da: antza denez, aditza AspS-ra igotzen baldin bada objektuak eraman gabe (hau da (35)-ean bezala), ezin da gero mugitu. Hain zuzen ere, (36)-ak erakusten du aditza biltzen duen osagaia ezin dela PolS-ra mugitu, objektuak lehen atzean utzi baldin baditu; hau da, objektuak aditzaren eskuinean agertzen badira:

(36) \*Jonek [esan-∅ Miren-i egia] dio.

Antzeko arazo bat modalak dituzten eratorpenen kasuan ere sortzen da. *Nahi* eta *behar* modalekiko perpausetan, aditzak eta beraien osagarriak modalaren ezkerrean agertzen dira kanonikoki, (37)-an bezala:

(37) Jonek ez dio [[Miren-i egia esan-∅]<sub>i</sub> nahi t<sub>i</sub>.]

Arestian aurkeztu den proposamenaren ikuspuntutik, hitzordena honek aditza eta objektuak biltzen dituen osagai bat modalaren gaineko posizio batera mugitzen dela iradokitzen du. Hala ere, badirudi mugimendu hau ez dela posible aditzak objektuak AspS-ra *garraiatu* ez baditu. Hau da, AspS-rako bidean, aditzak objektuak atzean utzi baldin baditu, aditza gehi objektuak biltzen dituen osagaia ezin da *nahi*-ren gaineko posizio honetara mugitu, (38)-ko datuek erakusten duten bezala:

(38) \*Jonek ez dio [[esan-∅ **Miren-i egia**]<sub>i</sub> nahi t<sub>i</sub>.]

Datu hauek azaltzeko, Haddicanez *konplexutasun iragazki* bat moldatzen du Koopman eta Szabolcsiren lanaren haritik. Berauek antzeko iragazki bat erabiltzen dute holanderatik eta hungarieratik datozen datu berdintsuen berri emateko:

(39) *Euskal konplexutasun iragazkia*: XS bat ezin da mugitu bere osagarria lexikoki beteta baldin badago.



Tresna honek (36) eta (38) perpausetako ezinezko hitzordenak baztertzeko dituen. Hala ere, (39)-ko adierazpenak datuak birformulatu baino ez du egiten. Gainera, teoria minimalistaren barruan, oso baldintza arrotza da. Izan ere, oso zaila da ikusten nola adieraz daitekeen (39) gaur egungo mugimenduaren makineriari buruzko oinarrietatik abiatuta: zunda-helburu erlazioak, hurbiltasuna, faseak, etab. Era berean, kopia-teoriaren ikuspuntutik, zaila da ikusten nola bereiz ditzakeen sintaxiak kopiatutako (ber-batutako) objektu bat eta ez kopiatutako (ber-batu gabeko) objektu bat.

Beste arazo bat hitzordena ez-neutroei dagokie. Ortiz de Urbinak (1998) proposatzen duen bezala, fokuak eta NZ-hitzak ezkerreko periferian dagoen foku-proiekzio batera mugitzen baldin badira, nekez ikusten da zergatik ezin diren objektuak fokua eta aditzen artean ageri (=40a). Hau da, antza denez, objektuek PoS-ra mugitzen den osagaitik atera egin behar dute honelako kasuetan:

- (40) a. {Nork/JONEK} (\*Miren) ikusi du ( $\sqrt{\text{Miren}}$ ) ?/. (=18)  
 b. {Nork/JONEK} (\*Miren) ez du ( $\sqrt{\text{Miren}}$ ) ikusi ( $\sqrt{\text{Miren}}$ ) ?/.


Ez dago argi nola ulertu beharko litzatekeen mugimendu hau.

## 2.2 Bestelako azterbide bat

Azterbide honi jarraituz, demagun objektuak kasu/komunztaduraren proiektioetara igotzen direla (Kayne 1989, Johnson 1991).<sup>10</sup> Hala ere, demagun posizio hauek Haddicanek (2004) proposatuko posizioak baino gorago direla. Bereziki, Laka (1988, 1993) eta Cheng eta Demirdache (1993) lanei jarraituko diet, argumentuak dagokien komunztadura buruaren espezifikatzaile mugitzen direla proposatzean. Lan hauetan adierazten den bezala, argumentuen hitzordena kanonikoak –S(ergatiboa)-ZO(datiboa)-OZ(absolutiboa)– laguntzailearen komunztadura-buruaren ordena –ergatiboa-datiboa-absolutiboa– islatzen du. Datu hauek ikusita, Cheng eta Demirdache-k (1993: 74) (41)-ean erakusten den hierarkia proposatzen dute, egitura buru-azken bat onartuz. Egitura honek, beraz, argumentuen

<sup>10</sup> Hala ere, Elordietak (2001: 3) adierazten duen bezala, azterbide honek ez du argitzen zergatik agertzen diren Postposizio Sintagmak ere (PostS) aditzaren ezkerrean kanonikoki. Hau da, onartzen baldin badugu PostS-ek ez dituztela kasu tasunak, azterbide honek ez du PostS-ek ere zergatik igo behar duten azaltzen.

hitzordena kanonikoa ematen digu; era berean, komunztadura buruen ordena kanonikoa buru-mugimenduaren bidez eratorzen da:



Azterbide honi jarraituko diot komunztadura buru hauen hurrenkera onartuz eta argumentuak dagokien komunztadura buru baten espezifikatzailerara mugitzen direla ere onartuz. Era berean, laguntzaileak buru-adjunzioaren bidez eraikitzen direla onartuko dut. Hala ere, proposamen hauetan ez bezala, oinarritzko *espez-buru-osagarri* hurrenkera erabiliko dut Inflexio Sintagmaren barneko buruetarako.

Proposamen honek, beraz, ez die gaur egungo lan askori jarraitzen, onartzen baitu argumentuekiko komunztaduraren zunda arduradunak ez daudela *Dnb*, *A*, *a* (aditz txikia) edo *Aplikatio* buruetan, komunztadura buru berezietan (cf. (41)-eko hiru *Kmz* buruak) baizik. Alde batetik, objektuak igotzen direneko posizioak Inflexio Sintagman oso goian kokatzeko beharrak motibatzen du ikuspegi hau. Hala ere, badirudi bestelako motibazioa ere badela komunztadura buru hauetarako, modalen ezaugarri batzuk ikusita.

Izan ere, datu batzuek *ahal*, *nahi* eta *behar*-en tankerako modalekiko perpausak perpaus bakuneko egitura dutela iradokitzen dute. Hau da, modal hauek ez direla batzen osagarri

indefinitiboak dituzten aditz lexikoen moduan, aditz lexiko nagusiaren gaineko funtzio buru bezala baizik (Wurmbrand 2001, Cinque 2004).

Proposamen honen aldeko datu bat da modalen osagarriek ezin dutela beren ezeztapena eduki, (42) eta (43) adibideetan erakusten den bezala. Perpaus bakuneko azterbide batek datu hauek azaltzen ditu, zeren bestelako testuinguruetan ezeztapen buru bat ez baita posible hain goian buru funtzionalen hierarkian:

(42) \* Ez joa-n nahi dut.

(43) \* Nahi dut ez joa-n.

(44) \* Ez joa-n naiz.

Aitzitik, aditz psikologiko batzuen osagarriek, *-tzea* atzizkia eramaten dutenek, ezeztapena eduki dezakete:

(45) [Nobela erromantikoak *ez* irakurtzea] gustatzen zaio.

Osagarri hauek modalen osagarriek baino egitura funtzional aberatsagoa dutela erakusten duen beste froga bat kontrolari buruzko datuetatik dator. Bereziki, osagarri hauek ageriko subjektuak eta kontrola (baina nahitaezkoa ez dena) onartzen dituzte, modalen osagarriek ez bezala (Ortiz de Urbina 1989, San Martin and Uriagereka 2002, Etxepare 2006):

(46) Jonek<sub>i</sub> erabaki du [*e<sub>i/j</sub>*/Aitorrek traste zaharrak botatzea]. (Etxepare 2006)

(47) \* Jonek<sub>i</sub> nahi du [*e<sub>i/j</sub>*/Aitorrek joa-n].

Era berean, modal hauetariko batzuek objektuen komunztadura eta laguntzailearen aldaketa onartzen dituzte; fenomeno hauek perpaus bakunekoak izaten dira bestelako testuinguruetan (Wurmbrand 2001, Cardinaletti and Shlonsky 2004). Adibidez, (48) adibideak erakusten du, *ahal*-en kasuan, aditzaren argumentu-egiturak erabakitzen dituela laguntzailean dauden komunztadura morfemak; beste horrenbeste esan daiteke laguntzailearen *-izan* vs. *\*edun*- hautaketaren inguruan ere:

- (48) a. *Joan ahal naiz.* (ez-akusatiboa)  
 b. *Torrea ikusi ahal dut.* (monotransitiboa)  
 c. *Joni liburua eman ahal diot.* (ditransitiboa)

Osagarri jokatu gabeekin eta *gustatu*-ren tankerako aditzen osagarriekin, berriz, urruneko komuntzadura eta laguntzailearen aldaketa nekez onartzen dituzte hiztunek:

- (49) a. Ni gogoratzen naiz [zu etorriko zar]ela.  
 b. \*Nik gogoratzen dizut [zu-ri eman-go dute]la.  
 (50) a. \*[Ni ikustea] atsegin natzaio.  
 b. Ni atsegin natzaio. (Etxepare 2003: 168)

Gauzak horrela, *ahal*, *nahi* eta *behar* aditzaren gaineko funtzio buru bezala batzen direla onartuko dut. Gainera, elementu hauen hitzordenak laguntzailearen azpian batzen direla iradokitzen du, eta hau ere ontzat emango dut. Orain artekoa laburtzeko, daukagun funtzio buruen hierarkia hauxe da, beraz:

- (51) [DnbS Dnb [PolS Pol [ErgS IS<sub>Erg</sub> [DatS IS<sub>Dat</sub> [LagS Lag [AbsS IS<sub>ABS</sub> [Modals Mod [ASpS Asp [aS a  
 [AS A

Orduan, modalen analisi hau zuzen baldin badago, eta gainera Laka (1988, 1993), Cheng eta Demirdache (1993) eta Arregi eta Molina-Azaola (2004) lanei jarraitzen baldin badiegu laguntzaileak buru-adjunzioaren bidez eraikitzen direla onartzean, (48)-ko datuak komuntzadura buruak Inflexio Sintagmaren barnean goian batzen direlako proposamenaren alde daude. Hau da, datibo kasua eta absolutibo kasua erkatzen dituzten buruak behean batzen baldin badira –hau da *Apl* eta aditz txikiaren posizio kanonikoetan– *modal* buruak komuntzadura buruen mugimendua eragotzi beharko luke. Hots, mugimendu honek Buru Mugimenduaren Baldintza bortxatuko luke (Travis 1984).<sup>11</sup>

<sup>11</sup> Baliteke antzeko arazo bat *Aspektu* buruaren kasua izatea. Aspektu burua posizio estandar batean batzen baldin bada –hau da, aditz txikia baino gorago– buru honek ere eragotzi beharko luke mugimendua, komuntzadura buruak AS anizkunean baldin badaude. Hala ere, ikus Elordieta (2001: 2.kap) eta Adger eta Tsoulas (2004). Proposamen hauetan AS aditz txikiaren azpian kokatzen da.



Laguntzailearen erroa (g) urratsean elkartzen da, eta (h)-n ergatibo komunztadura burua. Honekin, laguntzailearen erroa eta absolutibo komunztadura burua berrelkartzen dira. Subjektua ergatibo buruaren espezifikatzaile mugitzen da:

- (54) g. (Lag, AbsS) → [<sub>LagS</sub> Abs+Lag [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> *Anek* <...>
- h. (Erg, LagS) → [<sub>ErgS</sub> Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> *Anek* <...>
- i. (*Anek*, ErgS) → [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* [<sub>aS</sub> <*Anek* ...>

Gero baieztapen burua batzen da eta BAI morfema isil bat elkartzen da bere espezifikatzailean:

- (54) j. (baiezt, ErgS) → [<sub>BaieztS</sub> ∅ [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* <...>
- k. (BAI, baiezt) → [<sub>BaieztS</sub> BAI ∅ [<sub>ErgS</sub> *Anek* Abs+Lag+Erg [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* <...>

Hurrengo, (l) urratsean, Dnb elkartzen da eta honekin laguntzailearen beste buruak berbatzen dira:

- (54) l. (Dnb, BaieztS) → [<sub>DnbS</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [<sub>BaieztS</sub> BAI <∅> [<sub>ErgS</sub> *Anek* <Erg> [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* ...>

Azkenik, Pol batzen da eta BaieztS bere espezifikatzaile mugitzen da, azaleko hitzordena eraginez:

- (54) m. (Pol, DnbS) → [<sub>PolS</sub> ∅ [<sub>DnbS</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [<sub>BaiS</sub> BAI <∅> [<sub>ErgS</sub> *Anek* <Erg> [<sub>LagS</sub> <Lag> [<sub>AbsS</sub> *filma* <Abs> [<sub>AspS</sub> *ikus-i* ...>
- o. (BaieztS, PolS) → [<sub>PolS</sub> [<sub>BaiS</sub> *Anek filma ikus-i* ] ∅ [<sub>DnbS</sub> Abs+Lag+Erg+∅+Dnb <...>

Ezezko perpausen eratorpenak berdinak izango dira, *ez* batzen deneko urratsa arte. Arestian ikusi dugun bezala, BAI morfema isila *ez* bezala, *ez*-ek *ez* du bere ahizpa PolS-ra garraiatzen, baizik eta utzi egiten du atzean. Proposamen hau ikusteko, (56)-ko urratsek (55) nola erartzen duten erakusten da jarraian:

(55) Anek ez du filma ikusi.

Segitzen duen eratorpena ezeztapen buru isila elkartzen deneko urratsekin hasten da. Urrats hau (54j) urratsari dagokio.

(56) (a-i; 54-an bezala)

- j. (Ezezt, ErgS) → [Ezezt ∅ [ErgS *Anek* Abs+Lag+Erg [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* <...>
- k. (*ez*, EzeztS) → [EzeztS *ez* ∅ [ErgS *Anek* Abs+Lag+Erg [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* <...>

Ondoren, (l) urratsean, Dnb elkartzen da eta honekin laguntzailearen beste buruak batzen dira berriro:

(56) l. (Dnb, EzeztS) → [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+Dnb [EzeztS *ez* <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>

Azkenik, Pol elkartzen da eta *ez* bere espezifikatzaile mugitzen da:

(56) m. (Pol, DnbS) → [PolS ∅ [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+ Dnb [EzeztS *ez* <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>

o. (*ez*, PolS) → [PolS *ez* ∅ [DnbS Abs+Lag+Erg+∅+ Dnb <...> [EzeztS <*ez*> <∅> [ErgS *Anek* <Erg> [LagS <Lag> [AbsS *filma* <Abs> [AspS *ikus-i* ...>

Erorpen honek eragiten duen hitzordena –hau da, subjektua laguntzailearen eskuinean ageriz– trakets samarra da (cf Laka 1990: 29). Azterbide honetan beste mugimendu bat beharko litzateke (55)-eko hitzordena naturalagoa eratorzeko.

#### 2.4 Hitzordena ez-neutroak

Ortiz de Urbinari (1998) jarraituko diot topikoak eta fokuk InfS-ren gaineko posizioetara mugitzen direla onartzean (Rizzi 1997 Rizzi 2004, Rizzi and Shlonsky 2005). Hain zuzen ere, demagun euskararen ezkerreko periferiak egitura hau daukala:

(57) [...[\*TopS [FokuS [PolS ...

Informazio-egiturarako azterbide honi jarraituz, demagun fokuek eta topikoek [foku] eta [topiko] tasunak dauzkatela hurrenez hurren. Demagun, halaber, Top eta Foku buruetan dauden balioztatu gabeko tasunek tasun hauek *zundatzen* dituztela, eta tasunen bategite honek topikoen eta fokuen mugimendua eragiten duela.

Honen guztiaren erakusgarri, ikus dezagun, beraz, beste eratorpen bat. Adibide bezala, (58) perpausa har dezagun kontuan:

(58) Jonek FILMA ikusi du.

Erorpen ez-neutroa eratorpen neutroak bezalakoxea izango da Foku burua elkartzen deneko urratsa arte. Puntu honetan, fokua [espez, PolS] gunean dagoen osagaitik ateratzen da eta [espez, FokuS] gunera igotzen da:

(59) [<sub>FokuS</sub> *FILMA* ∅ [<sub>PolS</sub> [<sub>BaieztS</sub> *Anek* <*FILMA*> *ikus-i* ] ∅ [<sub>Dnbs</sub> Abs+Lag+Erg+Dnb  
<...>

Gero, Top buruak elkartzen dira eta topikoak berauen espezifikatzaileetara mugitzen dira. Mugimendu honek (60)-eko azaleko hitzordena eragiten du.<sup>12</sup>

<sup>12</sup> Topikoak perpausaren eskuin aldean ere ager daitezke, (i)-n bezala. Gainera, hiztun batzuentzat, topikoak aditzaren eskuinean ere ager daitezke, (ii)-an bezala (ikus Ortiz de Urbina 2002):

(i) FILMA ikusi dut Anek.  
(ii) Anek ikusi du FILMA.



- (60) [TopS *Anek* ∅ [FokuS *FILMA* ∅ [PoIS [BaieztS <*Anek*><*FILMA*>*ikus-i* ] ∅ [Dnbs  
Abs+Lag+Erg+Dnb <...>

Beraz, azterbide honek esan nahi du mugitutako XS-osagai batzuk ez daudela *izoztuak*, hau da, ez dagoela espezifikatzaileen barnetiko mugimenduaren debeku orokorrik (*pace* Ormazabal et al 1994, Müller 1998:124, Koopman eta Szabolcsi 2000:38, Takahashi 1994:62-66). Baldintza honen aldeko datuak subjektuaren baldintzaren ondorioetatik datoz:

- (61) \*Who did [a picture of <who>] please the guests?  
(62) Who did you see [a picture of <who>]?

Hala ere, ikuspuntu minimalista batetik, zaila da ikusten zergatik eragotzi beharko lukeen mugitutako XS batek honelako mugimendua (Gallego eta Uriagereka 2006a,b). Gainera, subjektuaren baldintzaren ondorio hauek nahiko aldakorak omen dira hizkuntzarik hizkuntza (Takahashi 1994, Starke 2001).<sup>13</sup> Starkentzat (2001), adibidez, frantsesezko (63) ez da askoz okerrago, objektu posiziotik mugimendua duen perpausarekin erkatuta:

- (63) ? De quel film est-ce que tu crois que [la première partie t] va créer un scandale?  
‘*Zein filmen lehen zatiak uste duzue sortuko duela eskandalua?*’  
(Starke 2001: 36-7)

Espezifikatzailearen baldintzaren beste kontradibide bat (64) bezalako datuetatik dator. Honelako aditz partikulen analisi estandar baten arabera, objektua partikularen gaineko posizio batera igotzen da. Hau zuzena baldin bada, alderantzizko besarkadurak adierazten du *every* zenbatzailea mugitutako XS batetik atera dela:

---

Proposamen honen ikuspuntutik mugimendua gero beharko litzateke hitzordena hauek esplikatzen; ez ditut fenomeno hauek lantzen lan honetan

<sup>13</sup> Ikus Collins (2005a,b).

- (64) Some girl put a poster of every rock star up <a poster of every rock star> on her wall.<sup>14</sup>  
 ‘Neskaren batek rock-izar bakoitzaren poster bat ipini zuen bere horman’  
 ? every > some (non A > B = A-k B-ren gaineko besarkadura du)

Euskararako antzeko izozte ondorioak Ormazabalek, Uriagerekak eta Uribe-Etxebarriak (1994) deskribatzen dituzte. Diotenez, urruneko NZ-mugimendua posible da, mendeko perpausa bakarrik *in situ* gelditzen bada. Mendeko perpausa mugitzen baldin bada, berriz, mugitutako osagaitik azpiateratze hau zailagoa da:

- (65) a. Zer esan dizute [entzun dutela [t irakurriko dutela Peruk]]  
 b. \*Zer<sub>i</sub> esan dizute [[t<sub>i</sub> irakurriko duela Peruk]<sub>j</sub> entzun dutela t<sub>j</sub>]  
 (Ormazabal, Uriagereka and Uribe-Etxebarria 1994)

Hala ere, euskaraz ere badirudi NZ-mugimendua beste testuinguru batzuetan posible dela:

- (66) Nori<sub>i</sub> uste duzu [ [t<sub>i</sub> emateko]<sub>j</sub> esaten diotela t<sub>j</sub>]? (Beñat Oyharçabal, k.p.)  
 (67) Norekin<sub>i</sub> pentsatu duzu [[ t<sub>i</sub> ezkondu behar naizela]<sub>j</sub> esaten diotela t<sub>j</sub>]? (Elordieta 2008)  
 (68) Nora<sub>i</sub> entzun duzu [[ t<sub>i</sub> eramateko]<sub>j</sub> eskatu diotela t<sub>j</sub>]? (Elordieta 2008)

Datu hauek, beraz, iradokitzen dute (65b) adibidearen txartasuna ez dela mugitutako osagai batetik ezer azpiateratzearen kontrako debeku orokor bategatik, mendeko perpausen beste ezaugarri bategatik baizik.

### 3. Ondorioen laburbilpena

Lan honetan, euskal perpausak oinarritzko *espez-buru-osagarri* ordena duelako hipotesiaren alde argudio batzuk aurkeztu ditut. Lehendabiziko zatian proposatu dut analisi antisimetriko batek partikula ebidentzialen hitzordena eta besarkaduraren jokabidearen berri hobeto ematen duela azterbide ez-antisimetriko nagusiek baino (Ortiz de Urbina 1989, Laka

<sup>14</sup> Antzeko adibide bat (i) da. Hau ere hiztun guztiek ez dute onartzen:

(i) [A different critic considered [a film on each topic]<sub>i</sub> likely [t<sub>i</sub> to [t<sub>i</sub> cause a scandal.]

‘Beste kritikari batek iritzi zion gai bakoitzaren inguruko film batek eskandalua sor zezakeela’

?? each > a

1990, Elordieta 2001). Bigarren zatian, objektuen hitzordenaren analisi antisimetriko bat garatu dut. Bereziki, objektuak perpausean goiko komuntadura posizioetara mugitzen direla proposatzen dut. Analisi alternatibo honek Haddicanen (2004) analisiak dituen arazo enpiriko eta teoriko batzuk saihesten ditu, baina antisimetriari eusten dio. Proposamen honek, zuzena baldin bada, iradokitzen du azpiateratzearen kontrako debekua ez dela orokorra. Hala ere, azpimarratu behar da proposamen hau behin-behinekoa baino ez dela; lan gehiago behar da analisi honen inplikazioak hobeto ulertzeko.

### Aipamen bibliografikoak

- Adger, David eta George Tsoulas. 2004. "Circumstantial Adverbs and Aspect". In Jennifer R. Austin, Stefan Engelberg eta Gisa Rauh (arg.), *Adverbials: The interplay between meaning, context and syntactic structure*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 45-66.
- Arregi, Karlos. 2001. "Focus and Word Order in Basque". Eskuizkribua, MIT.
- Arregi, Karlos eta Gainko Molina-Azaola. 2004. "Restructuring in Basque and the Theory of Agreement". In *Proceedings of the 23rd West Coast Conference on Formal Linguistics*. Somerville, MA: Cascadilla Press. 43-56.
- Cardinaletti, Anna eta Ur Shlonsky. 2004. "Clitic Positions and Restructuring in Italian". *Linguistic Inquiry* 35:4, 519-557.
- Cheng, Lisa eta Hamida Demirdache. 1993. "External Arguments in Basque". In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Philadelphia: Benjamins. 71-87.
- Cinque Guglielmo. 1993. "A null theory of phrase and compound stress". *Linguistic Inquiry* 24, 239-298
- Cinque, Guglielmo. 1999. *Adverbs and Functional Heads: A Cross-Linguistic Perspective*. Oxford: Oxford University Press.
- Cinque, Guglielmo. 2004. "Restructuring' and Functional Structure". In A. Belletti (arg.), *Structures and Beyond*. Oxford: Oxford University Press. 132-191.
- Collins, Chris. 2005a. "A Smuggling Approach to the Passive in English". *Syntax* 8:2, 81-120.

- Collins, Chris. 2005b. "A Smuggling Approach to Raising in English". *Linguistic Inquiry* 36:2, 289-298.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT Dissertation Series.
- Elordieta, Arantzazu. 2004. "Prosodiaren eta egitura konfigurazionalaren arteko eraginez". In P. Albizu eta B. Fernandez (arg.), *Euskal gramatika XXI. Mendaren atarian: arazo zaharrak, aztebide berriak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia. 39-59.
- Elordieta, Arantzazu. 2008. "OA hizkuntzak: oinarritzko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez". Liburu honetan.
- Elordieta, Gorka. 1997. *Morphosyntactic Feature Chains and Phonological Domains*. Doktorego tesia. University of Southern California.
- Etxepare, Ricardo. 2003. "Menpeko infinitiboak eta urruneko komunztadura euskaraz". *Lapurdum* 8, 167-206.
- Etxepare, Ricardo. 2006. "Long distance number agreement in (substandard) Basque". *ASJU* 40: 1-2, 303-350.
- Gallego, Angel eta Juan Uriagereka. 2006a. "Conditions on Sub-Extraction". Eskuizkribua. Universitat Autònoma de Barcelona eta University of Maryland at College Park.
- Gallego, Angel eta Juan Uriagereka. 2006b. "Sub-extraction from Subjects: A Phase Theory Account". Eskuizkribua. Universitat Autònoma de Barcelona eta University of Maryland at College Park.
- Haddican, Bill. 2004. "Sentence Polarity and Word Order in Basque". *The Linguistic Review* 21:2, 81-124.
- Johnson, Kyle. 1991. "Object Positions". *Natural Language and Linguistic Theory* 9, 577-636.
- Kayne, Richard. 1989. "Facets of Romance Past Participle Agreement." In P. Benincà (arg.), *Dialect Variation and the Theory of Grammar*. Dordrecht: Foris. 85-103.
- Kayne, Richard S. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Koopman, Hilda eta Anna Szabolcsi. 2000. *Verbal Complexes*. Cambridge MA: MIT Press.
- Laka, Itziar. 1988. "Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque". *ASJU* 22:2, 343-366.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in Syntax. On the Nature of Functional Categories and Projections*. Doktorego tesia, MIT.

- Laka, Itziar. 1993. "The Structure of Inflection". In J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 21-70.
- Müller, Gereon. 1998. *Incomplete category fronting*. Dordrecht: Kluwer.
- Ndayiragije, Juvénal. 1999. "Checking Economy". *Linguistic Inquiry* 30:3, 399-444.
- Ormazabal, Javier, Juan Uriagereka eta Myriam Uribe-Etxebarria. 1994. "Word order and wh-movement: towards a parametric account". Glow 17 jardunaldietan aurkeztutako txostena, Vienna.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1994. "Verb Initial Patterns in Basque and Breton", *Lingua* 94, 125-153.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1998. "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque". In J. Franco, A. Landa eta J. Martín (arg.), *Grammatical Analyses in Basque and Romance Linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: Benjamins. 179-194.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2002. "Focus of Correction and Remnant Movement in Basque". In X. Artiagoitia, P. Goenaga, eta J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren gehigarriak-EHU. 511-524.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2008. "Indar Sintagmak, Foku Sintagmak, eta ezker aldeko buruak euskarari". Liburu honetan.
- Reinhart, Tanya. 1995. "Interface Strategies". *OTS Working Papers*.
- Rizzi, Luigi. 1997. "The Fine Structure of the Left Periphery". In L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 281-337.
- Rizzi, Luigi. 2004. "On the Form of Chains: Criterial Positions and ECP Effects". Eskuizkribua, University of Siena.
- Rizzi, Luigi and Uri Shlonsky. 2005. "Strategies of Subject Extraction". Eskuizkribua, University of Siena eta University of Geneva.
- San Martín, Itziar eta Juan Uriagereka. 2002. "Infinitival Complementation in Basque". In X. Artiagoitia, P. Goenaga, eta J. A. Lakarra (arg.), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren gehigarriak-EHU. 597-609.
- Sauerland, Uli. 1999. "Erasability and Interpretation". *Syntax* 2:3, 161-188.
- Starke, Michael. 2001. *Move dissolves into Merge: A theory of Locality*. Doktorreko Tesia, Université de Genève.
- Takahashi, Daiko. 1994. *Minimality of movement*. Doktorreko Tesia, University of Connecticut, Storrs.

- Travis, Lisa de Mena. 1984. *Parameters and Effects of Word Order Variation*. Doktorego tesia, MIT.
- Uribe-Etxebarria, Myriam. 2003. "Euskararen eta Hizkuntza erromanikoen foku egituren arteko zenbait paralelotasunez". In J. M. Makatzaga eta B. Oyharçabal (arg.), *Euskal gramatikari eta literaturari buruzko ikerketak XXI. Mendearen atarian. Gramatika gaiak. Iker-14 (1)*. Bilbo: Euskaltzaindia. 37-160.
- Uriagereka, Juan. 1999. "Minimal Restrictions on Basque Movements". *Natural Language and Linguistic Theory* 17, 403-444.
- Vicente, Luis. 2005. "Word order permutation in Basque as non-feature driven movement". Eskuizkribua, University of Leiden.
- Wurmbrand, Susanne. 2001. *Infinitives: Restructuring and Clause Structure*. Berlin/New York: Mouton de Gruyter.
- Zanuttini, Raffaella. 1994. "Re-examining Negative Clauses". In G. Cinque, J. Koster, J.-Y. Pollock & R. Zanuttini (arg.), *Paths towards Universal Grammar. Studies in Honor of Richard S. Kayne*. Washington: Georgetown University Press. 427-451.
- Zanuttini, Raffaella. 1997. *Negation and Clausal Structure: A Comparative Study of Romance Languages*. New York/Oxford: Oxford University Press.

*Bill Haddican*

*<wh506@york.ac.uk>*

*Department of Language and Linguistic Science*

*University of York*

*Heslington, York YO10 4DD, UK*

# OA hizkuntzak: oinarrizko hurrenkeraz eta hurrenkera eratorriez

Arantzazu Elordieta

UPV/EHU

## Laburpena

*OA hizkuntzek erakusten duten hurrenkera kanonikoa edo markatugabea [osagarria-aditza] da, osagarria zeinahi (DetS nahiz PostS) izan daitekeelarik. Ordena kanoniko horrek oinarrian dagoen hurrenkera islatu dezake, edo, aitzitik, alderantzikatutako ordena eratorria izan daiteke. Antisimetriaren hipotesiaren arabera, bigarrena da aukera bakarra, hots, OA hizkuntzak [burua-osagarria] ordenatik abiatzen dira OA hurrenkera eratoritzeko. Aitzitik, buru parametroa Gramatika Unibertsalak ezarritakoen artean bada, proposa daiteke euskararen gisako OA hizkuntzek [osagarria-aditza] dutela oinarrizko hurrenkeran. Lan honetan bi hipotesiak erkatuko ditugu, eta erakutsiko dugu buru parametroak modu errazagoan azaltzen dituela lanean aurkezten diren datuak. Datuon berri emateko, azterbide antisimetrikoak motibaziorik ez duten mugimendu “gehigarriak” proposatu behar ditu, konputazioa zailduz.*

## 0. Atarikoak\*

Lan honen helburua soila da, baina ez horregatik ondorio gabea; are gehiago, artikulua honen alderik interesgarriena, hain zuzen, bere soiltasunean bila daiteke: alde batetik, *oinarrizko hurrenkera* kontzeptuaren erabilera aztertuko dugu, uste baitut erabilera horren arabera ebaluatu ahal izango dugula hobeto zein ondorio dituen hurrenkeraren auziak antisimetriaren hipotesia edo buru parametroa onartzen duten ikusmoldeentzat. Bestetik, behin oinarrizko hurrenkeraz zer ulertzen dugun argitu ondoren, bi hipotesiek hainbat egiturari buruz egiten dituzten iragarpenak konparatuko ditugu, abiapuntu gisa adierazpen perpaus neutroak hartuta. *Subjektua-Objektua-Aditz jokatua* elementuez osatutako perpaus gain, postposizio sintagmak (PostS), adberbioak eta perpaus osagarri jokatuak dituzten perpauserei ere begiratuko diegu. Ikusiko dugunez, antisimetriaren hipotesiak eta buru parametroa onartzen duen analisiak iragarpen desberdinak egiten dituzte hurrenkerari buruz.

---

\* Artikulu hau Gasteizen 2007ko otsailaren 15ean eman nuen hitzaldiaren bertsio idatzia da. Eskerrak eman nahi dizkiet Xabier Artiagoitiari eta Iñigo Arteatxi, lanean zehar aipatzen diren hainbat kontu haiekin izandako eztabaiden fruitu direlako. Halaber, *Antisimetriaren Hipotesia vs Buru Parametroa: euskararen hitz hurrenkera ezbaian* mintegiko parte hartzaileei ere eskerrak eman nahi dizkiet egindako iruzkinengatik. Lan hau EHUren UPV05/03 ikerketa proiektuaren eta Eusko Jaurlaritzak Ikerkuntza Sareak sortzeko 2006an ateratako deialdian emandako dirulaguntzen babesean egin da.

Euskararen hitz hurrenkera antisimetriaren hipotesiaren arabera modu xehe eta sistematikoan azaltzen saiatu den lan bakarretarikoa da Haddican (2004). Hortaz, lan hori erabiliko dut bi hipotesiek egiten dituzten iragarpenak aurrez aurre konparatuko ditugunean.

Bestalde, aipatu beharra dago lan honetan ekonomiaren hatsarreak, bere zentzurik zabalenean (hartuta), ezkuta ezineko garrantzia daukala. Izan ere, besterik gabe onartuko dut syntaxian gertatzen diren mugimendu-eragiketak zerbaitek bultzatuak direla; alegia, osagaiak mugitzen badira, arrazoi fonologiko edo morfosintaktikoengatik izango da. Zentzu horretan, antisimetriaren hipotesia aintzat hartzen duten hainbat lanetan proposatzen diren zenbait mugimenduri motibazio falta sumatzen zaie nabarmenki, eta horrek, ene uste apalean, proposamenak dukeen balioa ahultzen du, ekonomiaren ikuspuntutik eragiketa edo eratorpen *garestiagoak* sortzen baitituzte.

Artikulua sei ataletan egituratu dut. Lehen atalean, hitz hurrenkerearen gainean aski ezaguna den hurbilketa tipologikoa ekarri dut eztabaidara. Bigarren atalean oinarrizko ordenaren esanahia aztertuko da, ordena markatugabeak eta *sakoneko ordena* bereiziz. Hirugarren atalean antisimetriaren hipotesiaren ideia nagusiak azalduko ditut, bai eta bertatik espero daitezkeen hainbat ondorio ere. Laugarren atalean datuek buru parametroaren existentzia defendatzen duen analisiaren alde ala hipotesi antisimetrikoaren alde egiten duten aztertuko dugu, adierazpen perpaus neutroek erakusten duten ordenari erreparatuz. Ikusiko dugunez, DetS ez diren osagaien hurrenkera neutroak errazago azal daitezke *aditza azken* duen sistema onartuz gero. Bosgarren atalean perpaus jokatuaren hurrenkera aztertuko dugu (adierazpen perpausena eta galde-perpausena), berauen jokabideak ez baitu azalpen errazik aurkitzen antisimetriaren hipotesiaren barnean baina ezta ere buru parametroa onartzen duen analisi batean. Azkenik, seigarren atalean ondorioak laburbiltzen dira.

## 1. Hurrenkera eta tipologia

### 1.1. Greenberg

Ezaguna denez, hitzen arteko ordenaren tipologia mugarri izan da hizkuntz tipologia aztertu duten lanetan, bereziki Greenberg-en (1963) lanaz geroztik.<sup>1</sup> Hizkuntzalari honek, hizkuntzaz hizkuntza aurki daitezkeen unibertsalak bilatu nahian, tipologikoki desberdinak

<sup>1</sup> Greenbergekin zuzen jokatu nahi badugu, irakurleari ohartarazi behar zaio literaturan erabili ohi den terminoa *hitzen arteko ordena* bada ere, Greenbergek “elementu esanguratsuenen arteko ordena” aztertu zuela, alegia, osagaien arteko ordena.



diren 30 hizkuntzaren laginak erabili zituen –euskararenak tartean-, eta ondorengo lanek ongi erakutsi dutenez, izugarriko eragina izan duten inplikazio bidezko hainbat orokorpen tipologiko proposatu zituen. Orokorpen horiek korrelazioen forman azaldu zituen, lau parametro nagusi erabili zituelarik:

- (1) a. S, O, A osagaien arteko ordena
- b. hizkuntzak preposizioak ala postposizioak dituen
- c. adjektiboaren eta izenaren arteko hurrenkera
- d. genitibo eta izenaren arteko hurrenkera

Parametro hauek printzipioz independenteak dira bata bestearengandik. Izan ere, Comriek (1981: [1989:130]) ohartarazten duenez, SOA osagaien arteko hurrenkeraren parametroak zentzua du baldin eta delako hizkuntzan *subjektua* edo *objektua* gisako gramatika-funtzioak identifikatzerik badago, eta baldin eta hizkuntza batean *oinarrizko* ordena zein den esan badezakegu. Horrela, posible litzateke hizkuntza baten azterketa tipologikoa egitea (1b-d) parametroen arabera, (1a) kanpoan utziz, eta horrek ez lieke Greenbergen korrelazioei indarra kenduko, baizik eta haien hedadura/besarkadura murriztuko. Nolanahi ere, haren lanaren ondoren hainbat Greenbergekin proposatzen dituen korrelazio unibertsalak enpirikoki frogatu daitezkeen ala ez erakusten saiatu dira. Horrela, (1)-eko lau parametroak elkarrekin konbinatuz gero, 24 konbinazio logikoetatik 15 baino ez dira laginean aztertutako hizkuntzetan aurkitzen; eta 15 tipoetarik 4 dira alde handiarekin hizkuntza gehienak hartzen dituztenak barnean:

- (2) a. ASO, Prep, I-Gen, I-Adj
- b. SAO, Prep, I-Gen, I-Adj
- c. SOA, Post, Gen-I, Adj-I
- d. SOA, Post, Gen-I, I-Adj

Lehmann-ek (1973, 1978) lau tipoak bi tipo nagusitara murriztea proposatu zuen, subjektuaren kokapenak ez baitu garrantzirik azterketa tipologikoetarako, bere ustez:<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Ideia hau *subjektua* nozioaren definizio lausoarekin dago lotuta: alegia, nola identifikatzen dugun subjektua, *egile* rolaekin, *topiko* funtzioarekin, ala besterik. Bestetik, aipatzekoa da zenbait hizkuntzatan subjektua maiz isilean gera daitekeela (i.e. *pro drop* hizkuntzak).

- (3) a. AO, Prep, I-Gen, I-Adj  
 b. OA, Post, Gen-I, Adj-I

Haatik, murrizketa honek ondorio argiak ditu OA hizkuntzetarako: OA hizkuntzetan beste bi parametroak mantenduta ere maiz izaten da I-Adj oinarrizko ordenan (Adj-I bezainbeste, antza). Euskararen kasua dugu horren adibide garbia:

- (4) Nire gurasoek etxe berria erosi dute

Zentzu horretan, SOA tipoko hizkuntzak (3b) tipora murriztean kontuan izan beharko dugu beti ere *joera unibertsalez* ari garela. Izan ere, ezin da ahaztu tipologiaz ari garenean ez ditugula orokorpen absolutuak bilatzen, baizik eta joera unibertsalak.

Bestalde, hurrenkeraren beste parametro ezagun batzuek ere korrelazioak erakusten dituzte (3a-b)-ko bi tipo nagusiekin:

- (5) a. (3a) tipoko hizkuntzetan oro har perpaus erlatiboak izenaren **ondotik** agertzen dira, aditz *laguntzaileak* aditz nagusiaren **aurretik**, eta konparazio-terminoa konparatiboaren **ondotik** (ikus (6a)).  
 b. (3b) tipoko hizkuntzetan, aldiz, oro har, perpaus erlatiboak izenaren **aurretik** agertzen dira, aditz *laguntzaileak* aditz nagusiaren **atzetik**, eta konparazio-terminoa konparatiboaren **aurretik** agertzen da (ikus (6b)).
- (6) a. El bastón [*que has comprado*] es más largo *que el mío*  
 b. [*erosi duzun*] makila *nirea baino* luzeagoa da

Gaztelania (5a) tipokoa litzateke, eta euskara (5b) motakoa. Hemen, berriro ere, azpimarratu behar da joera nagusiez ari garela, eta ez unibertsal absolutuez, zeren eta badira hainbat hizkuntza non hurrenkeraren parametroen arteko korrelazio guztiak ez diren betetzen. Esaterako, persiera OA hizkuntza da oinarrizko ordenari dagokionez, baina preposizioak ditu, eta perpaus erlatiboak, genitiboak eta adjektiboak izenaren ondoren ageri dira (Comrie 1989: 145). Hau da, ordenaren araberrako lau parametroei erreparatuz gero, bitariko jokabidea

erakusten du, *aditz-azkena* baita osagaien hurrenkerari dagokionez, baina beste hiru parametroez diren bezainbatean, gaztelania bezala *buru-lehen* diren hizkuntzen hurrenkera azaltzen duelako. Era berean, nederlandarak eta alemanak bi hurrenkera erakusten dituzte perpausa nagusia (7a) ala mendekoa (7b) den:

- (7) a. Der Mann **sah** den Jungen  
 Det(NOM) gizon(NOM) ikusi(irag) det(AKUS) mutil (AKUS)  
 ‘Gizonak mutila ikusi zuen’
- b. Ich weiss, dass der Mann den Jungen **sah**  
 ni(NOM) dakit Konp det(NOM) gizon(NOM) det(AKUS) mutil(AKUS) ikusi  
 ‘Badakit gizonak mutila ikusi zuela’

(Comrie 1989:132)

Adibide hauek zerbait erakusten badute OA hizkuntza guztiak ez direla zaku berean sartu behar dateke, bestelako faktore eragile asko baitaude tartean. Ondoko ataletan eragile hauetako batzuk izango ditugu aztergai (ikus 2.2 atala).

## 1.2. Vennemann (1974) eta Hawkins (1979)

Vennemannek, Lehmannek egin bezala, (2a-d)-ko tipo linguistikoak bi multzo handitan bereiz daitezkeela proposatu zuen, korrelazioen azpian *operatzailea* eta *operagaia* zeritzen elementuen arteko ordena datzala proposatuz. Bere hitzetan, subjektua albo batera utzirik, (2a-d)-ko tipoetan osagaietako bat beti da *operatzailea* (gaur egun adjuntu edo modifikatzailea deituko genukeena) eta bestea *operagaia* (ardatza edo buruaren parekoa).<sup>3</sup> Beraz, ordenari dagokionez, hizkuntzak (8a) edo (8b) tipokoak direla esan daiteke, beti ere aintzat hartuta joerez ari garela; izan ere, hizkuntza batzuk sistematikoki tipo baten ala bestean sartuko dira, baina bi ordenetako egiturak dituzten hizkuntzak deskribatzerakoan ordena nagusiari begiratu beharko zaio:

- (8) a. Operagaia-operatzailea = AO, Prep, I-Gen, I-Adj (3a)  
 b. Operatzailea-operagaia = OA, Post, Gen-I, Adj-I (3b)

<sup>3</sup> Eztabaidagarria da aditzaren osagarria operatzaileen zaku berean sartzea, kontuan izanik bere terminologian adjuntuak operatzaile direla. Badirudi bere proposamenean burua vs. burua ez denaren arteko harremana duela gogoan.

Aurreko bi hizkuntzalarien ildo berean, Hawkins-ek (1979, 1980) Greenbergen inplikazioetatik abiatuz bi unibertsal multzo proposatu zituen, bere hitzetan, salbuespenik gabeak direnak. Lehen unibertsal multzoa osagaien arteko ordenari dagokio:

- (9) a.  $SOA \rightarrow (Adj-I \rightarrow Gen-I)$   
 b.  $ASO \rightarrow (I-Adj \rightarrow I-Gen)$

Inplikazioak honela irakurri behar dira: hizkuntza baten oinarrizko ordena SOA bada, eta adjektiboak izenaren aurretik agertzen badira, orduan genitiboak izenaren aurretik agertuko dira, nahitaez. Halaber, hizkuntza batek ASO ordena badu eta adjektiboak izenaren ondoren ageri badira, genitiboak izenaren ondoren azalduko dira, ezinbestean. Honek kanpoan utziko lituzke, esaterako, Adj-I hurrenkera baina I-Gen ordena dukeen SOA hizkuntza bat, edota I-Adj eta Gen-I ordena dukeen ASO hizkuntza bat. Orain arteko lanek erakutsi dutenez, badirudi iragarpenak bete egiten direla.

Besterik da SOA hizkuntza batek I-Adj hurrenkera badu (euskara kasu). Kasu honetan Hawkinsen inplikazioetatik ezin da ondorioztatu genitiboa izenaren ezkerretara edo eskumatara agertuko den, hurrenkera hori ez baita bere unibertsaletan aurkitzen.

Greenbergen inplikazioak bezala, Hawkinsenak alde bakarrekoak dira, baina azken honen kasuan, bere unibertsalek ez dute salbuespenik. Hain zuzen ere, (9a-b)-ko tipologiari jarraitzen ez dioten hizkuntzak *SAO hizkuntzak* izan ohi dira, Hawkinsek ohartarazten duenez. Bere iritziz, SAO ordenatik abiatuz, ezin da ondorioztatu zein izango diren beste hurrenkera parametroak, perpaus mailan ordena hori duten hizkuntzek mota guztietako parametroak erakusten baitituzte Izen Sintagma mailan.

Bigarren unibertsal multzoak hizkuntzei preposizioak edo postposizioak dituen erreparatuko die:

- (10) a.  $Prep \rightarrow (I-Adj \rightarrow I-Gen)$   
 b.  $Post \rightarrow (Adj-I \rightarrow Gen-I)$

(9) eta (10)-eko inplikazioak batuz gero, Hawkinsek ondoko unibertsal konplexuak proposatzen ditu:

- (11) a. Prep & (ASO  $\vee$  SOA)  $\rightarrow$  (I-Adj  $\rightarrow$  I-Gen)  
 b. Post & (ASO  $\vee$  SOA)  $\rightarrow$  (Adj-I  $\rightarrow$  Gen-I)

➤ Non kokatzen da euskara (11)-ko unibertsalei dagokienez? Postposizioak dituen heinean, eta SOA tipokoa bezala deskribatu izan denez gero (cf. de Rijk 1969 eta ondorengo lanak) (11b) motako hizkuntza litzateke, salbu Adj-I-ren arteko ordena bestelakoa dela:

- (12) Julenen amak ardo-kutxa handi bi oparitu dizkit

Azterketa tipologikoen hurrenkeraz erakuts diezaguketen aldetik, joera nagusi unibertsalak nondik nora mugatzen diren jakiteko balia ditzakegu, baina, ene ustez, ez lirerateke termino absolutuetan ulertu behar. Halarik ere, esanguratsua deritzogu SAO hizkuntzez Hawkinsek egindako oharpenari, alegia, SAO hizkuntzen hurrenkera-parametroek aldakortasun gehien erakusten dutenak direla, eta, hortaz, SAO osagaien hurrenkeratik abiatuta ezin dela beste parametroekiko iragarpenik egin.

Ondorioztapen honek badu eraginik antisimetriaren hipotesia eta buru parametroa erkatu nahi dituen azterketa baterako. Hain zuzen, antisimetriaren hipotesia kontuan hartzen badugu (hots, hitz hurrenkera unibertsala *espezifikatzailea-burua-osagarria* dela), ez da berehala ulertzen zergatik diren *koherenteagoak* SOA hizkuntzak SAO hizkuntzak baino. Beste hitzetan esanda, **OA hizkuntzak AO oinarrizko hurrenkeratik eratorriak badira, espero izatekoa alderantzizkoa litzateke, hots, aldakortasun gehiago erakustea** bestelako parametroekiko, mugimendu eragiketa gehiago gertatzen direlako OA hizkuntzetan.

## 2. Oinarrizko ordena

Aurreko lerroetan oinarrizko ordenaz mintzatu gara, baina ez da argi azaldu nola ulertu behar den *oinarrizko* izenlagunaren esanahia. Hizkuntzalaritzako lanetan orokorki bi adiera hartu ohi dira kontuan oinarrizko hurrenkera aipatzen denean: hitzordena neutro edo ez-markatua, alde batetik, eta *eratorria ez den* egitura sintaktikoarena, bestetik. Seguru asko, bi adiera hauen arteko tentsioak esplikatu dezake zergatik maiz ordena neutroa eta oinarrizko ordena baliokide bailiran erabiltzen dituzten hainbatek. Haatik, beste batzuen iritzirako, oinarrizko ordena *sakoneko* egituraren hurrenkera da, hots, eragiketa sintaktikoak gertatu

aurreko egituraren ordena islatzen duena. Kayneren (1994) antisimetriaren hipotesia bigarren ildo honetatik abiatu da.

## 2.1. Hitzordena neutroa edo markatugabea

Euskara, errusiera edo warlbiri gisako *ordena libreko* hizkuntzen kasuan, agian ez da hain begi bistakoa oinarrizko hurrenkeraz hitz egitea, perpauseko osagaiak era askotara konbina daitezkeelako ordenari dagokionez, perpausen gramatikaltasunean ezelan ere eragin gabe. Hala ere, euskaraz eta errusieraz behintzat, hitz hurrenkerak mugak eta mailaketak ditu ikuspuntu informatibo-pragmatikotik.

### 2.1.1. Hitzordena neutroa eta informazio egitura

Oro har pragmatika aldetik edo informazio egitura aldetik inolako presuposiziorik baldintzatzen ez denean testuinguru neutro baten aurrean gaudela esan genezake. Beraz, kasurik tipikoenean *zer gertatu da?* galderari erantzuten dion ordena hartuko dugu neutrotzat edo markatugabetzat:

- (13) a. Gaur egun jende gazteak liburu gutxi irakurtzen du  
 b. Josebak bere amari eskutitz bat bidaltzen dio astero  
 c. Udako oporretan hondartzara joaten gara

Horrela, euskaraz hitzordena neutroa SOA da, osagarria izenezkoa edo PostS denean behintzat (cf. besteak beste, de Rijk 1969, Eguzkitza 1986, Ortiz de Urbina 1989, Osa 1990).

Aldiz, (14)-ko adibideek hurrenkera markatua dute:

- (14) a. Gaur egun jende gazteak irakurtzen du liburu gutxi  
 b. Bere amari bidaltzen dio Josebak eskutitz bat astero  
 c. Udako oporretan joaten gara hondartzara

Hurrenkera markatua dutela diogu adibide bakoitzean elementu bat nabarmentzen baita foku (estu) gisa nahitaez: subjektua (14a)-n, zeharkako osagarria (14b)-n eta denborazko PostS (14c)-n. Ez da horrelakorik gertatzen (13a-c)-ko perpausetan; hartu (13a) adibidez. Perpaus horretan *liburu gutxi* osagarria foku gisa interpreta daiteke, baina *ez nahitaez*. (14)-ko

perpausetan, aldiz, aditzaren aurreko osagaia fokua da ezinbestean. Zentzu honetan esaten ahal dugu ordena "markatuak" eta ordena "markatugabeak" daudela.

Euskaraz ez ezik, beste hainbat hizkuntzatan ere gertatzen da testuinguru neutroetan adierazitako perpausetako foku interpretazioaz esan duguna (ikus (13)). Izan ere, Cinque (1993), Reinhart (1995) eta Zubizarretaren (1998) lanek -besteak beste- erakutsi dutenez, lotura estua dago foku azentuaren eta foku interpretazioaren artean. Honela laburbil ditzakegu lanotatik atera daitezkeen orokorpen nagusiak:

- (15) a. Testuinguru neutro edo kanonikoetan osagai batek eramaten du azentu nagusia, eta osagai horrek informazio berria adierazten duen foku interpretazioa izan dezake (baina ez nahitaez).
- b. Testuinguru neutroetan perpaus osoa ere interpreta daiteke informazio foku gisa, hedaduraz.
- c. Azentu nagusia perpaus txertatuen dagoen elementuak jasotzen du, buru parametroaren arabera (Cinque 1993). Beste lan batzuek txertatze mailan baino, linealtasunean oinarrituta ezartzen dute orokorpena. Hots, AO hizkuntza baten aditzaren eskumatara agertzen den azken osagaiak eramango du azentu nagusia (adarreztatzea eskumatara egiten baita), eta OA hizkuntza baten, aldiz, aditzaren ezkerretara agertzen denak.<sup>4</sup>

Reinhartek honela formulatzen du (15b)-ren foku-interpretazio anitza (*'focus set'*):

- (16) Perpaus bateko fokua azentu nagusia daraman osagaia menperatzen duen edozein osagai izan daiteke

(13a)-ko adibidean, osagarriak darama azentu nagusia, beraz, fokutzat interpreta dezakegu. Baina AS-k ere osagarria menperatzen duenez, AS ere foku modura interpreta daiteke. Era berean, perpaus osoak (DenbS) osagarria menperatzen du, eta hartara, perpaus osoa izan daiteke fokua. Hauexek dira testuinguru neutroak edo markatugabeak, perpaus osoa denean informazio berria.

<sup>4</sup> Hainbatek ohartarazi dutenez, Cinqueren algoritmoak ez du ongi azaltzen zergatik PostS-ek, adberbioek eta espezifikatzaile posizioetan dauden sintagmek bestelako azentu eredia erakusten duten. Badirudi "ikusezinak" direla azentu nagusiaren ezarketari dagokionez (ikus Zubizarreta 1998, Arregi 2006).

### 2.1.2. Bestelako irizpideak

Irizpide pragmatikoez gain, bestelako irizpideak ere erabili ohi dira oinarrizko hurrenkera deskribatzerakoan: maiztasunarena, nagusiki. Irizpide honen arabera, delako hizkuntza batean ordena bat besteak baino gehiago erabiltzen bada, hori izango da oinarrizkotzat jo beharreko hurrenkera. Halaber, azterketa estatistikoak ere baliatu izan dira oinarrizko hurrenkera zein den zehazteko; adibidez, korpus batetik abiatuz, aztertu zein den maiztasun handienarekin agertzen den hitz hurrenkera besteen aldean.<sup>5</sup>

Beste helburu batzuetarako izan dezaketen balioa gutxietsi gabe, zalantzarria da datu estatistikoek oinarrizko hurrenkerari buruz argi dezaketena. Alde batetik, korpus idatzietan zail da intonazio kontuak kontrolatzea. Ondorioz, ezin dugu jakin neurri handi batean perpausak erakusten duen ordena zein informazio egiturari dagokion. Bestetik, are garrantzitsuago dena, azterketa estatistikoek ez dute azaltzen zergatik hitzunak ordena bat besteak baino maizago edo gehiago erabiltzen duen. Hortaz, maiztasunaren aldean, iruditzen zait irizpide pragmatikoak baliagarriak gerta dakizkigukeela oinarrizko ordena hurrenkera kanonikoarekin lotzen badugu.

## 2.2. Oinarrizko hurrenkera eta sakoneko egitura

Puntu honetara heldu garela, lotura bat ezarri dugu ordena markatugabearen eta oinarrizko hurrenkeraren artean. Haatik, oinarrizko hurrenkeraren auziari beste ikuspuntu batetik hel dakioko: hain zuzen, oinarrizko ordena oinarrizko edo *sakoneko* egiturarekin lotuz.<sup>6</sup> Beste hitz batzuetan esanda, gure buruari egin diezaiokegun galdera da ea hurrenkera markatugabea oinarrizko egiturari dagokion ezinbestean, ala eratorria izan daitekeen. Edo nahiago bada, posible al da delako hizkuntza bat, SOA hurrenkera markatugabea izan arren, *oinarrizko* egituran, hots, eragiketa sintaktikoak gertatu aurretik, SAO izatea? Kayneren (1994) antisimetriaren hipotesiaren arabera erantzuna baiezkoa izan behar da; izan ere, egiturazko hurrenkera unibertsala *espezifikatzailea-burua-osagarria* dela defendatuko du (ikus 3. atala).

Nolanahi ere den, hizkuntza baten oinarrizko hitzordenak *sakoneko* edo *hasierako* egituraren ordena islatzen duela onartzeak ezin itzurizko ondorio enpirikoak ditu.

<sup>5</sup> De Rijkkek berak azalpen formalaz gain metodologia hau ere erabili zuen 1969ko lana idatzi zuenean. Haatik, lan horretan bertan zalantzan jartzen zuen estatistikak ezer argi zezakeenik euskararen oinarrizko hitz hurrenkeraren gainean.

<sup>6</sup> Gaur egun sintaxi teorian *A-egitura* eta *S-egitura* terminoak erabiltzen ez badira ere, batik bat Chomskyren (1995: 2. atala) lanean D-egituraren behar kontzeptualik ez dagoela erakutsi zuenetik, lan honetan *sakoneko egitura* aipatzen dugunean mugimendu sintaktikoaren aurretik dagoen egiturari erreferentzia egiteko erabiliko dugu.



Alde batetik, hizkuntzak ekonomiaren arauetara jarraitzen diela sinesten badugu, eta, hortaz, mugimendu sintaktikoak zerbaitek bultzatuak gertatzen direla onartzen badugu -eta ez eratorpen jakin bati irtenbidea emateko proposatuak-, arrazoi sendoak beharko genituzke oinarrian AO diren hizkuntzen kopuru handi batek (ia munduko hizkuntzen erdia) azalean OA bailiran jokatzeko dutela azaltzeko. Alegia, egin dezakegun galdera hau da: zein baldintzak edo tasunek bultzatzen dituzte hizkuntza hauek osagarria buruaren gainetik mugitzera, batik bat *ordena-gordetzaileagoak* diruditen AO hizkuntzekin erkatzen baditugu?

Beste alde batetik, kontuan izan behar da esan berri dugunak ez duela adierazi nahi ezinbestean orain arte OA hizkuntzak deitu direnetan mugimendu berak gertatzen direnik beti, ezta arrazoi berak daudenik proposatutako mugimenduen azpian ere. Izan ere, lehen ikusi dugunez (cf. (7a-b)), nederlandera edo alemana OA hizkuntzat hartzen diren arren, gainerako sintagmen egiturari begiraturaz gero preposiziodun hizkuntzak izatetik gertuago daudela esan daiteke. Hala dirudi, behintzat, euskararekin konparatzen baditugu. Zentzu honetan, baliteke hizkuntza hauetako azaleko OA egitura eratorria izatea. Halarik ere, hipotesi batoren edo bestearen artean hautatzeko datu enpirikoen aurka kontrastatu behar da beti ere.

Beste OA hizkuntza prototipiko baten adibidea japoniera dugu. Japonierak eredu *koherente*agoa erakusten du, ageriko sintaxian buru-azken baita sistematikoki:

- (17) Hanako-ga [Taroo-ga hon-o katta to] itta  
 Hanako-NOM Taro-NOM liburu-AKUS erosi-zuen Konp esan-zuen  
 ‘*Hanakok Tarok liburu bat erosi zuela esan zuen*’

(Miyagawa 2003)

Beraz, OA hizkuntza guztiak ez direla zertan era berean aztertu behar onartuta ere, argi dago AO ordenatik eratorriak balira legez tratatu behar badira, antisimetriaren hipotesiak defendatzen duenez, gutxieneko motibazioa beharrezkoa dela mugimenduak esplikatzen. Bestela, badugu arriskua datuak teoriaren makineriaren menpe jartzeko. Eta iruditzen zait alderantziz jokatu beharko litzatekeela.

Ildo honetatik, hipotesirik ekonomikoena ondokoa litzateke: hots, hurrenkera markatugabeen mugimendurik ez dela gertatu proposatzea (edo derrigorrezko mugimenduak besterik ez).<sup>7</sup> Hortaz, erakutsi badezakegu delako OA hizkuntzan *osagarria-buru* ordena

<sup>7</sup> Kasuak zilegiztatzeko mugimenduz ari naiz pentsatzen, bereziki.

aurkitzen dugula osagarria mugitzeko arrazoirik ez dagoenean, ordena hori oinarrizko ordenatzat jotzeko ebidentzia gisa erabili ahal izango dugu. Eta horrek, ondorioz, ezinbestean berarekin dakar buru parametroa existitu egiten dela.


### 3. Antisimetriaren argudioak eta galdera (irekia)k

Gorago aipatu denez, antisimetriaren hipotesiak ordena unibertsal bakarra *espezifikatzailea-burua-osagarria* dela defendatzen du, eta, hortaz, buru parametririk ez dagoela. Izan ere, teoria orokorra izateko asmoa duen hipotesi honen muinean oso harreman estua dago egitura hierarkikoaren eta hurrenkeraren artean, hitz katearen hurrenkera linealak egituraren hierarkia islatzen baitu *Egokitasun Linealaren Axioma* deritzonaren arabera (cf. Kayneren (1994) *Linear Correspondence Axiom*):

#### (18) *Egokitasun Linealaren Axioma*

- i. Perpauseko elementuak agertzen diren hurrenkera egiturazko hierarkiari dagokio; hortaz, *aurretik agertzeak* hierarkian gorago egotea adieraziko du.
- ii. Eman dezagun *b-d-g* hitz segida dugula. (18i)-ri jarraituz, *b-k d* o-komandatzen du asimetricoki, eta *d-k g* o-komandatzen du asimetricoki.

Ondorioz, hipotesi honen arabera, SOA hizkuntzetan O aditza baino gorago dago, *eratorritako posizio batean*. Objektua aditzaren ezkerretara dagoen espezifikatzaile gune batera mugitu ondoren iristen da posizio honetara, dela buruaren espezifikatzaile bertara (19a), dela goragoko buru funtzional baten espezifikatzaile mugitu ondoren (19b):



### 3.1. Zenbait argumentu antisimetriaren hipotesiaren alde

Eredu antisimetrikoak erantzuna eman diezaieke aspaldian ezagunak diren bi orokorpeni, hain zuzen, buru parametroaren finkatzearekin zerikusia duena bata, eta SOA hizkuntzen eta NZ-mugimenduaren arteko lotura bildu nahi duena bestea.

#### 3.1.1. Bitariko ereduak hizkuntza berean

Buru parametroa ontzat hartzen duten lanen deskribapenetatik atera daitekeen ondorioa da ez dagoela erabat *buru-azken* den hizkuntzarik (ez era uniformean, behintzat). Kayneren hitzetan, hau susmagarria da. Teoriak buru parametroa onartu behar badu, batek esperoko luke sistematikoki *burua-osagarria* ereduak agertzen duten hizkuntzak bezalaxe, sistematikoki *osagarria-burua* ordena erakusten duten hizkuntzak aurkitzea. Badirudi japoniera dela lekuko bakarra. Honen aldean, nederlandera, alemanak eta euskarak bitariko ereduak erakusten dute, maila berean ez bada ere.

*Nederlandera, alemana*: gorago aipatu dugunez, hizkuntza hauek *burua-osagarria* ereduari jarraitzen diote IS eta PrepS mailan, baina *osagarria-aditza* ereduari mendeko perpausetan (7a-b). Perpaus nagusietako SAO ordena A2 gertakari orokorraren albo-ondorio gisa azter daiteke, hots, aditz jokatua Konp-era mugitu ondoren sortzen den egituraren bidez (cf. Zwart 1993, Haegeman 1997, besteak beste).

*Euskara*: euskarari dagokionez, nederlandera eta alemana baino sistematikoagoa da buru parametroaren hautaketan, buru-azken baita adierazpen perpausetan perpaus mailan zein IS eta PS mailan (cf. besteak beste Goenaga 1984, Ortiz de Urbina 1989, Artiagoitia 1998, 2002 eta ondoko lanak), baina ezeztapen perpausak eta KonpS-rako mugimendua islatzen duten egiturak eratorzeko zenbait kategoria funtzional buru-lehen direla proposatu izan da: galderetako Konplementatzailea (cf. Ortiz de Urbina 1989, 1995, 1999), ezeztapena (cf. Laka 1990), Inflexioa (cf. Artiagoitia 1994), edota perpaus mailako kategoria funtzional gehienak (Konp, Denb, Ezeztapena (Elordieta 2001)):

- (20) a. Mikelek ez ditu zure gustuko sagarrak erosi (cf. \*Mikelek sagarrak erosi ditu ez)  
 b. Non erosi ditu Mikelek sagarrak? (cf. \*non Mikelek sagarrak erosi ditu?)

Hala ere, Ormazabalek (2007) dioenez, Konplementatzaile Sintagmak euskaraz arazo enpiriko eta teorikoa sortzen du, alde batetik mendeko adierazpen perpausetan buru

parametroa errespetatzen duela erakusten duelako (21a), baina, ikusi dugunez, galderetan (20b) eta foku egituretan burua ezkerretara dagoela iduri duelako:

- (21) a. [<sub>KonpS</sub>[<sub>InfS</sub>Peruk Mireni liburua ekarri zio(n)]la] esan didate [= (5) Ormazabal 2007  
 b. [<sub>KonpS</sub> Mireni ekarri zion [<sub>InfS</sub>Peruk liburua]] lanean]

Ormazabalek gogorarazten duenez, hipotesi antisimetrikoak azalpen bat eman diezaioke arazo honi:

(i) alde batetik, SOA hizkuntzetan ageri den *osagarria-burua* ordena (hots, perpausa-komplementatzailea) erraz azal daiteke InfS -hots, osagarria- KonpS-ren espezifikatzaile mugitu dela proposatuz gero.

(ii) bestetik, galderetan KonpS-ren espezifikatzailea NZ-galdetzailearekin dago jadanik beteta; beraz, InfS ezin da bertara igo, eta *in-situ* geratzen da.

### 3.1.2. OA hizkuntzak eta NZ-mugimendurik eza

Hain zuzen ere, antisimetriaren hipotesiak ebidentziatzat erabili duen beste argudioa NZ-mugimenduarekin dago lotuta, baina ez guk aurreko paragrafoan esan dugunagatik, baizik eta kontrako orokorpen bat azaltzeko asmoarekin. Orokorpena tipologikoa da: SOA hizkuntza (gehien)ek ez dute NZ-mugimendurik erakusten (Greenberg 1963, Bresnan 1972, besteak beste). Ikusi berri dugunez, Kayneren sisteman mugimendu eza espero izatekoa da [Esp, Konp] beteta dagoelako InfS-rekin. Ondorioz, NZ-hitza ez da mugitzen.

Bitxia dena zera da: euskarak bat egiten duela gainerako SOA hizkuntzekin *perpausa-komplementatzailea* ordenari dagokionez, baina halarik ere, NZ mugimendua du, besteek ez bezala.<sup>8</sup> Hau da, antisimetriaren hipotesiak ez du azalpenik eskaintzen euskararen portaera *hibridoarentzat*.


Azalpen erraza ez duela onartuta ere, Ortiz de Urbinaren (1999, 2008) proposamenak irtenbide taxuzkoa eskaintzen dio euskarazko KonpS-ren arazoari. Rizziren (1997) lanean oinarrituta, KonpS kategoria-multzoaren azpian hainbat kategoria desberdin daudela onartzen du eta euskararen kasua aztertzen du, batik bat zehar galderei erreparatuz. Rizziren proposamenean InfS-tik gorako ezkerreko periferian hainbat kategoria funtzional daude:

<sup>8</sup> Ikus Ormazabal, Uriagereka & Uribe-Etxebarria (1994, 2008) arazo honi irtenbidea emateko proposamen baterako.

TopS, FokuS, Jokotasun Sintagma (JokS), Indar Sintagma (IndS), eta hierarkia baten arabera ordenatuta daude:

(22) IndS > TopS > FokuS > (TopS) > JokS

Ortiz de Urbinak (22)-ko egiturak euskararako balio duela erakusten du, hain zuzen ere *ea* partikularen funtzio eta kokagunea aztertzeke balio duelako (bere proposamenean *ea* IndS-ren burua da), eta baita *-ela/-en* mendeko perpausen konplementatzaileek erakusten duten kokagunearen arazoari irtenbidea emateko ere. Guk buruen kokagunearen kontu honi helduko diogu, berori baita buru parametroari dagokionez interesatzen zaiguna. Izan ere, Ortiz de Urbinak proposatzen du IndS, TopS, eta FokuS buru-lehen diren arren, JokS buru-azken dela, InfS den bezala. Sintagma hau perpausaren [ $\pm$ jokatua] tasunarekin dago lotua, eta, seguru asko, *-ela/-en* konplementatzaileen kokagunea da. Ondoko irudikapenean argiago ikus daiteke proposatutako egitura zein den:



Egitura hau ontzat jotzeak berarekin dakar buru parametroa beharrezkoa dela, *osagarria-burua/burua-osagarria* bi motako egiturak proposatzen baitira.<sup>9</sup> Egitura *hibridoak* proposatzea ez da agian gogobetekoa, baina bestalde, kontuan izan beharko genuke *espezifikatzailea-burua-osagarria* hurrenkera unibertsalak ere ezin dituela euskarak erakusten duen arazo hau ez ondoren aipatuko ditugun hainbat kontu azaldu.

<sup>9</sup> Era berean, Elordietak (2001) proposatzen du buru parametroa kategoria lexiko (*osagarria-burua*) vs. funtzionalen (*burua-osagarria*) arteko bereizketarekin batera aldatzen dela euskaraz.

### 3.2. Antisimetriaren sisteman azalkizun geratzen diren zenbait kontu

3.2.1. Antisimetriaren hipotesia bide zuzenetik badoa, tipologikoki nahiko era berdintsuan banatuta dauden OA eta AO hizkuntzek (eta are ASO hizkuntzek) zergatik erakusten duten ordena eta jokabide desberdina azaldu beharko du, oro har. Azken batean, hizkuntza guztiek [espezifikatzailea-burua-osagarria] ordenatik hasten badute eratorpen sintaktikoa, SAO eta SOA hurrenkera kanonikoak nola eratortzen diren argitu beharko du.

3.2.2. Are gehiago, kontuan izanik buru parametroari dagokionez hizkuntza batzuek ez dutela eredu bat eta bera erakusten beren barne sisteman, baizik eta kasu batzuetan [burua-osagarria] eta besteetan [osagarria-burua] ereduari jarraitzen diotela, antisimetriaren hipotesia aintzat hartzen dutenek azaldu egin beharko dute zergatik mugitu behar duten osagarriek *nahitaez* buruaren gaineratik [osagarria-burua] ordena erakusten duten kasuetan. Izan ere, kontua orokorragoa da: hipotesiaren on-txarrak bere neurrian balioesteko, nabari da mugimendurako motibazioak zehaztu behar direla; orduan bakarrik izango gara gai hipotesia teorikoki zein enpirikoki frogatzeko. Bestela, hipotesia teoriaren tresna gisa hartzeko arriskuan eror gaitezkeela iruditzen zait.

3.2.3. Modu berean, teoriak sintagma egiturak eratzerakoan [espezifikatzailea-burua-osagarria] ordena unibertsal bakarra onartzen badu, espero izatekoa da [burua-osagarria] jatorrizko ordenaren zantzuak agertuko direla zenbait egituratan, batez ere osagarriak zertan mugitu ez duenean. Zehatzago esanda, DetS objektuek kasua zilegiztatzeko AS-tik kanpo mugitzen direla onartzen badugu, kasua behar ez duten hainbat sintagmaren jokabide eta kokapen sintaktikoaz baliatu ahal izango gara bi hipotesiek egiten dituzten iragarpenak erkatu eta bere neurrian balioesteko. Mota horretako egiturak dira, besteak beste, *barre egin* gisako egiturak euskaraz, osagarri postposizionalak, moduzko adberbioen eta osagarriaren arteko hurrenkera, esamolde idiomatikoak edota perpaus osagarri jokatuak eta jokatugabeak. Ondoko ataletan aztertuko ditugu banan-banan.

## 4. Bi hipotesiak datuen aurrean

### 4.1. *Izena+egin* egiturak

Hasteko, konparatu ondoko perpausak:




- (24) a. Liburu zaharrenak goiko apalategian utzi ditut (ordena neutroa)  
 b. Goiko apalategian liburu zaharrenak utzi ditut (ordena markatuagoa, DetS fokua, PostS topikoa)  
 c. Film horrekin negar egin dut (ordena neutroa)  
 d. ?? Negar film horrekin egin dut (onargarria baldin eta IS topikalizatuta badago eta PostS fokua bada)

Kontraste nabaria dago (24a-b)-ren eta (24c-d)-ren artean DetS-ren eta PostS-ren hurrenkerari dagokionez. *DetS-PostS* ordena da markatugabea (24a)-n, baina alderantzizkoa *negar egin* motako egituretan, (24c)-n ikus daitekeenez. Laka (1993), euskarazko aditz ezergatiboak aztertzen ari zela, kontraste honetaz ohartu zen, eta Kasu Teoriaren bidezko azalbide erraz bezain konbentzigarria proposatu zuen. Haren proposamenean, DS-ak euskaraz AS-tik kanpo mugitzen dira kasua jasotzeko, eman dezagun AspS-ren espezifikatzaile gunera (cf. (25)), baina *negar* gisako sintagmak *in situ* gelditzen dira, ez baitira DetS-k, IS hutsak baizik. Kasua DetS-k soilik jasotzen dutela onartzen badugu (Torrego 1998, Uriagereka 1992, Chomsky 1995:2. atala), IS hutsek ez dute kasua jasotzen, eta, hortaz, ez dute zertan mugitu (cf. (26)).<sup>10</sup>

Proposamen honen ildotik, azter ditzagun (24a-d)-ko datuak bi hipotesien argitan. (24a-b) adibideetan DetS objektua AS-tik kanpo mugitu da kasua jasotzeko (eta (24b)-n gainera PostS DetS-ren gainera mugitu da DetS foku interpretazioa jaso dezan (cf. Elordieta 2001)). Datu argigarriena (24c-d)-k erakusten dute. Gorago esan dugunez, *negar IS in situ* badago (24c) adibidean, eta kontuan izanik aditzaren ezkerrean agertzen dela, hipotesirik sinpleena IS aditzaren ezkerretara *sortzen* dela esatea izango litzateke. Alegia, buru parametroaren arabera *buru-azken* dela. Antisimetriaren hipotesia onartzeak, berriz, IS mugitu egin dela dakar berarekin, PostS eta AS-ren artean legokeen kategoria funtzional baten espezifikatzaile gune

<sup>10</sup> Izan ere, nederlandera, turkieraz eta hindieraz ere AS-barnean gelditzen diren argumentuen eta AS-tik kanpo ateratzen diren argumentuen arteko bereizketa sintaktikoa proposatu izan da, hizkuntza hauetan bereizketak espezifikotasunarekin (*specificity*) lotura badu ere (ikus, besteak beste, de Hoop 1992, Enç 1991, Mahajan 1992).

batera, hain zuzen (cf. (27)). Mugimenduaren motibazioa zein den, haatik, ez da erraz azaltzen:






### 4.2. Osagarri postposizionalak

Era berean, argumentuak diren PostS-ak euskaraz aditzaren ezkerrean agertu ohi dira testuinguru neutroetan:

- (28) a. Zuzendariak batzar nagusira joan dira (ordena neutroa)
- b. Zuzendariak joan dira batzar nagusira (ordena markatua, subjektua fokua da)

PostS-ek ez badute kasua jaso behar, ikuspuntu antisimetriko batetik PostS aditzaren eskuinean agertzea esperoko genuke ordena ez-markatuan, ez ezkerretara. Buru parametroa onartuz gero, aldiz, erraz azaltzen da (28a)-ren ordena.

Antisimetriaren hipotesiaren barruan bada AS-ren barneko elementuen “alderantzizkatutako ordena” azaltzeko beste biderik, jakina; AS-ren hondarkinaren mugimenduaren bidez, hain zuzen. Izan ere, Haddicanen (2004, 2008) lanak ildo hau jorratzen du euskarazko ordena neutroak eta ezezko perpausak eratoritzeko ikuspegi antisimetriko batetik. Irakurleak liburu honetan bertan dauka Haddicanen lanaren berri zehaztasun osoz irakurtzeko aukera, beraz, ni hemen (28) moduko datuak haren analisisian nola molda daitezkeen aztertzea mugatuko naiz. Haddicanen proposamenean, adierazpen perpausak eratoritzeko AS PolS-ren espezifikatzaileira igotzen da, argumentuak eta AS barneko material osoa garraiatuz, hauek lehenik KasuS-ren espezifikatzaileetara igo ondoren:



Analisi honek hasiera baten [S-O-A-Lag] gisako ordenaren eratorpena azaltzen duela badirudi ere, ez du azalpen errazik eskaintzen PostS osagarrirei dagokienez. Izan ere, DetS

argumentuak KasuS-etara mugitzen direla onartuta ere, AS-ren hondarkinaren mugimenduaren ondoren gainerako AS-ren barruko osagaiak dauden-daudenean mugitzea espero genuke, hots, aditzaren ondoren agertzea ordena neutroan. Datuek, aldiz, bestela erakusten dute: hurrenkera markatugabeen PostS aditzaren ezkerrean dago (28a); aditz jokatuaren ondoren ageri denean (cf. (28b)), foku irakurketa dakar ezinbestean. Edonola ere, arazoa konplexuagoa da: irakurketa markatua edo neutroa izan, azpimarratzekoa da PostS ez bada AS-tik mugitzen, (29)-ko irudikapenean oinarrituta ez dagoela modurik PostS [aditza-laguntzailea] segidaren ondoren agertzeko, espero genukeena [aditza-PostS-laguntzailea] litzatekeelako. Izan ere, Haddicanen proposamenean ordena hauek eratorzeko buru mugimendua ez, baizik eta sintagma mugimenduak gertatzen direla proposatzen du, “roll up” edo “elur pilota” (Beñat Oyharçabal 2007) mugimenduaren bidez. Sistema horren arabera, (30) gisako perpausak sortzeko *denda horretan* PostS eta *gaur* adberbioa AS-tik atera behar dira AS PolS-ren espezifikatzaile gunera igo aurretik. Nora eta zergatik mugitzen diren, haatik, azalkizun dago:

(30) Mikelek erosi du denda horretan gaur

### 4.3. Moduzko adberbioak

Moduzko adberbioen jokabidea ere esanguratsua da buruaren parametroaren auzi honetan. Moduzko adberbioak AS-ri atxikitzen zaizkiola onartzen badugu, eta halaber adberbioek kokagune finkoa dutela perpaus egituran, adberbiook balia ditzakegu AS-ren barruko elementuak AS-tik kanpo mugitu diren ala ez zehazteko, AS-ren ezkerreko muturra non dagoen markatzen baitute (cf. Costa 1998, Elordieta 2001). Hau horrela izanda, azter ditzagun ondoko perpausak:

- (31) a. Ikasleek hizkuntzalaritzako azterketa txarto egin dute (neutroa)  
 b. ??Ikasleek txarto *hizkuntzalaritzako azterketa* egin dute (oso markatua, O=fokua)  
 c. Athleticek Getaferen aurka gogor lehiatu behar du (markatugabea)  
 d. ??Athleticek gogor *Getaferen aurka* lehiatu behar du (oso markatua, PostS=fokua)


(31a) eta (31c) perpaus neutroek DetS zein PostS osagarriak AS baino gorago daudela erakusten dute, adberbioaren aurretik ageri baitira. Hizkuntzalari gehienak bat etorriko

ginateke DetS-ren mugimenduaren arrazoa kasuarekin lotzearekin, baina PostS-rena, bistan da, arazotsua da. Kontuan izan ingelesez badela kontrastea adberbioaren eta osagarriaren arteko hurrenkeran, osagarriaren kategoria nolakoa den. Hain zuzen, hori da espero daitekeena:

- (32) a. \*John looked at those pictures hard
- b. John looked<sub>i</sub> [<sub>AS</sub> hard t<sub>i</sub> at those pictures]
- c. John read<sub>i</sub> the book<sub>o</sub> [<sub>AS</sub> well t<sub>i</sub> t<sub>o</sub>]
- d. \*John read [<sub>AS</sub> well the book]

Ingelesez aditza Denborara (edo AS eta DenbS-ren arteko kategoria funtzional batera) mugitzen dela onartuz gero (cf. Johnson 1991, Pesetsky 1989), (32)-ko datuak erraz azaltzen dira. (32a) ez dago ongi eratua ingelesez intonazio neutro batez ahoskatuz gero, PrepS-ak *in situ* geratu beharko lukeelako, (32b) perpaus gramatikalak erakusten duenez.<sup>11</sup>

Euskarazko PostS-ek erakusten duten ezohiko jokabideak azalpidea izan dezake Larson-en (1988) proposamena onartzen badugu. Izan ere, Larsoni jarraituz, hainbatek proposatu dute moduzko adberbio hauek adjuntu gisa baino osagarri gisa txertatzen direla perpausean (cf. baita ere Kayne 1994, Chomsky 1995, Elordieta 2001). Bide hau zuzena bada, (31)-ko datuak zuzenean azal daitezke buru parametroa onartzen badugu:



Aitzitik, *aditza-osagarria* jatorrizko hurrenkera batetik abiatuta, nekez uler daiteke zergatik ez den kontrasterik (31a) eta (31c) artean, ezta zergatik den (31d) hain markatua ere –

<sup>11</sup> Nolanahi ere, aipatu behar da (32a) moduko perpausak onargarri izan daitezkeela baldin eta moduzko adberbioak azentu markatua badarama, alegia:

(i) John looked at those pictures HARD

Baina lan honetan foku egiturak azterketatik kanpo utzi ditugu, ezin baitute oinarritzko hurrenkeraz argi asko eman.

hiztun gehienentzat nahiko aldrebesak dira (31b,d)-,<sup>12</sup> printzipioz egitura horretan adberbioa *in situ* bailegoko.<sup>13</sup>

Honekin lotuta azentu nagusiaren kokapenaren kontua dugu. 2.1.1 atalean ikusi dugunez, azentu nagusiaren algoritmoaren arabera, perpaus neutroetan azentu nagusia *in situ* ezartzen da, hots, “kosturik gabea” edo ekonomikoa da, eragiketa berezirik eskatzen ez baitu (ikus Cinque 1993, Reinhart 1995, Reinhart eta Neeleman 1998). Hasierako ordena *aditza-osagarria* balitz, azentu nagusia aditzaren osteko PostS-an (cf. 34a) edo adberbioan (cf. 34b) joatea esperoko genuke, (15)-eko orokorpenaren arabera. Baina ez da hala. Kontrara, aditz aurreko osagaiak darama azentu nagusia. Aldiz, buru parametroa badela onartuz gero, eta, ondorioz, azentu nagusia alde errekursiboan ezartzen dela onetsiz, datuak modu errazagoan azal daitezke.<sup>14</sup>

- (34) a. Athleticek jokatuko du Getaferen aurka  
 b. Ikasleek azterketa egin dute txarto

#### 4.4. Perpaus osagarri jokatugabeak

DetS osagarriak eta PostS osagarriak bezala, osagarri funtzioa duten perpaus jokatugabeak aditz jokatua ezkerretara agertu ohi dira:

- (35) a. Amaiak [kartetan jokatzen] ikasi du (ordena neutroa)  
 b. Amaiak ikasi du [?jokatzen kartetan] (ordena markatua, subjektua fokua)

<sup>12</sup> Izan ere, hiztunak osagarria fokalizatzeko bestelako estrategietara jotzea nahiago du, esaterako, adberbioa aditz jokatua ondoan kokatzera:

(i) Ikasleek hizkuntzalaritzako azterketa egin dute txarto

<sup>13</sup> Halaber, adberbioen kokaguneekin bestelako arazoak dituzte Haddicanek bezala AS-ren hondarkinaren mugimendua proposatzen duten lanek. Alde batetik, Haddicanen analisis funtsezkoa da AS-ren gaineko kategoria funtzional guztien espezifikatzaileak hutsik egotea, AS-ren espezifikatzailez espezifikatzaileko mugimendua ahalbidetzeko (mugimendu bakoitzean hondarkinak eramanaz; hortik dator “elur pilota” efektua). Baina bestetik, Cinquek (1997) proposatutako perpaus egitura onartzen duenez, ez da erraz ulertzen non kokatzen dituen adberbioak bere analisis. Gogoan izan Cinqueren proposamenean adberbioak kategoria funtzionalen espezifikatzaile guneetan sortzen direla. Baina Haddicanen analisis gune horiek hutsik egon behar dira, aipatu dugun arrazoiagatik. Hortaz, edo kategoria funtzional gehiago proposatu behar dira adberbioei sorgunea emateko, edo hondarkinaren mugimenduaren analisia ez da zuzena, eta bestela azaldu behar dira “alderantzikatutako” hurrenkerak.

<sup>14</sup> (34a-b) perpausetako ordenaren eratorpena aski konplexua da, foku egiturak baitira, baina egitura horiek lan honen mugetatik kanpo daude. Hala ere, interesa duen irakurleak Elordietaren (2001:4. kapitulua) lanera jo dezake proposamen baterako.

*-tzen* motako perpaus jokatu-gabeek ez dute kasua jasotzen;<sup>15</sup> beraz, ikuspegi antisimetrikotik batek testuinguru neutroetarako espero izango lukeena *aditza-osagarri* hurrenkera litzateke, eta ez (35a)-n daukaguna. Bide batez, ohar bedi mendeko perpaus jokatu-gabeen ere *osagarria-aditza* hurrenkera aurkitzen dugula. Izan ere, alderantzizko ordenak perpausaren onargarritasun maila ahultzen du. Alde horretatik, ikuspegi antisimetrikotik zail gertatzen da (35a-b) perpausetako hurrenkerak azaltzea. Buru parametroa onartuz gero, aitzitik, inolako mugimendurik ez da proposatu behar (35a) hurrenkera neutroa eratortzeko.

#### 4.5. Esamolde idiomatikoak

Bi hipotesiak aurrez aurre balioesteko erabil daitekeen beste argudio bat esamolde idiomatikoaren hurrenkera da. Esamolde idiomatiko gehienak [osagarria-aditza] motakoak dira, osagarria IS (36a), DetS (36b) edo PostS izan daitekeelarik (36c):

- (36) a. lur jo, porru egin  
 b. hesteak bota, adarra jo  
 c. gainez/gainezka egin, X-en onetik/senetik atera

Esamoldeek erakusten duten ordena beti da (36) adibideetan ageri dena, alegia, [osagarria-aditza]. Forma hauek, gainera, ihartuak dira, eta espero daiteke oinarritzko ordena agertuko dutela. Hala ere, [aditza-osagarria] ordena ez da sekula aurkitzen esamolde idiomatikoetan, ezta DetS ez diren kasuetan ere (36a,c).

Buru parametroa onartzen badugu, datuek azalpen erraza dute; ikuspuntu antisimetrikotik, aldiz, berehalako motibaziorik ez duten mugimenduak proposatu beharko lirateke. Gorago aipatu dugunez (ikus sarrera atala eta 2.2 atala), datuak azaltzeko gai den hipotesirik sinpleenaren alde egin behar dela uste dut.

#### 4.6. Aditza aurreratzea

Ondoren Aditz Sintagmaren aurreratzea deritzon mugimenduari erreparatuko diogu, osagarriaren eta buruaren arteko ordenak eztabaidara zerbait interesgarri ekar dezakeen aztertzeke asmoz. Datuek OA ordena zurrana erakusten dute:

<sup>15</sup> Nominalizazioak alde batera uzten ari naiz, hauek DetS-ak badira bestelako jokabidea baitute (ikus Artiagoitia 1994, Zabala eta Odriozola 1996).

- (37) a. Ardo ona erosi, Julenek sarritan egiten du  
 b. \*Erosi ardo ona, Julenek sarritan egiten du

Perpauaren hasierara mugitu den osagaiaren kategoria AS bada, beti [osagarria-burua] ordena aurkitzea ebidentziazat erabili ahal izango dugu buru parametroaren alde. Hala ere, bistan da, datuak esanguratsuak izan daitezen nolabait frogatu egin beharko litzatekeela (37a) adibidean mugitzen dena AS dela, eta ez goragoko islapen funtzional bat (esaterako, AspS edo KasuS, Haddicanen harira). Bestela, eredu antisimetrikoaren barruan (37a)-ko ordena erraz azal daiteke objektua gora igo bada kasua zilegiztatzera. Berriro ere, bestelako osagarriak erabil ditzakegu test gisa:

- (38) a. Kartetan jokatu, Julenek sarritan egiten du  
 b. \*Jokatu kartetan, Julenek sarritan egiten du

Ordena zurruna OA da hemen ere; euskararen ordena [osagarria-aditza] bada, (37)-(38)-ko datuak zuzenean azaltzen dira. Aitzitik, ordena [aditza-osagarria] bada, motibazio gutxi duten ezkeralderako mugimenduak proposatu beharko lirateke hurrenkera egokien berri emateko.

#### 4.7. Ezeztapenaren eta partikula ebidentzialen arteko besarkaduraz


Atal honekin bukatzeko, ikuspegi antisimetrikoa onartzen duen Haddicanen analisiari aitortu behar zaio lehena dela ezeztapenaren eta *omen* partikula ebidentzialaren arteko besarkadura irakurketari erantzun egokia ematen. Izan ere, bi elementuak perpau berean agertzen direnean, *omen* partikulak ezeztapenaren gainean hartzen du besarkadura, hurrenkera linealean ezeztapena gorago ageri bada ere:

- (39) Ez omen zuten hil, baina egiatan hil egin zuten (omen>ez)

Ezeztapena *omen*, *ei* gisako partikulen gainetik irudikatzen duten analisek (Laka 1990, Elordieta 2001) ezin dute besarkaduraren berri eman, ezeztapena bera buru-lehen irudikatu arren (eta *omen* moduzko partikula buru-azken). Ebidentziala ezeztapena baino gorago irudikatzeak ere ez du arazoa konpontzen, hurrenkera [ez-omen-laguntzailea] baita.<sup>16</sup>

<sup>16</sup> Ikusi Haddican (2004) ulertzeko zergatik den bere analisisia G. Elordietaren (1997) analisi antisimetrikoa baino hobea.

Haddicanen proposamena ulertzeko, irakurleak hiru ideia nagusi izan behar ditu gogoan: (a) bere analisisan [Aditza-(omen)-laguntzailea] ordena AS PolS-ren espezifikatzaileira igo ondoren eratortzen da; (b) [ez-(omen)-laguntzailea] hurrenkera ez PolS-ren espezifikatzaileira igo ondoren eratortzen da; (c) mugimendu guztiak sintagma mailakoak dira. Egileak berak aztertzen duenez kontu hau xehetasun gehiagorekin liburu honetan, ez naiz hemen luzatuko aurrekariak aurkezten. Edonola ere, irakurleari lagungarri gerta dakiokoe gogora ekartzea zein den Haddicanen (2004) perpaus egituraren proposamena:



(40)-ko irudikapenean ikus daitekeenez, ezezkoetan ez PolS-ra igotzen da sintaxian, baina “sorgunean” berreraiki daiteke besarkadura kontuetarako. Horregatik har dezake ebidentzialak ezeztapenak baino besarkadura zabalagoa.

#### 4.8. Nola azaldu foku egituren ordena

Artikulu honetan foku egituren hurrenkera aztertuko ez badugu ere, aipatu behar da (40) adibideko irudikapen sintaktikoak ezin duela azaldu foku egituretan fokalizatutako osagaiak eta aditz jokatuak erakusten duten albokotasun nahitaezkoa. Hau da, [aditza-laguntzailea] ordena Aditz Sintagma PolS-ren Espezifikatzaileira igotzearen ondorio bada, nola bazter daiteke (41):

(41) \*<sub>[FocS]</sub> Mikelek <sub>[PolS]</sub> liburua ekarri <sub>[DenbS]</sub> du ]

Alegia, nola berma dezake AS-ren mugimendua proposatzen duen analisiak Fokua/NZ hitza sintagmaren ondoren AS osoak ez, baizik eta [Aditza+asp+Lag] agertu behar duela? Sistema honetan, hurrenkera egokia eratoritzeko, AS igo aurretik AS-ren barruko osagai guztiak atera behar dira lehenik. Beste behin ere, bilatzen ditugun hurrenkerak eratoritzeko hainbat mugimendu proposatu behar dira ikuspegi honetan, mugimenduon helmugak eta motibazioa oraindik argitzeke daudelarik.<sup>17</sup>

## 5. Bi hipotesien aurrean arazoak planteatzen dituzten zenbait kasu

### 5.1. Perpaus osagarri jokatuak

Aurreko ataletan analisi antisimetrikoa eta buru parametroaren existentzia defendatzen duen analisisa kontrajarri ditugu hainbat daturen aurrean azalpen egokiena zeinek eskaintzen duen zehaztu nahian (*egokia sinpletasunarekin* lotuta ulertu beharko litzateke hemen). Haatik, badira beste datu batzuk ez analisi bataren ez bestearen bidetik azalpen errazik aurkitzen ez dutenak. Kasurik ezagunena perpaus osagarri jokatuaren banaketa sintaktikoarena da.

Artikuluan zehar hainbat aldiz adierazi dugunez, testuinguru neutroetan euskaraz  $SO_{\text{Det}SA}$  da hurrenkera markatugabea (ikus (43)), baina perpaus osagarri jokatuaren kasuan, testuinguru berean bi ordenak dira zilegi:  $SO_{\text{Konp}SA}$  nahiz  $SAO_{\text{Konp}S}$ , ondoko adibideek erakusten duten bezala:

- (42) a. Amaiak [dantzan ikasten ari dela] esan dit (markatugabea)  
 b. Amaiak esan dit [dantzan ikasten ari dela]<sup>18</sup> (markatugabea)  
 cf.:
- (43) a. Amaiak [dantza garaikidea] ikasten du (markatugabea)  
 b. Amaiak ikasten du [dantza garaikidea] (markatua)

Ohiko azterbidearen arabera, KonpS-ek ez dute kasurik zilegiztatu behar. Beraz, hipotesi antisimetrikoaren ikuspuntutik, (42b)-k erakusten duen ordena esperoko genuke. Kontua da

<sup>17</sup> Beste aukera bat XS mugimenduaren ordez  $X^0$  mugimendua gertatzen dela esatea litzateke, ohiko analisiak proposatu dutenaren antzera (cf. Ortiz de Urbina 1989 eta ondorengo lanak). Baina orduan Haddicanen proposamena hankaz gora jarriko litzateke, bere analisisan funtsezkoa baita buru mugimendua ez, baizik eta XS mugimendua gertatzen dela erakustea.

<sup>18</sup> Zenbat eta luzeago mendeko perpausa, hainbat eta joera handiago aditz jokatuaren atzetik agertzeko. Bestalde, badirudi mendeko perpausaren eta perpaus nagusiaren subjektuak desberdinak direnean ere joera aditzaren atzetik jartzekoa dela. Agian prozesamendu kontuek eragiten dute.



hurrenkera horrez gain, perpaus osagarria *esan* aditzaren aurretik ere agertu ohi dela, perpausaren foku interpretazioan inolako eraginik egin gabe. Ordena hau KonpS-ren ezkererako mugimendu baten bidez azalduko bada, zergatik mugitzen den azaldu beharko litzateke, ez baitago argi zerk mugiarazten duen. Era berean, buru parametroa defendatzen duen analisi batentzat ere (42)-ko datuak arazo dira, arrazoi beragatik –abiapuntutzat hartzen den ordena gorabehera–, alegia, oinarrizko ordena [mendeko perpausa-aditza] dela esaten badugu, DetS diren osagarriekin paralelismo osoa eginez, ez da erraza azaltzea zergatik KonpS aditzaren eskuinetara agertzen denean ez duen foku interpretazioan eraginik, DetS osagarriekin gertatzen ez den bezala (42b). Analisi bata zein bestea hartu, KonpS-ren banaketak azalpena eskatzen du ordena markatugabe bi baitira zilegi, aditz jokatuaren ezker zein eskuinera ager daitekeelarik; beste osagarrien kasuan, ordea, aditzaren zein aldetan agertu eragin zuzena du perpausaren informazio antolakuntzan. Kontuak badu bere garrantzia, mugimenduaren hautazkotasuna arazoa baita minimalismoan.<sup>19</sup>

## 5.2. Perpaus osagarrietatik ateratzen (Ormazabal et al. 1994, Vicente 2004, 2008)

Ormazabal, Uriagereka eta Uribe-Etxebarria (1994, 2008) (42)-ko adibideen bidez erakutsi dugun perpaus osagarrien banaketa sintaktikoa aintzat hartu dute beraiek defendatzen duten antisimetriaren hipotesiaren alde egiteko. Argudioa honela labur daiteke: 5.1 atalean adierazi denez, adierazpen perpausetan perpaus osagarriak aditzaren eskuinean nahiz ezkerrean ager daitezke hurrenkera markatugabe; halarik ere, mendeko perpausetik zerbait mugitu nahi dugunean, asimetria garbiarekin egiten dugu topo:<sup>20</sup>

- (44) a. Zer ez duzu entzun [t irakurri duela Jonek]?  
 b. \*Zer ez duzu [t irakurri duela Jonek] entzun?

<sup>19</sup> Elordieta (2002) lanean DetS osagarriek eta *-ela* perpausak kokapen desberdina dutela proposatzen da, Barbiere-en (2000) ideia bati jarraikiz. Hain zuzen, *-ela* perpausa (42)-eko kasu bietan *in situ* dagoela proposatzen da, baina aditz jokatu da perpausaren gainetik mugitzen dena (42b) tankerako egituretan. Nolanahi ere, proposamen honek testuan aipatu dugun arazo bera du, aditzaren mugimendua bera ere hautazkoa litzatekeelako, ez baitu eragin semantikorik.

<sup>20</sup> Ormazabal eta besteek (1994) darabiltzaten datuak bestelakoak dira:

- (i) Nor uste duzu Jonek *esan* duela [t etorriko dela]?  
 (ii) \*Nor uste duzu Jonek [t etorriko dela] *esan* duela?

Hala ere, pentsa daiteke (ii) baztertuko lukeen bestelako azalpenik, ezaguna baita mota honetako NZ-mugimendu luzeetan hiztunarentzat naturalagoa dela mugimenduan zehar gurutzatzen diren perpaus guztietako aditza aurreratzea.

- (iii) Nor uste duzu [esan duela Jonek [t etorriko dela]]?  
 (iv) Nor uste duzu [t etorriko dela] *esan* duela Jonek?

(iv)-ko adibidea onargarria bada, orduan Ormazabal eta besteek proposatzen duten analisisa berrikusi egin beharko litzateke. Testu nagusian txertatu ditudan (44)-ko adibideek ez dute (i-ii)-ren arazoa sortzen.

Ormazabal eta besteen iritziz (cf. baita ere Vicente 2004, 2008), ateraketa ezinezkoa da (44b) adibidean “izozte efektua” gertatu delako (Ross 1967, Wexler and Culicover 1980, Müller 1998 eta Stepanov 2001); beste hitz batzuetan esanda, [A-KonpS] egitura batetik abiatuta, mendeko perpausetik ateratzea posible da KonpS *in situ* badago, alegia, ez bada aditza baino gorago mugitu. Hain zuzen horixe litzateke (44a)-ren eratorpena. Aitzitik, KonpS aditzaren ezkerretara mugitu bada, gero ezin da ezer atera mugitutako sintagmatik, *irila efektua* eraginez.

- (45) a. Zer<sub>i</sub> ez duzu entzun [t<sub>i</sub> irakurri duela Jonek]?  
 b. \*Zer<sub>i</sub> ez duzu [t<sub>i</sub> irakurri duela Jonek]<sub>p</sub> entzun t<sub>p</sub> ?

Badirudi (44)-ko adibidean ikusten den kontrastea azaltzeko bidea eskaintzen duela [A-KonpS] ordenatik abiatzeak. Dena den, datu gehiago aintzat hartzen baditugu, azalbide horrek sendotasuna galtzen du, zenbait perpaus jokaturik zein jokaturigabek “izozte efektu” ahulagoak edo bat ere ez erakusten dituztelako:

- (46) a. ?Nora entzun duzu [t eramateko] eskatu diotela?  
 b. Norekin pentsatu duzu [t ezkondu behar naizela] agindu didatela?

Beraz, atal honetan eztabaidatu dugun auziak agerian uzten du perpaus osagarrietatik ateratzeak eta honek dituen murrizketak azterketa sakonagoa behar duen kontua dela. Datuak dauden-daudenean aintzat hartuta, behintzat, ez dut uste antisimetriaren hipotesiaren alde egiteko argudio gisa erabil daitezkeenik.

## 6. Ondorioak

Artikulu honetan euskarazko hitz hurrenkera markatugabea buru parametroaren bitariko bertsio bat erabiliaz azal daitekeela erakusten saiatu naiz, eta, hortaz, oinarrizko hurrenkera ere buru parametroaren beharra dagoela defendatu dut: AS-ren gaineko kategoria funtzionalek *burua-osagarria* ordena dute, eta lexikoek, aldiz, *osagarria-burua* ereduari jarraitzen diote.

Proposamen honek unibertsalak diruditen zenbait gertakariren berri ematea ahalbidetzen du: periferiarako mugimendua ezkerretara da, buru funtzionalen tasunak zilegiztatzeko betebeharrak hala eskatzen duelako. Aldi berean, buru parametroa mantentzeko islapen funtzionalik behar ez duten egitura ‘txikiagoek’ nahiko sistematikoki erakusten duten [osagarria-burua] ordena azaltzeko, ez baita horretarako mugimendu gehigarri edo *estrarik* behar. Hau erakusten saiatu naiz 4. atalean.

Azterbide antisimetrikoak datu batzuk hobeto esplikatzen baditu ere (cf. *omen>ez*), beste hainbat datu azaltzeko motibazioz ez edo gutxi duen mugimendu-makineria proposatzera bultzatzen duela iruditzen zait.<sup>21</sup> Auziaren koska teoria oso murriztailea izateari ematen diogun balioaren neurrian egon daiteke: ezagun da teoria batek, orokorra izan nahi badu, murriztailea izan behar duela; baina ez luke datuek erakusten dutena albo ondorio gisa hartu behar. Izan ere, hipotesiak eraikitzean datuek eta teoriak elkarrekin uztartu behar dute, biak baitira elkarren osagarri (eta ez bata bestearen morroi). Zentzu honetan, hemen aurkeztu ditudan zenbait datu [osagarria-burua] ordenatik abiatuta modu erraz eta sinpleago batean azal daitezkeela erakusten saiatu naiz.

### Aipamen bibliografikoak

- Arregi, Karlos. 2006. “Stress and Islands in Northern Bizkaian Basque”. *ASJU* 40: 1-2, 81-106.
- Artiagoitia, Xabier. 1994. *Verbal Projections in Basque and Minimal Structure*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak.
- Artiagoitia, Xabier. 1998. “Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan”. *Uztaro* 27, 33-61.
- Artiagoitia, Xabier. 2002. “The functional structure of the Basque noun phrase”. In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: A Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak. 73-90.

<sup>21</sup> Bestalde, ikuspegi honek hizkuntz jabekuntzarako duen eragina ere aintzat hartzekoa da. Kategoria funtzionalen jabekuntza beranduago gertatzen bada, “unibertsala” den [burua-osagarria] ordena aurkitzea esperoko gure haurren esaldietan.

- Artiagoitia, Xabier. 2004. "Izen-sintagmaren birziklatzea: Istik izenaren inguruko funtzio buruetara". In Pablo Albizu & Beatriz Fernández (arg.), *Euskal Gramatika XXI mendearen atarian*. EHU-Arabako Aldundia. 11-36.
- Artiagoitia, Xabier. 2008. "Izen-sintagmaren barne hurrenkera: osagarriak aurretik, buruak gero". Liburu honetan.
- Barbiers, Sjef. 2000. "The Right Periphery in SOV Languages". In P. Svenonius (arg.) *The Derivation of VO and OV*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 181-218.
- Bresnan, Joan. 1972. *Theory of Complementation in English Syntax*. Doktorego tesia, MIT.
- Chomsky, Noam. 1995. *The Minimalist Program*. Cambridge, MA: MIT Press.
- Cinque, Guglielmo. 1993. "A null theory of phrase and compound stress". *Linguistic Inquiry* 24, 239-298.
- Cinque, Guglielmo. 1997. *Adverbs and Functional Heads. A Cross-linguistic Perspective*. New York/Oxford: Oxford University Press.
- Comrie, Bernard. 1981. *Language Universals and Linguistic Typology. Syntax and Morphology*. Oxford: Basil Blackwell Publisher Ltd. [Gaztelaniazko itzulpena: *Universales del lenguaje y tipología lingüística. Sintaxis y morfología*. Madril: Gredos. 1989].
- Costa, Joao. 1998. *Word order variation*. LOT series 14, Doktorego tesia, HIL/Universiteit Leiden.
- Eguzkitza, Andolin. 1986. *Topics on the Syntax of Basque and Romance*. Doktorego tesia, University of California, Los Angeles.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT series 47. Doktorego tesia, HIL/Universiteit Leiden.
- Elordieta, Arantzazu. 2002. "On the (im)possibility of prosodic focus marking in embedded contexts in Northern Bizkaian Basque". In X. Artiagoitia, P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.) *Erramu Boneta: A Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJuren Gehigarriak. 53-178.
- Elordieta, Gorka. 1997. *Morphosyntactic Feature Chains and Phonological Domains*. Doktorego tesia, University of Southern California.
- Enç, Mürvet. 1991. "The semantics of specificity". *Linguistic Inquiry* 22, 1-26.
- Goenaga, Patxi. 1984. *Euskal Sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Doktorego tesia, EHU.

- Greenberg, Joseph H. 1963. "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements". In J. Greenberg (arg.) *Universals of Language*. Cambridge MA: MIT Press. 73-113.
- Haddican, William. 2004. "Sentence polarity and word order in Basque". *The Linguistic Review* 21, 87-124.
- Haddican, William. 2008. "*Euskal perpausaren oinarrizko espez-buru-osagarri hurrenkeraren aldeko argudio batzuk*". Liburu honetan.
- Haegeman, Liliane. 1997. "Verb second, the split CP and null subjects in Early Dutch finite clauses". *GenGenP* 4:2, 133-175.
- Hawkins, John A. 1979. "Implicational universals as predictors of word order change". *Language* 55. 618-648.
- Hawkins, John A. 1980. "On implicational and distributional universals of word order". *Journal of Linguistics* 16, 193-235.
- De Hoop, Helen. 1992. *Case configuration and Noun Phrase interpretation*. Doktorego tesia, Groningen University.
- Johnson, Kyle. 1991. "Object positions". *Natural Language and Linguistic Theory* 9, 577-636.
- Kayne, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Laka, Itziar. 1990. *On the Nature of Functional Categories and Projections*. Doktorego tesia, MIT.
- Laka, Itziar. 1993. "Unergatives that assign ergative, unaccusatives that assign accusative". In Jonathan D. Bobaljik & Colin Phillips (arg.), *Papers on Case and Agreement I*. MITWPIL 18. 149-172.
- Larson, Richard. 1988. "On the double object construction". *Linguistic Inquiry* 19:3, 335-391.
- Lehmann, Winfred P. 1973. "A structural principle of language and its implications". In *Language* 49, 47-66.
- Lehmann, Winfred P. 1978. *Syntactic typology: studies in the phenomenology of language*. Austin: University of Texas Press.
- Mahajan, Anoop. 1992. "The Specificity Condition and the ECD". *Linguistic Inquiry* 23, 10-516.
- Miyagawa, Shigeru. 2003. "A-movement scrambling and options without optionality". In S. Karimi (arg.), *Word order and Scrambling*. Oxford: Blackwell.

- Müller, Gereon. 1998. *Incomplete category fronting*. Dordrecht: Kluwer.
- Neeleman, Ad & Tanya Reinhart. 1998. "Scrambling and the PF Interface". In W. Gueder & M. Butt (arg.), *Projecting from the Lexicon*. CSLI, Stanford. 309-353.
- Ormazabal, Javier. 2007. *Hitz hurrenkera, euskara eta mugimenduaren uniformetasuna* ["Antisimetriaren Hipotesia vs Buru Parametroa: euskararen hitz hurrenkera ezbaian" izeneko EHUKo jardunaldietan emandako hitzaldia].
- Ormazabal, Javier, Juan Uriagereka & Miryam Uribe-Etxebarria. 1994. "Word order and wh-movement: towards a parametric account". *Glow Newsletter* 32, 42-43.
- Ormazabal, Javier, Juan Uriagereka & Miryam Uribe-Etxebarria. 2008. "Hitz hurrenkera eta NZ-mugida: azalpen parametrikoko baten bila". Liburu honetan.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1995. "Residual Verb Second and Verb First in Basque". In K. Kiss (arg.), *Discourse configurational languages*. 99-121.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999. "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque". In Jon Franco & Alazne Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*. Amsterdam: John Benjamins. 179-194.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2008. "Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezker aldeko buruak euskarari". Liburu honetan.
- Osa, Eusebio. 1990. *Euskararen Hitzordena*. Leioa: EHUKo Argitalpen Zerbitzua.
- Oyharçabal, Beñat. 2007. "Antisimetriaren bidetik, zenbait proposamen izen modifikatzaileen arteko ordenaz". ["Antisimetriaren Hipotesia vs Buru Parametroa: euskararen hitz hurrenkera ezbaian" izeneko EHUKo jardunaldietan emandako hitzaldia].
- Pesetsky, David. 1989. "Language particular processes and the Earliness Principle". Ms., MIT, Cambridge, Mass.
- Reinhart, Tanya. 1995. *Interface strategies*. OTS Working Papers in Linguistics, OTS/Utrecht University, Utrecht. [1998an argitaratua, Cambridge: MIT Press].
- de Rijk, Rudolph P.G. 1969. "Is Basque S.O.V.?". *Fontes Linguae Vasconum* 1, 319-351. [de Rijk (1998) liburuan berrargitaratua. *De Lingua Vasconum: selected writings*. Bilbo: ASJUren Gehigarriak. 13-38].
- Rizzi, Luigi. 1997. "The fine structure of the left periphery". In Liliane Haegeman (arg.) *Elements of Grammar*. Dordrecht: Kluwer. 281-337.
- Ross, J. Robert. 1967. *Constraints on Variables*. Doktorego tesia, MIT.

- Stepanov, Arthur. 2001. *Cyclic domains in syntactic theory*. Doktorego tesia, University of Connecticut, Storrs.
- Torrego, Esther. 1998. *The dependency of objects*. Cambridge MA: MIT Press.
- Uriagereka, Juan. 1992. "The syntax of movement in Basque". In Joseba Lakarra & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. Donostia: ASJUren Gehigarriak. 417-445.
- Vennemann, Theo. 1974. "Topics, subjects and word order: from SXV to SVX via TVX". In J. Anderson & Ch. Jones (arg.), *Historical Linguistics*. Amsterdam: North Holland. 339-376.
- Vicente, Luis. 2004. "Derived vs base generated OV". *Leiden Working Papers in Linguistics 1:1*, 83-96.
- Vicente, Luis. 2008. "La sintaxis de los objetos en euskera: prerequisites para un análisis antisimétrico". Liburu honetan.
- Wexler, Ken & Peter Culicover. 1980. *Formal Principles of Language Acquisition*. Cambridge MA: MIT Press.
- Zabala, Igone & Juan Carlos Odriozola. 1996. "On the Relation between DP and TP. The Structure of Basque Infinitivals". *Catalan Working Papers in Linguistics 5.2*, 231-281.
- Zubizarreta, Maria Luisa. 1998. *Prosody, Focus, and Word Order*. Cambridge MA: MIT Press.
- Zwart, Jan-Wouter. 1993. *Dutch Syntax*. Doktorego tesia, University of Groningen.

*Arantzazu Elordieta*

<arantzazu.elordieta@ehu.es>

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

*Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila*

*Filologia eta Geografi-Historia Fakultatea*

*Unibertsitatearen Ibilbidea 5*

*01006 Vitoria-Gasteiz*





# El movimiento del verbo en un análisis antisimétrico del euskera

Luis Vicente

University of California, Santa Cruz


## Laburpena

*En este artículo se propone que un análisis antisimétrico del euskera requiere un tipo de movimiento distinto a los dos tipos reconocidos normalmente (movimiento de núcleos y movimiento de sintagmas). El argumento se basa en un estudio de las diferentes maneras en que se pueden derivar los órdenes [verbo-auxiliar]. La distribución de ciertas partículas evidenciales sugiere un análisis de movimiento remanente del sintagma verbal. Sin embargo, un estudio de la sintaxis de los objetos demuestra que no es posible crear un sintagma remanente en todos los casos en que sería necesario. La paradoja se resuelve asumiendo que los núcleos pueden moverse sin incorporarse a un núcleo superior.*

## 0. Introducción \*

Este artículo tiene un objetivo muy concreto, pero de cierta significación teórica: demostrar que no es posible ofrecer un análisis del euskera bajo la teoría de antisimetría (Kayne 1994) contando sólo con los mecanismos disponibles actualmente. Para poder desarrollar tal análisis, es necesario recurrir a un tipo de movimiento en cierta medida no ortodoxo: a saber, un tipo de movimiento de núcleos que *no* resulta en una estructura de incorporación.


La teoría de antisimetría establece que todas las estructuras sintácticas son reducibles al patrón definido en (1):



\* Este artículo es una intersección de varios trabajos sobre la sintaxis del euskera que realicé durante el curso académico 2003-2004 (especialmente Vicente 2005a y 2005b). Mis más sinceras gracias a Xabier Artiagoitia y Arantazu Elordieta por invitarme a retomar estos temas, y a los asistentes al coloquio en la Universidad del País Vasco por sus comentarios sobre este trabajo. También quiero dar las gracias a los colegas que ofrecieron sus comentarios y sugerencias sobre las versiones originales de los trabajos en los que se basa este artículo, en especial Lisa Cheng, Anikó Lipták, Johan Rooryck, Joanna Sio y Mark de Vos. Mi agradecimiento también al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco por su ayuda económica (beca predoctoral BFI03.277).

Kayne propone que los núcleos universalmente toman sus complementos a la derecha, y que la proyección intermedia resultante se completa con un especificador a la izquierda. Dado que los especificadores siempre se proyectan hacia la izquierda, se deduce que todos los movimientos se realizan también hacia la izquierda.

Kayne también propone que los órdenes de superficie que no respetan este patrón se derivan a través de movimiento a la izquierda de ciertos constituyentes. Por ejemplo, órdenes [complemento-núcleo] requieren movimiento del complemento a una posición de especificador a la izquierda del núcleo:



Tipológicamente, las lenguas con órdenes [complemento-núcleo] son al menos tan numerosas como las que exhiben órdenes [núcleo-complemento]. Debido a esto, una de las líneas de investigación más importantes dentro del marco de la antisimetría se ha centrado en definir los detalles de la clase de operaciones representada en (2), resultando en análisis detallados de varias lenguas OV, entre ellas el euskera.<sup>1</sup> Hasta la fecha, los análisis antisimétricos del euskera son los de Albizu (1994), Ormazábal *et al* (1994), G. Elordieta (1997) y Haddican (2004). A pesar de que la hipótesis central es la misma en los cuatro casos –es decir, que todos los sintagmas del euskera siguen el patrón en (1)–, las implementaciones técnicas difieren en cierto grado. Mi objetivo en este artículo es contribuir a reducir este espacio de hipótesis. En concreto, me centraré en una sola cuestión: ¿cómo se derivan los órdenes [verbo-auxiliar]? Tal y como veremos en las siguientes páginas, las peculiaridades de estos órdenes sugieren que la mejor aproximación es la de Haddican (2004) en términos de movimiento remanente del sintagma verbal. Sin embargo, también veremos que el análisis de Haddican conlleva una serie de problemas, entre ellos la imposibilidad de ciertas secuencias

<sup>1</sup> Para otras lenguas, ver Zwart (1994) sobre el holandés, Zwart (1999) sobre el turco, Aboh (2003) sobre el gungbe, Kayne (2003) sobre el japonés, o Koopman (2005) sobre el japonés y el coreano.

de movimientos. La solución que ofreceré al final del artículo consiste en conservar la intuición principal de Haddican, pero implementándola sin recurrir al movimiento remanente.

Antes de comenzar, es necesario hacer una aclaración: en este artículo, no intento demostrar que un análisis antisimétrico del euskera es superior a uno no antisimétrico. Aquí asumiremos la teoría de antisimetría como nuestro punto de partida, y trataremos de determinar cuál es el análisis óptimo dada esta hipótesis. Por esta razón, este artículo no incluye ninguna comparación con los análisis no antisimétricos.


### 1. El movimiento del verbo en euskera

Como es bien sabido, el orden de palabras en las oraciones afirmativas neutras es [objeto-verbo-auxiliar]:

- (3) Jonek liburua irakurri du  
 J libro leer AUX  
 ‘Juan ha leído el libro’

Para simplificar la discusión, no voy a discutir ni las oraciones negativas ni las que contengan un foco o una pregunta. Asimismo, tampoco discutiré la sintaxis de los sujetos.

En el marco de la antisimetría, ¿cuál es el mejor análisis de la secuencia *liburua irakurri du*? Comencemos, en primer lugar, por determinar la estructura base. Dado que el objeto es el complemento del verbo, y que el sintagma verbal al completo es el complemento del auxiliar, la teoría de antisimetría establece la siguiente base:




Para derivar el orden en (3) a partir de la estructura de (4) hacen falta dos operaciones de inversión: en primer lugar, el verbo ha de moverse a la izquierda del auxiliar, y seguidamente,

el objeto directo ha de moverse a la izquierda de la secuencia [verbo-auxiliar]. Estos movimientos se pueden analizar de dos maneras distintas, que exploramos a continuación. La diferencia entre los dos tipos de análisis radica en el primer paso, distinguiéndose entre un análisis de incorporación y uno de movimiento remanente.

### 1.1. Un análisis de incorporación

Albizu (1994), Ormazábal et al (1994) y G. Elordieta (1997) proponen que los órdenes [verbo-auxiliar] se derivan a través de movimiento de núcleos, con el verbo incorporándose en el auxiliar. Este tipo de análisis también ha sido propuesto, fuera del marco de la antisimetría, en los trabajos de Ortiz de Urbina (1989) y A. Elordieta (2001). Una vez que se ha derivado la secuencia [verbo-auxiliar], el objeto se mueve a una posición a la izquierda de la misma. La identidad de esta posición no es crucial para la exposición de este argumento, así que asumiremos sin más que se trata de una posición de concordancia (SConcO):




Los trabajos mencionados arriba citan dos argumentos a favor de un análisis de incorporación. El primero de ellos se basa en el hecho de que la secuencia [verbo-auxiliar] debe aparecer inmediatamente a la izquierda de los focos o de las expresiones interrogativas.

- (6) a. Zer **irakurri du** Jonék?  
 qué leer AUX J  
 '¿Qué ha leído Jon?'

- b. LIBURUA **irakurri du** Jonek  
 libro leer AUX J  
 ‘Jon ha leído EL LIBRO’

Ortiz de Urbina (1989) y A. Elordieta (2001) apuntan que esta restricción es similar a la que encontramos en las lenguas germánicas, en las que el verbo siempre debe aparecer en la segunda posición de la oración (el llamado efecto V2). Por lo tanto, el mismo análisis que se ha propuesto para las lenguas germánicas puede extenderse al euskera, es decir, movimiento del verbo al núcleo  $\text{Comp}^0$  y movimiento del foco al especificador de SComp:



El aspecto crucial de este análisis es que el constituyente que se mueve al núcleo  $\text{C}^0$  no contiene sólo el verbo, sino el verbo y el auxiliar. Los principios de la teoría de X-barras dictan que, para que este movimiento sea posible, la secuencia [verbo-auxiliar] tiene que ser un núcleo complejo. A su vez, esto sólo es posible si se ha derivado mediante una operación de movimiento de núcleos, tal y como se representa en (5).

El segundo argumento se basa en el hecho de que ningún argumento ni adverbio puede aparecer entre el verbo y el auxiliar (con la excepción de ciertas partículas evidenciales de las que hablaremos más abajo):

- (8) a. \*Jonek irakurri **liburua** du  
 J leer libro AUX  
 ‘Jon ha leído el libro’
- b. \*Jonek liburua irakurri **gaur** du  
 J libro leer hoy AUX  
 ‘Jon ha leído el libro hoy’

De nuevo, esta restricción puede explicarse si las secuencias [verbo-auxiliar] se han formado mediante un proceso de incorporación: dado que constituyen núcleos complejos, ningún constituyente ajeno a este núcleo puede aparecer entre los dos miembros.

### 1.2. Un argumento en contra

A pesar de que un análisis basado en el movimiento de núcleos parece suficientemente sencillo y sólido, Haddican (2004) propone que no es correcto. El argumento de Haddican se basa en un pequeño conjunto de partículas evidenciales, tales como *omen* ‘aparentemente’, *al* ‘dubitativo’, y unas pocas más. La peculiaridad de estas partículas es que sólo pueden aparecer entre el verbo y el auxiliar:

- (9) (\*omen) Jonek (\*omen) liburua (\*omen) irakurri (✓omen) du (\*omen)  
                   J                  libro                  leer                  AUX

‘*Aparentemente, Jon ha leído el libro*’


¿Cómo se puede analizar esta restricción en un análisis de movimiento de núcleos? A. Elordieta (2001) propone que este tipo de partículas son en realidad núcleos que se introducen entre el verbo y el auxiliar. Debido a la estricta localidad del movimiento de núcleos, el verbo arrastra a la partícula hasta la posición del auxiliar. El resultado es que la partícula termina apareciendo entre el verbo y el auxiliar.

Sin embargo, varios estudios recientes indican que las partículas evidenciales han de introducirse en una posición mucho más alta de la que A. Elordieta sugiere. Rooryck (2001) y Nilsen (2003) argumentan que este tipo de partículas han de modificar la proposición al completo, ya que denotan la actitud del hablante hacia la proposición. Esto requiere que se introduzcan en una posición muy alta, por encima de cualquier otro operador. El trabajo de Cinque (1999) confirma esta conclusión. Cinque demuestra que, en un gran número de lenguas, las partículas evidenciales aparecen sistemáticamente en posiciones muy altas. La consecuencia, por lo tanto, es que el análisis de A. Elordieta no puede mantenerse.


Haddican (2004) propone la siguiente alternativa: siguiendo la conclusión del párrafo anterior, introduce las partículas evidenciales en una posición superior al auxiliar. A partir de esta base, el orden [verbo-partícula-auxiliar] se deriva a través del movimiento del verbo a una posición a la izquierda de la partícula. Este movimiento es un movimiento remanente del

sintagma verbal, lo cual requiere que los complementos del verbo se evacúen a una posición externa al sintagma verbal:<sup>2</sup>

(10) *Primer paso: movimiento del objeto*



(11) *Segundo paso: movimiento remanente del sintagma verbal*




Esta es una conclusión importante: en el marco de la antisimetría la distribución de las partículas evidenciales sólo puede explicarse con un análisis en el que el verbo *no* se incorpora en el auxiliar. Sin embargo, una condición importante de este análisis es que el movimiento del objeto representado en (10) ha de ser obligatorio. Si esto no fuera así, el

<sup>2</sup> Para completar este análisis, sería necesario un tercer paso en el que el objeto se desplazara a una posición a la izquierda de SX, derivando el orden final [objeto-verbo-auxiliar]. Para evitar complicaciones, no trataré este último paso hasta la sección 4.2.

movimiento del sintagma verbal en (11) arrastraría al complemento del verbo a una posición a la izquierda del auxiliar. El resultado sería una oración en la que el objeto aparecería incrustado entre el verbo y el auxiliar:

(12) *Movimiento no-remanente del sintagma verbal (agramatical)*



Sin embargo, este orden de palabras es imposible. Es importante resaltar que, en principio, este tipo de derivación no presenta ningún problema técnico. De hecho, varios estudios han propuesto derivaciones similares en otras lenguas (ver, por ejemplo, Massam 2001 o Chung 2005). La única manera de bloquear (12) en euskera es asumiendo que los objetos siempre se mueven a una posición externa al sintagma verbal. Esta asunción la examinaremos en la siguiente sección.

## 2. La sintaxis de los objetos

La idea de que los objetos se mueven obligatoriamente a una posición externa al sintagma nominal no es nueva. Cheng & Demirdache (1993) es posiblemente el primer estudio en el que se propuso de forma explícita, por razones relacionadas con ciertos efectos de superioridad en oraciones interrogativas.<sup>3</sup> Aquí examinaremos dos argumentos adicionales a favor de esta hipótesis.

<sup>3</sup> En realidad, Cheng & Demirdache proponen que los objetos se generan directamente en una posición externa, desde la cual ligan categorías vacías (*pro*) en las posiciones temáticas. Sin embargo, el resultado neto es el mismo que si asumieran una relación de movimiento.



## 2.1. Movimiento obligatorio de objetos nominales

### 2.1.1. Morfología de concordancia

Para poder extraer los objetos a una posición externa al sintagma verbal, primero es necesario demostrar que existe una posición que pueda acoger este movimiento. En euskera, es razonable pensar que esta posición existe, basándonos en la hipótesis de Bobaljik & Thráinsson (1998). En ese artículo se argumenta que hay una relación directa entre la morfología del verbo y el número de sintagmas presente en una oración. Concretamente, Bobaljik & Thráinsson deducen que una lengua legitimará una segunda posición para un argumento si el verbo contiene un morfema de concordancia con dicho argumento claramente diferenciable de la raíz del verbo.

En euskera, el verbo auxiliar claramente contiene una posición para un morfema de concordancia con el objeto. Por lo tanto, dada la correlación propuesta por Bobaljik & Thráinsson, es razonable asumir que hay un sintagma externo al sintagma verbal (concretamente, un sintagma de concordancia de objeto, SConcO), y que los objetos que muestran concordancia con el verbo pueden moverse a esa posición. En las próximas dos subsecciones, veremos que hay razones para suponer no sólo que *pueden* moverse, sino que se mueven a esa posición obligatoriamente.<sup>4</sup>

### 2.1.2. Posición de los adverbios

Una restricción en el orden de palabras en euskera es que los objetos han de aparecer obligatoriamente a la izquierda de los adverbios de modo –ignorando órdenes alternativos determinados por foco y tópicos:<sup>5</sup>

- (13) a. Jonek liburua **azkar** irakurri du  
 J libro rápido leer AUX  
 ‘Jon ha leído el libro rápido’

<sup>4</sup> Un posible problema con esta hipótesis es la observación de que el movimiento de un objeto conlleva una interpretación específica/definida del mismo (ver Diesing 1992). Por lo tanto, si los objetos se mueven obligatoriamente en euskera, debería ser imposible obtener una lectura no-específica de los objetos indefinidos. Esta predicción no es correcta. Adger (1994) desarrolla una teoría que ofrece una solución a este problema. Su propuesta es que el movimiento del objeto conlleva una lectura específica de los indefinidos sólo si existe una opción entre mover el objeto y no moverlo. En cambio, si el movimiento es obligatorio, la lectura no-específica puede conservarse en la posición derivada.

<sup>5</sup> Speas (1990) y Koizumi (1995) ofrecen datos similares del navajo (Norteamérica) y del zarma (África), llegando a la misma conclusión que este artículo.

- b. \*Jonek **azkar** liburua irakurri du  
 J rápido libro leer AUX  
 ‘Jon ha leído el libro rápido’

Esta restricción, sin embargo, no existe en otras lenguas, en las que un objeto puede aparecer tanto a la izquierda como a la derecha de un adverbio de modo. Esta posibilidad está ilustrada en (14) con el holandés. Es posible construir ejemplos idénticos en alemán, japonés, turco, persa, mandarín, ruso, y numerosas otras lenguas:

- (14) a. Jan heeft een boek **snel** gelezen  
 J ha un libro rápido leído  
 ‘Jan ha leído un libro rápido’  
 b. Jan heeft **snel** een boek gelezen  
 J ha rápido un libro leído  
 ‘Jan ha leído un libro rápido’

El consenso en todos los estudios que han tratado esta alternancia es que (14b) representa la construcción base, y (14a) se deriva mediante movimiento del objeto. Dado que el euskera sólo permite el equivalente a (14a), se puede deducir que los objetos nominales se mueven obligatoriamente a una posición externa al sintagma verbal –tal y como requiere el análisis de Haddican.

### 2.1.3. Subextracción

Goenaga (1984) y Uriagereka (1998) observan que en euskera no es posible extraer una expresión interrogativa desde dentro de un objeto:

- (15) \*[Nori buruzko]<sub>i</sub> entzun dituzu [[ t<sub>i</sub> ] zurrumuruak]?  
 quién sobre oír AUX rumores  
 ‘¿Sobre quién has oído rumores?’

Adoptemos la hipótesis de que los objetos se mueven obligatoriamente en euskera. Müller (1998) y Stepanov (2001) demuestran que, en todas las lenguas que examinan, los

constituyentes que se han movido no permiten subextracción desde su interior –incluso si dicha subextracción es lícita en la posición base. Por lo tanto, si el objeto se ha movido en (15), se predice correctamente que la subextracción de *nori buruzko* no es posible.

Uriagereka *et al* (1994) extienden este argumento utilizando oraciones subordinadas. Su argumentación se basa en la observación de que las oraciones subordinadas pueden aparecer tanto a la izquierda como a la derecha del verbo que las selecciona.

- (16) a. Uste dut Jonek esan duela [Miren etorriko dela]  
 creer AUX J decir AUX.C M venir AUX.C  
 ‘*Creo que Juan ha dicho que Miren va a venir*’
- b. Uste dut Jonek [Miren etorriko dela] esan duela  
 creer AUX J M venir AUX.C decir AUX.C  
 ‘*Creo que Juan ha dicho que Miren va a venir*’

Sin embargo, la extracción desde una oración subordinada sólo es posible si ésta se encuentra a la derecha del verbo que la selecciona:<sup>6,7</sup>

- (17) a. [Nor] uste duzu Jonek esan duela [ [ t ] etorriko dela]  
 quién creer AUX J decir AUX.C venir AUX.C  
 ‘*¿Quién crees que ha dicho Juan que va a venir?*’
- b. \*[Nor] uste duzu Jonek [ [ t ] etorriko dela] esan duela  
 quién creer AUX J venir AUX.C decir AUX.C  
 ‘*¿Quién crees que ha dicho Juan que va a venir?*’

En la teoría de antisimetría, las oraciones subordinadas postverbiales se consideran la base, y las preverbiales se derivan mediante un movimiento a la izquierda del verbo.<sup>8</sup> Con este

<sup>6</sup> Al igual que con los objetos nominales, esta restricción se encuentra en otras lenguas aparte del euskera –por ejemplo, en alemán (Müller 1998).

<sup>7</sup> Patxi Goenaga, en un comentario durante el coloquio, observó varios casos que falsifican esta generalización, como por ejemplo (i). Los otros hablantes presentes en el coloquio confirmaron estos juicios.

(i) [Nora] uste duzu [t liburua eramateko] esan dutela?  
 dónde creer AUX libro llevar decir AUX  
 ‘*¿A dónde crees que han dicho que hay que llevar el libro?*’


Aunque este es un tema que merece ser estudiado en más detalle, la distinción parece estar entre las oraciones finitas y las no-finitas, siendo las últimas las únicas que permiten subextracción.

<sup>8</sup> Sin embargo, fuera de la teoría de antisimetría, existen otras posibilidades. Por ejemplo, Müller (1998) considera que, en alemán, la posición base es la preverbal, y la postverbal se deriva a través de movimiento a la derecha. Müller estipula que

análisis, la agramaticalidad de (17b) se explica de la misma manera que la de (15): dado que la oración se ha movido, se convierte en una isla, y cualquier posibilidad de subextracción queda eliminada.

## 2.2. ¿A qué posición se mueve el objeto?

Las tres subsecciones precedentes han mostrado que el movimiento obligatorio de objetos nominales en euskera es una hipótesis bastante plausible. No obstante, aún es necesario demostrar que este movimiento acaba en una posición lo suficientemente alta. La razón es que numerosos estudios durante los últimos quince años han concluido que el sintagma verbal no es un único sintagma, sino una combinación de un núcleo léxico con una serie de proyecciones funcionales –a saber, al menos un núcleo causativo (en oraciones transitivas) y un núcleo aspectual (ver, entre otros, Sybesma 1992, Ramchand 1997, Pykkänen 2002, o Travis, por aparecer). El resultado es una estructura como la siguiente, en la que el objeto es generado como complemento del sintagma más bajo:



Haddican (2004) argumenta que la proyección que se mueve a la izquierda del auxiliar es el sintagma aspectual SAsp. Esta hipótesis se basa en la observación de que la forma verbal que realiza esta subestructura siempre recibe una interpretación con un componente aspectual, expresado mediante alguno de los morfemas aspectuales (*-ko*, *-t(z)en*, *-tu*, entre otros).<sup>9</sup> Por lo

---

- (24) a. *Jonen sagar gorri biak* aurkitu ditugu, baina *Mirenen-ø-ak* ez.  
 (non [ø] = [<sub>QS</sub> sagar gorri bi])  
 b. *Jonen hiru sagar gorriak* aurkitu ditugu, baina *Mirenen-ø-ak* ez.  
 (non [ø] = [<sub>QS</sub> hiru sagar gorri])

<sup>8</sup> Sinplifikatze aldera, jabetza-posesiboa [espez, D] gunean kokatzen dut, Abney (1987) lanean bezala.

(25) [<sub>DS</sub> posesiboa [<sub>QS</sub>  $\theta$  ] D]

Beraz, zenbatzaileak, ezkerretara edo eskuinera egonda, beti daude posizio hierarkiko berean.


Elipsiaren datu hauek berdin-berdin egokitu daitezke Cinque-Oyharçabalen tankerako azterbide batera. Baina badira hemen aurkeztutakoaren eta eurenaren artean alde nabarmenak: [osagarria-X] ohiko azterbideak arazorik gabe azaltzen du zenbatzaileen hurrenkera; zenbatzaileen kokapen bikoitza (neurri-sintagmetarako bestela ere beharrezkoa dugun) *buru/espezifikatzaile* alternantziaren bidez azaltzen da, eta ez du estrategia bikoitzik (bata markatua eta bestea markatugabea) eskatzen. Gure azterbide honek *mugidarik gabe* eratortzen du azaleko hurrenkera; eta, azkenik, *mugidarik ezak bat egiten du euskarazko izen-sintagmen pobretasun morfosintaktikoarekin*. Hiru arrazoi hauengatik, uste dut buru parametroaren araberrako azterbidea hobetsi behar dela Cinqueren tankerako analisiaren kalterako.

### 3. Euskarazko adjektiboak edo [...[<sub>FS</sub> [<sub>FS</sub> IS F] F...] Q]-D] hurrenkera

Atal honetan iradokizunetik hurbilago dagoen honako proposamena garatuko dut: euskarazko adjektiboak [osagarri-X] modura azter daitezkeela baldin eta buru funtzionalen hierarkia unibertsal bati jarraituz txertatu eta adjektibook ardatz edo buru gunean gauzatzen badira, eta ez espezifikatzaile gunean. Aitortzen dut, deblauki aitortu ere, zalantzazkoa dela proposamenaren muina, besteak beste izen-sintagmaren barneko adjektiboen azterketa oraindik ere lur labaina delako inondik ere: adjektiboak adjuntu zein buru bezala aztertu dira, perpaus egituretatik edo egitura predikatiboetatik abiatuta ere aztertu dira... Baina hemengo proposamen honek balio behar luke gutxienez Cinque-Scotten adjektiboen azterbidea buru-parametroarekin bateragarri dela erakusteko: alegia, DS barneko adjektiboak buru funtzionalei lotuta daudelako proposamenetik ez da nahitaez ondorioztatzen euskarazko adjektiboak antisimetriaren bidetik aztertu behar direla.

Hona hemen euskararako Scotten buru funtzionalen hierarkia onartuaz eta buru-parametroa onartuaz proposatzen dudana egitura:

(26)



Proposamen honetan, adjektiboek eurek beteko lukete proiektzio funtzionalen buru posizioa; proiektzio funtzional hauek “are instantiations of bundles of “functional” (= syntactico-semantic) features” (Scott 2002: 103).

Proposamena ulertzeko, adjektibo segiden izaera laburki azalduko dut lehenik; ondoren, ohiko adjunkzioaren arazoak aipatuko ditut Cinque-Scott bikotearen ikuspegia neure eginez; azkenik, euskarazko adjektiboen buru edo ardatz itxura justifikatuko dut.

### 3.1. Adjektibo-segiden murrizketak eta adjektibo hierarkiak

Adjektiboak hierarkia baten arabera antolatuta daudelako ideia aspaldikoa da gramatikan; ezaguna da, Dixonen (1977) eta Hetzron (1978) lanez geroztik behintzat, DS barruko adjektiboek, zerrenda kutsurik gabeko hitz ordena neutroetan, hurrenkera jakin bat dutela, adierazten duten nozio semantikoaren arabera. Hemen proposatu diren hierarkia horietako bi ematen ditut:

- (27) a. *kualitatea > tamaina > forma > kolorea > jatorria* (Sproat & Shih 1991)  
 b. *ebaluazioa > ?ebidentziala > tamaina > luzera > goiera > lastertasuna > ?sakonera > zabalera > pisua > tenperatura > ?hezetasuna > adina > forma > kolorea > jatorria/naziotasuna > materiala > hitz elkartuaren osagaia* (Scott 2002)  
 [non “A > B” delakoak *A B baino urrunago dago izenetik adierazten duen*]

Euskaraz ba omen dira DS barneko adjektibo-segidetan murrizketa nabarmenak, ondoko adibide ezagunek gogora dakarten moduan:

- (28) a. herri txiki polita (neutroagoa-edo)      b. herri polit txikia  
 c. kapela urdin zabala                              d. kapela gorri handia  
 (EGLU-I 1985: 248)  
 e. etxe zuri txiki polit bat (Trask 1981: 137 & Trask 2003: 137)

Hots, adjektiboen arteko askatasuna aipatzen den arren, Euskaltzaindiak berak dio (28a) arruntagoa dela (28b) baino, eta kolorezko adjektiboa izenetik gertuago egoten dela. Hau ez da harritzekoa Hetzronen euskara bera erabili baitzuen hierarkiaren ideia formulatzeko. Hetzronen berriemailea Trask izan zen, eta hark argi uzten du ingelesezko adjektibo segiden antolamenduak eta euskarazkoenak bat egiten dutela:

- (29) “As illustrated here, the order of multiple adjectives in Basque is in general precisely the reverse of that in English (or, from the point of view of distance from the noun, precisely the same as in English)” (Trask 1981: 137).

Oyharçabalek berak ere, hemen aurkeztuko dudan ikuspegiaren kontrakoa garatu arren, ontzat ematen du Scotten hierarkia, eta honako bikoteetan ezkerreko hurrenkera hartzen du neutro edo markatugabetzat:

- (30) a. negu hotz luzea                              vs      negu luze hotza                              (luzera > tenper.)  
 b. salda bero on bat                              vs      salda on bero bat                              (ebal. > tenper.)  
 c. zaku pisu lodi bat                              vs      zaku lodi pisu bat                              (tamaina > pisua)

- d. bide zabal lasterra vs bide laster zabala (lastert. > zabalera)  
 e. mutiko gazte ederrak vs mutiko eder gazteak (ebal. > adina)  
 f. leiho erronda handia vs leiho handi erronda (tamaina > forma)  
 g. eskultura fin gora bat vs eskultura gora fin bat (goiera > zabalera)


[datuak Oyharçabal (2006) lanetik hartuak]

Nik ere hemen hala jokatuko dut, eta euskaraz ere DS-ren barneko adjektibo segidek halako hierarkia unibertsal bati jarraitzen diotela onartuko dut, ikuspegi honen inguruko eztabaida inondik ere itxita ez dagoen arren.<sup>9</sup>

### 3.2. Ohiko adjunkzio-analisia eta haren arazoak

Hatsarreak eta Parametroak ikermoldean, adjektiboen analisi arruntena adjunkzioarena izan da luzaroan. Euskarari dagokionez:

(31)



<sup>9</sup> Google bilatzailean onarritutako ikerketa batean, Truswellek (2007) zalantzan ipini du Cinque-Scotten azterbide kartografikoaren egokitasuna eta gehienez adjektibo *subsektiboak* > *intersektiboak* hierarkia badela iradokitzen du. Hori bai, haren ustez hierarkiarik eza bateragarri da bai adjunkzio analisiarekin, bai espezifikatzaile analisiarekin, bai buru analisiarekin ere.

Azterbide honi Cinquek (1994) hiru eragozpen ikusten dizkio: batetik, adjunkzioaren ideia ez omen da adjektiboen hurrenkera-murritzetekin ondo ezkontzen: hurrenkera erabat librea behar genuke adjunkzioaren arabera eta ez da hala gertatzen; bestetik, adjunkzioak adjektibo-segida mugagabeak aurreikusten ditu eta adjektibo-segidek nekez gaintitzen dute sei-zazpi adjektiboren muga,<sup>10</sup> eta hirugarrenez, adjunkzioaren bideak adarreztatzea ezkerredera edo eskuinera egiten den zehazteko eskatzen du, perpaus egituraren aldetik murriztapenik ezarri gabe.


Cinquek (1994) bultzatu eta Scottek (2002) areago garatutako azterbidean, aitzitik, adjektiboak antolamendu zurruna duten proiektzio funtzionalen espezifikatzaile-gunean kokatzen dira. Ikuspegi honen abantailak (cf. Scott 2002: 96-7) hauek dira:

- a. Adjektiboen hierarkia, kopurua, eta *hurrenkera bera* funtzio-buruen ondorio besterik ez da; alde horretatik, adjektibo-segiden murrizketak funtzio-buruen hierarkiaren epifenomeno bat besterik ez dira.
- b. Azterbide *minimalistagoa* lortzen da, adjunkzioa baztertuaz adarreztatzearen norabidea zehaztu beharrik ez dagoelako: espezifikatzaileak unibertsalki ezkerretara daude. Cinquek (1994), gainera, bat egiten du Kayneren antisimetriaren ikuspegiarekin: horrek, printzipioz, adjektiboak unibertsalki izenaren ezkerretara sortzea dakar.
- c. Scotten arabera, adjektiboen interpretazioaren eta sintaxiaren arteko lotura hobeto islatzen da adjektiboak ezaugarri semantiko jakin batzuk dituzten buru funtzionalen espezifikatzaile-gunean kokatuaz, adjunkzioan baino.
- d. Adjektiboen kasu eta komuntzadura ezaugarriak, halakorik duten hizkuntzetan, espezifikatzaileen profilerak egokitzen dira.
- e. Azkenik, Scotten irudiko, adjektiboak eta proiektzio funtzionalak lotzeak badu beste bertute bat: zabalik uzten duela atea hizkuntza batzuetan adjektiboek klase itxi bat bezala joka dezaten, Dixoni (1977) esker dakigunez, zuzena den aurreikuspena.

Beraz, euskarari dagokionez, honako egiturarekin abiatuko ginatke Cinque-Scott bikotearen ikuspegi onetsiz gero:

---

<sup>10</sup> Nire iritzian, euskaraz hiru adjektibotik gorako segidak ez dira batere naturalak: hiru adjektiboko *etxe zuri txiki polit bat* arrunta izan daiteke, baina *etxe zuri zahar txiki polit bat* sintagmak, berriz, muga psikologikoa gaintitzen du.



Ikuspegi hauxe darabil Oyharçabalek (2006) hain zuzen ere; azaleko hurrenkeraren eratorpenak hiru mugida behar ditu adibide honi dagokionez:<sup>11</sup> IS osagaiak *gorri* lehen adjektiboaren gainetik legokeen proiektzio funtzionalaren espezifikatzaile mugitu behar luke lehenik; ondoren [IS [XS]] tankerako garraioa behar genuke *zabal* adjektiboaren gainetik legokeen proiektzio funtzionalaren espezifikatzaile; ondoren, bigarren mugida mota errepikatuko genuke egitura osoa determinatzailearen ezkerretara mugitzeko:

- (33) hasierako hurrenkera: *-ak zabal gorri arropa*
- a. [D -ak ... [K<sub>mz</sub>S [FS zabal [K<sub>mz</sub>S [FS gorri [IS arropa]]]]]] (IS-mugida)
- ↑ 1 ↓
- b. [D -ak [K<sub>mz</sub>S [FS zabal [K<sub>mz</sub>S [IS arropa]<sub>i</sub> [FS gorri t<sub>i</sub> ] ]]]] ([IS [XS]] garraioa)
- ↑ 2 ↓

<sup>11</sup> Hona hemen Oyharçabalen adibidea:

(i) *sagar gorri* eder hauek (< hauek eder gorri *sagar*)

(ii) a. [K<sub>mz</sub>S1 [FS1 hauek [K<sub>mz</sub>S2 [FS2 eder [K<sub>mz</sub>S3 [FS3 gorri [IS sagar]]]]]]]]

↑ 1 ↓


b. [K<sub>mz</sub>S1 [FS1 hauek [K<sub>mz</sub>S2 [FS2 eder [K<sub>mz</sub>S3 [IS sagar]<sub>i</sub> [FS3 gorri t<sub>i</sub> ] ]]]]]

↑ 2 ↓

c. [K<sub>mz</sub>S1 [FS1 hauek [K<sub>mz</sub>S2 [FS2 [K<sub>mz</sub>S3 [IS sagar]<sub>i</sub> [FS3 gorri t<sub>i</sub> ] ] ] eder t<sub>j</sub>]]]]

↑ 3 ↓






Azterbide honek lehenago zenbatzaileez esandakoa dakarkigu gogora: mugida sarriak behar dira, baina mugimenduok ez dira motibatzen; areago, Cinque (1994, 2003) lanetan ez bezala, non izenaren edo IS-ren mugidak bat egiten duen hizkuntzaren DS-ren komunztadura eta flexio aberatsarekin, mugidaren beharra kontraesanean dago euskarazko I-Adj bikoteek erakusten duten pobretasun morfosintaktikoarekin.

**3.3. Euskarazko adjektiboek F buruak betetzen dituzte**

Aurreratu dudan bezala, neure proposamena Cinque-Scotten ikuspegiaren argudioak onartzea da, baina antisimetria (hots, adjektiboen hurrenkera eratortzeko modua bera) onartu gabe. Euskarazko adjektiboen eta adjektibo-segiden hurrenkera adjektiboak buru izatearen ondorioztat hartzen dut, eta buruak osagarriaren ondoren ageri dira; lehenagoko adibidearen analisia, hartara, hauxe genuke:



Alegia: euskaraz ere adjektibo-segiden murrizketak buru funtzionalen hierarkia berberaren ondorio izan litezke; baina buru funtzionalak (adjektiboak eurak) beren osagarriaren ondoren ageri dira.

Jarraian, banan-banan garatuko ditut DS barneko adjektiboak buruztat jotzeko ikusten ditudan argudioak.

1. argudioa. Lehendabizi, deigarria da mailakatzaileen kokapen kanonikoa eta zenbatzaileekiko bateraezintasuna:

- (35) a. oso emakume jatorra  
 b. [DS *oso* [FS [IS emakume] [F jatorr]-]a]


Alegia, hurrenkerarik arruntenean mailakatzaileak ez du bat egiten teorian mailakatzen duen adjektiboarekin, harekin Adj-Sintagmarik osatuko ez balu bezala. Are gehiago: mailakatzaileak (euretariko asko zenbatzaile kategoriakoak) eta zenbatzaile arruntak bateraezinak dira sarritan:

- (36) a. \*hainbeste oso liburu on erosi genuen  
 b. \*nahiko neska polit bat etorri zitzaigun  
 (Euskaltzaindia 1993: 148)

Beste leku batzuetan (Artiagoitia 2004, 2006) iradoki dut hori lotuta legokeela mailakatzaileak egiazki QS proiektzioaren espezifikatzaile-gunean egotearekin, honela:<sup>12</sup>

---

<sup>12</sup> Printzipioz, ez dut ikusten mailakatzaileak adjektiboari lotutako F buruaren espezifikatzailean kokatzeko arrazoirik: Scotten azterbidean posizio hori hizkuntza batzuetan F buruaren tasun sintaktiko-semanticokoak gauzatzen dituzten AdjS zein bestelako (=Preposizio-S) modifikatzaileak kokatzeko da, baina ez osagai etenak zilegiztatzeko; behezagoko (42)-ko datuek mailakatzaileak egiazki QS-n daudela berresten dute.



Bestela esanda, euskaraz halako *doubly filled Q* kasu bat genuke, bietarik bat kenduta, ez baita arazorik:

- (38) a.    hainbeste liburu on, oso liburu onak      b. nahiko neska polita, neska polit bat

Itxura batean hemen diodanaren aurka, datu bat ekar daiteke gogora; *izen-mailakatzaille-adjektibo* hurrenkera ere zilegi dela hiztun askotxorendako, adjektiboak eta mailakatzailleak egiazko Adjektibo-Sintagma bat osatuko balute bezala:

- (39) % emakume *oso jatorra*

Hala ere, uste dut hurrenkera horiek beste iturburu bat dutela erakuts daitekeela, eta mailakatzaileri indarra ematea, berau foku bihurtzea helburu duen *emakume* IS-ren ezkerreko *scrambling* mugidaren bidez azaldu behar direla, Bernsteinek (2001) erromantzerako proposatu duen moduan. Hona zergatik uste dudana (39)-ko hurrenkera hori eratorria dela, eta ez oinarritzkoa: hurrenkera hori ez delako posible mailakatzailleak modifikatzen duen hitza berez denean fokua edo galdegaia. Etxeparek (2003: 546) azpimarratzen duen moduan, *gutxi* zenbatzailleak aditzaren aurreko galdegai kokapena behar du eskuarki:

<sup>13</sup> Ikasle batzuek ohartarazi didaten moduan mailakatzaileren eta *bat* zenbatzailerearen arteko bateraezintasuna ez da hain nabarmena:

(i) % oso gazta on bat saltzen dute.

Honek zerikusia duke *bat*-ek artikulua zehaztugabearen erabilera izatearekin; litekeena da horrelakoetan D-n izatea.

- (40) a. \**[jende gutxik]* hori ikusi du.      b. *[jende gutxik]* ikusi du hori.

Egia da *gutxi* ez dela hor adjektiboa, baina mailakatzailea eta guzti onartzen du (agian, operatzailea izanik D gunea –ez Q— betetzen duelako); hori bai, mailakatzaileak izenaren aurretik behar du agertu:

- (41) a. [*oso jende gutxik*] ikusi du hori.      b. \**[jende oso gutxik]* ikusi du hori.

Hemengo (41)-ko kontraste honek, nire ustez, (39)-koa IS-ren mugidari esker dela posible erakusten du, arrazoi prosodikoengatik (*oso* nabarmentzea); baina arrazoi prosodiko horiek falta direlarik (esaterako, modifikatutako elementua berez denean prosodikoki nabarmena), mugida hori debekatuta dago, ez dauka zentzurik. Horrenbestez, (39)-ko hurrenkera ezin da oinarritzkoa izan, IS-aren mugidak sortua baino:

- (39<sup>?</sup>)    emakume oso jatorra      →    emakume oso [t<sub>IS</sub>] jatorra

Adjektiboen mailakatzailea [espez, Q] gunean kokatzeak beste gauza bat ere aurreikusten du: DS bakoitzean gehienez mailakatzaile bakarra izango dela, IS-ren mugidarekin edo gabe. Predikzio hau zeharo betetzen da:

- (42) a. \**[nahiko [oso neska garai] jatorr]-a*  
       b. \**[oso neska garai] [nahiko jatorr]-a*  
       c. \**neska [oso garai] [nahiko jatorr]-a*

Berrito ere diot datuok harrigarriak direla adjektiboek arazorik gabe beren sintagma islatzen badute, baina erabat espero izatekoak dira adjektiboek F buru funtzionala gauzatzen badute, egiazki AdjS proiektatu gabe.

Laburbilduz: proposamen honek ezin hobeto azaltzen du eta, izan ere, erabat aurreikusten du DS-ren barneko mailakatzaileen jokabide sintaktikoa: adjektiboak buru soilak badira, ezin dute oinarrian mailakatzailearekin osagai bat osatu, eta mailakatzaileak, halakorik bada, beste geruza batean (euskaraz zenbatzaileei dagokiena) kokatu behar du. Kokapen horren ondorioz, bateraezina da, oro har, zenbatzaileekin zein beste mailakatzaileekin.

2. argudioa. Euskarazko DS-ren barneko adjektiboek nekez onartzen dute osagarririk:

- (43) a. emakume harroa                      b. \*emakume bere lanaz harroa (Trask 2003: 138)  
 c. poema zail hauek                      d. \* poema irakurtzen zail hauek  
 e. laranja onak                              f. \* laranja jateko onak

Hots, *F/adjektibo* buruaren osagarria IS edo beste FS bat izango da beti ere, baina ez adjektiboaren osagarri lexikoa. Hau ere, nekez azaltzen da DS barneko adjektiboak bere proiektzioa sortzen badu, baina espero izatekoa da F buru horren betegarria bada.<sup>14</sup>

3. argudioa. Beste argudio bat izen berezien eta adjektiboen jokabidetik abiatuta eman daiteke agian. Longobardik (1994) arrazoi badu eta unibertsalki izen bereziak D gunean (dela ageriko mugidaren ondorioz, dela LF-mugidaren ondorioz) interpretatzen diren izenak badira, orduan honako datuak argigarriak dira:

- (44) a. Axular (\*-a)                              b. \*zahar Axular  
 c. \* Axular zahar                              d. Axular zaharr-a<sup>15</sup>  
 e. gure/aspaldiko Axular (\*-a)              f. *Gero* idatzi zuen Axular (\*-a)

Alegia, euskarazko izen bereziek artikulua behar-beharrezkoa dute, adjektiboren bat tartean badago, baina ez bestela. Beste era batera esanda, adjektiboek *behaztopo* efektua dute I-D mugida litzatekeena eragozteko, baina ez dago horrelakorik ezkerretara dauden modifikatzaile sintagmatikoekin. Datu hauek honelako egitura eta aurkezpenetan pentsarazten digute.<sup>16</sup>

- (44') a. Axular                      (izena D gunean)                      b. \* t<sub>i</sub> zahar Axular<sub>i</sub> (izena D gunean)

<sup>14</sup> Paradoxikoki, hizkera batzuetako izenaren osteko erlatiboek adjektiboek osagarririk ez hartzeko duten ezina berretsiko lukete:

(i) a. *etorri den* emakumea                      b. emakume *etorri den*-a (cf. Oyarçabal 1985)

Honelako adibideak IS-ren *scrambling* mugidaren bitartez azaltzen dira seguru asko (cf. Artiagoitia 2006):


(ii) a. *etorri den* [emakume]-a                      → b. [<sub>IS</sub>emakume] *etorri den*-t<sub>IS</sub>-a

Analisi hau onartuz gero, badakigu osagarriekiko kontrastea zertan den: adjektibo baten osagarria txertatzeko modurik ez dago adjektiboaren osagarria FS bat edo IS delako. Hartara, ez dago \*[[*poema*] *irakurtzen* t<sub>IS</sub> *zailak*] bezalako sintagma bat sortzerik hasieratik bertatik \*[[*irakurtzen zail poemak*] zein \*[[*irakurtzen poema zailak*] sintagmak sortzerik ere ez dagoelako.

<sup>15</sup> Zalantzak uxatzeko, *Axular zaharra* diogunean, DS ez da nahitaez murrizgarria (e.g. ez dugu zertan aditzera eman beste Axular batzuk badirela), eta ez gaude, beraz, izen arruntaren erabilerean aurrean.

<sup>16</sup> Ikus Matushansky (2006) Longobardiren azterbidetik aldentzen den beste ikuspegi baterako. Nolanahi ere, euskara ez da ondo egokitzen Matushanskyren azterbidera eta artikulua presentzia ez dago interpretazio murrizgarriarekin lotuta: (44d)-k interpretazio murrizgarria izan dezake edo ez, baina adjektiboak berdin-berdin egiten du artikulua beharrezko. Bestelako ezker-modifikatzaileek (postposizio-sintagmak, perpaus erlatiboak) ez dute halako eraginik. Besterik da, beheraxeago eta 4. atalean argituako dudanez, IS osagaia ezkerrean mugitzen denean eta hurrenkera markatuak sortzen direnean.

- c. \*Axular zahar (izena *in-situ*)      d. Axular zaharr-a (izena *in-situ*)  
 e. gure Axular (\*a) (izena D-n)      f. Gero idatzi zuen Axular (\*-a) (id.)



Adjektiboek, buru direlako hain preseski, izena D gunera mugitzea eragozten dute; hori dela eta artikulua betegarria behar da D gune hori betetzeko. Aurreko lan batzuetan (Artiagoitia 1998, 2002) euskarazko I-D mugida hau ezkutukoa edo LF-mailakoa zatekeela aurreratu nuen, baina, Longobardik (1994) *artikulu betegarria* deritzona adjektiboren bat dagoenean soil-soilik behar dela ikusita, badirudi mugida agerikoa dela, eta artikulua azken baliabide modura (izenak D gunea bete ezin dezakeenean) behar dela.

Beñat Oyharçabalek (k. p.) gogora dakarrenez, egia da izen bereziek artikulua behar dutela beste kasu batzuetan, adjektiborik gabe ere:

- (46) a. Etxeberri Sarakoa (cf. Sarako Etxeberri)  
 b. Isabel bigarrena (cf. bigarren Isabel)

Hauetaz esango nuke, (44d) ez bezala, ez direla benetan hurrenkera neutroak edo ñabardurarik gabeak: *Etxeberri Sarakoa* DS-k balio murrizgarria edo zehaztailea dauka (Mujika 1999: 1149) eta Sarakoa ez diren beste Etxeberri batzuk direla inplikatzeko du. Antzera esan liteke *Isabel bigarrena* adibideaz: hurrenkera hau beren-beregi erabiltzen dugu Isabel izena duten lagunengatik ireki baten barnean zein aukeratzen dugun nabarmentzeko: hots, halako zerrenda ireki bat badela ematen da aditzera. Egia da, bai, kasu honetan hurrenkera neutroak ere, ordinalaren izaeratik beragatik, beste Isabel batzuk inplikatzeko dituela: baina *bigarren Isabel* sintagmak hirugarren Isabelik zertan adierazi ez duen moduan, *Isabel bigarrena*

sintagmak aukera hori zabalik uzten du *de facto*. Zergatik ageri da artikulua hauetan guztietan orduan? Nire irudiko, DS hauek guztiek duten interpretazio berezia (balio murrizgarria edo kontrastiboa adieraztea) IS osagaiaren ezkerreko *scrambling*-aren bidez azal liteke:

- (47) a. [DS Sarako Etxeberri  $\emptyset$ ] → [DS Etxeberri<sub>i</sub> Sarako t<sub>IS</sub>  $\emptyset$ ] (← -a)  
 b. [DS bigarren Isabel  $\emptyset$ ] → [DS Isabel<sub>i</sub> bigarren t<sub>IS</sub>  $\emptyset$ ] (← -a)

Mugida honen arrazoia IS nolabait aukera egiteko multzotzat hartu eta atzean utzitako modifikatzailea nabarmentzea litzateke, Bersteinek erromantzezko DS-etarako proposatu duenaren antzera.<sup>17</sup> Bada orduan alderik *I berezia-Adj-Artikulua* eta *I berezia-Post-Sintagma-Artikulua* hurrenkeren artean: lehena hurrenkera arrunta litzateke, bigarrena IS-ren ezkerreko mugidaz sortua, markatua (izen arruntetan ikusten denaren parekoa); artikulua betegarria kasu bietan antzeko arrazoiagatik behar da: azken baliabide modura, izen bereziak D gunea bete ezin duelako.<sup>18</sup>

4. argudioa. DS barneko adjektiboak burutzat hartzeko laugarren arrazoia negatiboa da: adjektibo ez diren modifikatzaileen itxura; berauek sintagma dira eta izenaren ezkerretara daude hurrenkera arruntean, hain zuzen ere:

- (48) a. *etxe honetako* biztanleak vs \* biztanle *etxe honetakoak*  
 b. *hiru urteko* ardo hau vs \* ardo *hiru urteko* hau  
 c. filologiako *lehen mailako* ikasleak vs \* filologiako ikasle *lehen mailakoak*  
 d. *Itun Berriaren* itzultzailea vs \* itzultzaile *Itun Berriarena*

Datu honek ere, erabakigarria ez bada ere, iradokitzen du adjektiboak izenaren eskuinera dauden modifikatzaile bakarra izateko arrazoia euren buru izaera izan litekeela.

<sup>17</sup> Antzera gertatzen da *okela lapikokoa* bezalako adibideetan; honek aditzera ematen du lapikokoa ez diren bestelako okelak daudela; *lapikoko okela*, berriz, neutroa da. Ikus Zubiri (2000: 394hh) antzeko datuen deskribapen eta eztabaida interesgarri baterako.


<sup>18</sup> Aitortu behar dut, hala ere, *Ebro ibaia* edo *Pagasarri mendia* bezalako aposizioez ez daukadala zer esan handirik: hor artikulua nahitaezkoa da, baina ikustekoa litzateke izen arrunta edo berezia den ardatza. Bigarren hipotesian, izen arruntak adjektiboaren kokapena izan lezake, eta hortik letorke artikulua betegarriaren beharra.

5. argudioa. Azkenik, merezi du aipatzea Scotten (2002) azterbidean bertan aurreikusten dela hizkuntza batzuetan espezifikatzaile gunean kokatzen dena buru bezala gauza daitekeela beste hizkuntza batzuetan:

- (49) “it is quite possible that there exist other languages in which such DP-internal functional heads are not empty” (Scott 2002: 98 or.).

Gauzak horrela, baliteke euskara aukera hori gauzatzen duten hizkuntzetariko bat izatea.

Ondorioz, Cinque-Scott azterbidearen barruan zirrikitu bat sumatzen dugu euskarazko adjektiboak euren azterbidearen arabera ikertzeko, baina buru-parametroak iragarriko lukeen hurrenkerari eutsiz. Honelako zerbait:



Egin dezagun (50)-eko analisiaren balorazio txiki bat: ikuspegi honek aditzera ematen du adjektibo-segiden ikuspegi *kartografikoan* ere DS-ren barneko hurrenkerera buru-parametroaren bidez azal daitekeela: ez dago, hartara, ikuspegi horren eta antisimetriaren artean halako nahitaezko batasunik. Bestetik, [osagarri-X] ikuspegiak *mugidarik gabe* azaltzen du adjektiboen hurrenkerera, eta honek bat egiten du euskarazko DS barneko ***I-Adj***



osagaien pobretasun morfosintaktikoarekin (berauen artean ez dago kasu edo  $\Phi$ -tasun komuntadurarik). Izan ere, izen eta adjektiboen arteko hurrenkeraren berri emateko asmoz proposatu diren DS-ren barneko I-mugida edo IS-mugida (cf. Cinque 1994, 2003) hizkuntzaren aberastasun morfosintaktikoarekin lotu izan dira. Hirugarrenez, aitortu behar da antisimetriaren azterbidea bateragarria izan daitekeela *adjektiboak = buru* ikuspegiarekin (32-ko diagraman adjektiboak F buruaren azpian kokatuta), baina ez litzateke bateragarria adjektiboek egiten duten behaztopo-efektuarekin (cf. 45) eta susmagarri gelditzen da XS modifikatzaileek ageri ez duten behaztopo-efektuarekin (cf. 48): bestela esanda, antisimetrian IS-ren mugida ezinbestekoa da berau adjektiboen ezkerretara kokatzeko, baina mugida hori galarazi egin behar da gainerako modifikatzaileen eta IS osagaiaren arteko hurrenkera eratortzeko.

Azkenik, eszeptikotasun puntu batekin amaitu nahiko nuke atal hau: litekeena da hemen plazaratu dugun adjektibo-segiden ikuspegi kartografikoa erratua izatea (Zwart 2006, Truswell 2007). Zwartek modifikazio zuzena eta adjektiboak buru izatea elkarrekin lotzen direla iradokitzen du (zeharkako modifikazioa edo erabilera predikatiboa eta adjektiboek sintagma itxura edukitzea elkarrekin lotzen diren bezala); era berean, Truswellek (2007) ere zalantzan ipintzen du adjektibo metatuen funtzionamendua buru funtzionalen hierarkia zurrunaren mendean dagoelako ideia; alde horretatik, hemen proposatu dudana *adjektiboak = buru* ikuspegia zuzena izan liteke euskararako. Hipotesi honetan adjektiboak izenaren eskuinera eta determinatzailearen aurretik izateak segituko luke, itxura batean behintzat, buru parametroaren ondorio izaten, baina ez leukake zerikusirik buru funtzionalen hierarkia batekin. Adjektibo buruen ikuspegi honek lagundu ahal digu Cinque-Scotten azterbidean azaltzen gaitza den kontu bat: nola ulertu behar da adjektiboak buru funtzionalen posizioan gauzatzea, egungo euskal adjektiboak kategoria itxia ez badira? Arazo erantsia dauka, beraz, (50)-eko proposamena besterik gabe onartzeak. Nolanahi ere, Cinque-Scott azterbidearekin edo gabe, euskaraz DS-ren barnean (izenaren eskuineko) adjektiboak buru direlako aldarrikapena sendoa iruditzen zait. Geroko ikerketek hau argituko ahal dute.

#### 4. Mendebaleko erakusleak edo [Erakuslea-osagarria-D] hurrenkera

Atal honetan, mendebaleko Determinatzaile Bikoitzeko Egiturak izango ditut aipagai; argudiatuko dut egiturok buru parametroaren arabera erraz asko aztertu daitezkeela baina antisimetriaren arabera nekezago. Hona hemen buruan ditudan egiturak:

- (51) a. hau neska {gazteau / gaztea} (cf. *au zuen alaba maittagarriau* (Etxeita))  
 b. hori neska {gazteori / gaztea}  
 c. hónek lau sagar {gorriok / gorriak} (cf. *ónek berrogetamar dukatok* (Etxeita))  
 d. hórrek {neskok / neskak}  
 e. ha neskea; harek neskak

Alegia, mendebaleko euskararen ezaugarria da (Zuazo 1998) erakusleak DS-ren aurretik ageri direla, eta D buruan dela erakuslea bera (artikulua balitz bezala), dela artikulua agertzen direla.<sup>19</sup> DS amaierako artikulua/erakusle alternantzia (i.e. *-a, ak* versus *-au/-ori, -ok*) hizkeraren arabera egiten da.


Erakusleen inguruan hiru ohar egin nahi ditut, bibliografia sortzailean eman izan diren datuetan oinarrituta:

- a. hainbat hizkuntzalarik erakusleak (deixi-)sintagmatzat hartzen dituzte (Brugè 1996, Brugè & Giusti 1996, Giusti 1997, Brugè 2002);  
 b. beste batzuetan erakusleak D gunean dauden buruak direla proposatu izan da (Roca 1996, Bernstein 1997, 2001);  
 c. hizkuntza askotan erakusleak eta artikulua batera agertzen dira, baina elkarrengandik banatuta; beste batzuetan (hungariera, greziera) biak ageri dira DS proiektzioan.

Honek guztiak halako aurkezpenak sortzen ditu erakusleen syntaxiaz den bezainbatean:

---

<sup>19</sup> Artikulu hurbila dugu pluralean lehen eta bigarren graduko erakusleekin.




Batetik, DS definitu/zehaztu batean, erakusleen kokapena aldatu egin daiteke autoretik autorera: batzuek erakusleak D gunea bera betetzen du (=52a1), beste batzuek [espez, D] gunea (=52a2). Erakuslea eta artikulua batera agertzen diren hizkuntzen kasua azaltzeko, badirudi (52b) eta (52c) aurkezpenak zilegi direla: kasu batean, artikulua eta erakuslea banatuta ageri direnean, artikulu betegarri batek betetzen du D gunea, eta erakusleak DS barneko kokapena izango luke; bestean, elkarren ondoan agertzea erakusleak [espez, D] gunea eta artikuluak D gunea betetzeak azaltzen omen du. Lehen aukera (= a, erakuslea bakarrik agertzekoa) soilik duten hizkuntzak italiara, frantsesa, ingelesa lirateke: hor erakuslea DS-ren buru agertzen da inolako artikulurik gabe. Gaztelania, errumaniera, katalana, berriz, (a-b) alternantzia erakusten duten hizkuntzak lirateke: bertan, edo erakuslea agertzen da DS-ren buru, edo artikulua eta erakuslea agertzen dira batera, baina bata bestetik urrun edo banatuta. Bigarren (=b) aukera soilik dutenak ere badira: galesa edo irlandera, esaterako. Azkenik, (c) aukera besterik ez dutenak ere badira: hungariera, grekera; hauek, sistematikoki, erakuslea eta artikulua, biak gauzatzen dira, elkarren ondoan gauzatu ere. Azpimarratu behar da aukera hauek guztiak hizkuntza buru-lehenetan gauzatzen direla.

Gatozen orain euskarara: nola eman beharko genuke mendebaleko euskararen eta gainerako euskalkien arteko alde berri? Aukera bat behintzat sumatzen dut nik: jo dezagun mendebaleko euskara dela erakusleak sistematikoki (deixi-)sintagmatzat hartzen dituen bakarra:

- (53) a. euskara estandarrean: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek... = D  
 b. mendebaleko euskararen: hau, hori, ha, hónek, hórrek, hárek = *Erak-Sintagma*

Honek esan nahi luke, D gunea ere beterik dagoela egiaztatuta, mendebaleko euskarak (52c) aukera gauzaten duela,<sup>20</sup> hots euskalki horrek [espez, D] gunea eta D gunea betetzea aukeratzen duela erakusleak lehen gunea betetzen duelarik. Analisi hau beharrezkoa dugu euskaraz, edozein kasutan, *gu euskaldunok* bezalako sintagmen berri emateko ere (cf. Artiagoitia 1998, Rebuschi 2000):



Hartara, honelako zer edo zerk bereizten du mendebaleko euskara:

- (55) (mendebaleko) euskaran, behin [espez, D] gunea zehaztua den elementu batek beterik, D gunea *ere* gauzatu behar da. (cf. hungarieraz bezala; = 52c aukera)


Puntu honetaraino helduta, hau galdetu daiteke: zein interes daukate mendebaleko erakusleek analisi hau onartuz gero? Ba, hain zuzen ere, *espez-osagarri-buru* hurrenkera daukatela, buru parametroa onartuaz espero izatekoa dena, eta antisimetriak inola ere aurreikusten ez duena:

- (56) *espez-osagarri-buru* = [espez, D]-QS-D

- a. hau neska gazteau      hau [neska gazte]-au  
b. hórrek lau sagarrok/-ak      hórrek [lau sagar]-ok/-ak

Atzera ere, egia da antisimetriaren analisisan hurrenkera honek azalpena izan dezakeela, baina nekezagoa da azalpen hori. Cinqueren tankerako azterbide batean badirudi honelako egoera batera heltzen garena:

<sup>20</sup> Zehatzagoak izateko: mendebaleko euskarak (52c) *ere* gauzaten du, aukera orokorra ere existitzen den neurrian: *neska hau* sintagma zilegi dela *hau neska* horren ondoan. Hau ere ikerkizun da: zein den aukera bien arteko aldea, alderik bada behintzat. Ni neu ez naiz gai izan bereizketaren gakoa aurkitzeko.



Hortik aurrera, zein litzateke hurrengo mugida? *Lau sagar gorri* osagaiaren garraioa erakuslearen ezkerretara, gehi erakuslearen beraren ondorengo ezker-mugida? Bigarren mugida horren arrazoia erabat *ad hoc* litzateke, mendebaleko egitura bereziaren hurrenkera eratortzeko propio behartua. Bigarren aukera bat badirudi hauxe izan litekeela: batetik, lehenago (=13) euskara arrunterako Oyharçabalek proposatu bezala, *Erak-Num-I-Adj* arrunta eratorriko litzateke, eta ondoren, goragoko posizio batean dagoen artikulua ezkerretara mugituko litzateke egitura osoa:

- (58) a. -ok ... [hónek lau sagar gorri] (cf. 13a)  
 b. [hónek lau sagar gorri]<sub>i</sub>-ok t<sub>i</sub>

Bigarren azterbide honetan, hala ere, paradoxa batzuk sumatzen dira: IS osagaia oso sakon dago txertatuta [hónek lau sagar gorri] osagaian, eta [XS [IS]] tankerako *pied-piping* edo garraioa barik [XS [XS [IS]]] tankerakoa beharko genuke, Cinqueren beraren azterbidean oso zalantzakoa dirudien aukera. Beste alde batetik, amaieran dugun hurrenkera (= *Erak-Num-I-Adj*) Cinqueren (7b) hurrenkerari dagokio, “maiz” agertzen den eta arrunta den hurrenkera; baina hurrenkera hori eratortzeko, beharrezkoak lirateke Cinquek berak oso markatutzat jotzen dituen mugidak: (a) IS-ren mugida partziala (markatua dena); (b) [XS [IS]] tankerako garraioa (oso markatua dena) bigarren adjektibo bat dagoen bakoitzean; eta (c) [XS [XS [IS]]] tankerako garraioa *honek lau sagar gorri* artikulua ezkerretara lerratzeko (oso-oso markatua litzatekeena, posible balitz). Alegia, Cinquek aurreikusitako (7b) kasuan ez bezala, mendebaleko *Erak-Num-I-Adj* hurrenkera eratortzea, artikulua ere ageri duenez, egitura



- b. nire laztantxoa vs laztantxo nirea (= laztantxo<sub>IS</sub> nire-[<sub>IS</sub> t]-a)

Ildo beretsuan, badirudi buru-mugimendua ere izan daitekeela DS-ren barnean, izen bereziei dagokienez:

- (62) a. Axular (izena D gunean)                      b. \* t<sub>i</sub> zahar Axular<sub>i</sub>  
 c. \* Axular zahar (izena *in-situ*)                      d. Axular zaharr-a  
 e. gure/aspaldiko Axular (\*a)

Eskuinerako buru-mugida ontzat eman izan dute perpaus mailan bai Lakak (1990), bai Ortiz de Urbinak (1989, 1999), bai Elordietak (2001) ere. Hain argi ez dagoena, ordea, hauxe da: euskarazko DS barruan perpausko ezker-periferian arruntak diren foku- eta NZ-tankerako mugidarik baden; halakorik izatekotan, (61)-eko egiturak lirateke hautagai hoberenak.<sup>23</sup>

Artikulu hau laburbilduaz, esango nuke euskarazko DS-en hiru ezaugarri nabarmen (zenbatzaileak izenaren alde bietara agertzea; adjektiboak izenaren eskubira agertzea eta buru ezaugarriak edukitzea; eta mendebalean *Erak-osagarria-D* egiturak izatea) arazo handirik gabe azal daitezkeela buru-parametroa erabiliaz. Ondorioz, honelako egitura sumatu uste dut euskarazko DS-etan:

- (63) [<sub>DS</sub> [<sub>PosS</sub> Gen<sub>sub</sub>, Gen<sub>obj</sub> [<sub>QS</sub> [<sub>FS</sub>... [<sub>IS</sub> S O I] ...F<sub>n</sub>] Q] Pos] D]]]]

Non F<sub>n</sub> saila adjektibo-motei dagokien eta Gen (=Genitiboak) artikulu honetan aztertu ez ditugun *Posesibo* buruaren espezifikatzailean dauden sintagmak diren. Cinqueren antisimetriaren ikuspegiak, aitzitik, estrategia bikoitza eta kontraesankorra eskatzen du lehen eta hirugarren ezaugarri horien berri emateko eta, modu orokorragoan, justifikatuta ez dauden osagaien mugida sarriak eskatzen ditu, euskarak DS barruan erakusten duen ahultasun morfosintaktikoarekin kontraesanean dagoena.

<sup>23</sup> *Foku* hau informazio-egiturarekin baino gehiago hurbiltasun afektiboarekin lotuko litzateke, eta posesiboaren gainetik kokatuko litzateke (dela [espez, D] posizioan, dela DS-ren gaineko Fok-Sintagma batean; azken hau Dimitrova-Vulchanova & Giusti (1998) eta Cinque (2003) lanetan proposatzen da esaterako).

Ñabardurekin bada ere, (63)-koa Longobardik emandakoaren ispilu irudia dela dirudi; berak, funtsean, ardatz funtzionalen segida bi ematen ditu, eta parametrizatzeko aukera mugatu batzuk:

- (64) a. lehen ardatza: [D [Gen<sub>sub</sub> [ H [Gen<sub>obj</sub> [IS] ]]]]
- b. bigarren ardatza: [AdjS F<sub>3</sub> [AdjS F<sub>2</sub> [AdjS F<sub>1</sub>]]]
- F<sub>1</sub> = adjektibo tematikoak;
- F<sub>2</sub> = modu-adjektiboak;
- F<sub>3</sub> = hiztun-adjektiboak [Longobardi 2001: 598-tik moldatua]

Alegia, hiru buru funtzional aurkituko genituzke D-ren eta I-ren artean D beraz aparte, eta adjektibo mota bakoitzari lotutako buru funtzional bana: printzipioz H burua (64b)-ko edozein F buruarekin lot liteke, baina normalena, Longobardiren arabera beti ere, H burua adjektibo guztien azpitik/atzetik kokatzea litzateke (H =F<sub>1</sub> funtsean). Euskarari dagokionez, nik neuk behintzat ez dut osagarriari lotutako genitiborako posizio berezirik ikusten eta,<sup>24</sup> joera neutroenaren kontra, H burua (= Q funtsean) adjektibo ororen gainera kokatuko litzateke. Honen guztiaren argitara, hemen aurkeztutako ikerketa hau bide onetik doala pentsa genezake, ez baitugu inola ere espero euskal gramatika Gramatika Unibertsalak ezarritako muga eta parametroetatik kanpo ibiltzea.

### Aipamen bibliografikoak

- Abels, Klaus eta Ad Neeleman. 2006. "Universal 20 without the LCA". University of Tromsø & University College London eskuizkribua.
- Abney, Steve. 1987. *The English Noun Phrase in its Sentential Aspect*. MIT doktorego tesia.
- Alexiadou, Artemis. 2001. "Adjective Syntax and Noun Raising: Word Order Asymmetries in the DP as the result of Adjective Distribution". *Studia Linguistica* 55: 3, 217-248.
- Artiagoitia, Xabier. 1998. "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan". *Uztaro* 27, 33-61.

<sup>24</sup> Hau da, genitibo osagarriak eta subjektuak ez daukate Istik kanpo posizio bana, baizik eta biak gauzatzen dira Posesibo-Sintagmaren espezifikatzailean; hori da behintzat Artiagoitia (2006: 5. kap) lanean lortzen dudana emaitza.



- Artiagoitia, Xabier. 2002. "The functional structure of the Basque noun phrase". In X. Artiagoitia, P. Goenaga eta J. A. Lakarra (arg), *Erramu Boneta: Festschrift for Rudolf P. G. de Rijk*. Bilbo: ASJUren gehigarriak. 73-90.
- Artiagoitia, Xabier. 2004. "Izen-sintagmaren birziklatzea: IS-tik izenaren inguruko funtzio-buruetara". In P. Albizu eta B. Fernández (arg.), *Euskal gramatika XXI. Mendearen atarian: arazo zaharrak, azterbide berriak*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia-EHU. 11-38.
- Artiagoitia, Xabier. 2006. *Euskarazko izen-sintagma: arkitektura eta egitura funtzionala*. EHUko eskuizkribua.
- Bernstein, Judy. 1993. *Topics in the syntax of nominal structure across Romance*. CUNY doktorego tesia.
- Bernstein, Judy. 1997. "Demonstratives and reinforcers in Romance and Germanic languages". *Lingua* 102, 87-113.
- Bernstein, Judy. 2001. "Focusing the "right" way in Romance determiner phrases". *Probus* 13, 1-29.
- Brugè, Laura. 1996. "Demonstrative Movement in Spanish: A Comparative Approach". *University of Venice Working Papers in Linguistics* 6.1, 1-53.
- Brugè, Laura. 2002. "The positions of Demonstratives in the Extended Nominal Projection". In G. Cinque (arg.), *Functional Structure in DP and IP*. Oxford: Oxford University Press. 15-53.
- Brugè, Laura eta Giuliana Giusti. 1996. "On Demonstratives". *Glow Newsletter* 36, 24-25.
- Cinque, Guglielmo. 1994. "On the evidence for partial N-movement in the Romance DP". In G. Cinque (arg.), *Paths towards Universal Grammar. Essays in honor of Richard S. Kayne*. Washington DC: Georgetown University Press. 85-110.
- Cinque, Guglielmo. 1999. *Adverbs and Functional Heads. A Cross-Linguistic Perspective*. Oxford: Oxford University Press.
- Cinque, Guglielmo. 2003. "The dual source of adjectives and XP vs N-raising in the Romance DP". NELS 34 jardunaldietan aurkezturiko txostena.
- Cinque, Guglielmo. 2005. "Deriving Greenberg's Universal 20 and Its Exceptions". *Linguistic Inquiry* 36.3, 315-332.
- Dimitrova-Vulchanova, Mila eta Giuliana Giusti. 1998. "Fragments of Balkan Nominal Structure". In A. Alexiadou eta C. Wilder (arg.), *Possessors, Predicates and Movements in the Determiner Phrase*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 333-360.

- Dixon, Robert M. W. 1977. "Where have all the adjectives gone?". *Studies in Language* 1, 19-80.
- Dryer, Matthew S. 1992. "The Greenbergian Word Order Correlations". *Language* 68, 81-138.
- Eguren, Luis. 2006. "Non-canonical uses of the article in Basque". *Proceedings of 32<sup>nd</sup> Meeting of the Berkeley Linguistic Society* liburuan agertzeko.
- Eguzkitza, Andolin. 1993. "Adnominals in the grammar of Basque". In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative Studies in Basque Linguistics*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 163-187.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT series.
- Emonds, Joseph. 2000. *Lexicon and Grammar: The English Syntacticon*. Berlin: Mouton de Gruyter.
- Etxepare, Ricardo. 2003. "Negation". In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin-New York: Mouton de Gruyter, 516-564.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia. 1993. *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Giusti, Giuliana. 1997. "The categorial status of determiners". In L. Haegeman (arg.), *The New Comparative Syntax*, London: Longman, 95-123.
- Greenberg, Joseph. 1966. "Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements". In J. Greenberg (arg.), *Universals of language*. Cambridge MA: MIT Press. 73-113.
- Goenaga, Patxi. 2007. "Euskal neurri-sintagmen azterketa baterako: zenbat X, zenbat X-ago, zenbat X gehiago". EHUko eskuizkribua.
- Hetzron, Robert. 1978. "On the relative order of adjectives". In H. Seiler (arg.), *Language Universals*. Tübingen: Gunter Narr Verlag. 165-184.
- Huang, James. 1994. "More on Chinese Word Order and Parametric Theory". In B. Lust, M. Suñer, eta J. Whitman (arg.), *Syntactic Theory and First Language Acquisition: Cross-Linguistic Perspectives*. Hillsdale, NJ: Erlbaum. 15-35.
- Kayne, Richard. 1994. *The Antisymmetry of Syntax*. Cambridge MA: MIT Press.
- Koopman, Hilda. 1984. *The Syntax of Verbs: From Verb Movement Rules in the Kru Languages to Universal Grammar*. Dordrecht: Foris.

- Laka, Itziar. 1990. *On the Nature of Functional Categories and Projections*. MIT doktorego tesia.
- Longobardi, Giuseppe. 1994. "Reference and Proper Names: A Theory of N-Movement in Syntax and Logical Form". *Linguist Inquiry* 25.4, 609-665.
- Longobardi, Giuseppe. 2001. "The structure of DPs: some Principles, Parameters and Problems", in C. Collins and M. Baltin (arg), 562-601.
- Matushansky, Ora. 2006. "Why Rose is the Rose: On the use of definite articles in proper names". In O. Bonami & P. Cabredo (arg.), *Empirical Issues in Syntax and Semantics* 6. 285-307.
- Mujika, Juan Antonio. 1999. "Erlatibo arrunta zehaztaile? Teoriak eta datuak". *Euskera* 44:2, 1139-1158.
- Newmeyer, Frederick J. 2005. *Possible and Probable Languages*. Oxford: Oxford University Press.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1999. "Force Phrases, Focus Phrases and Left Heads in Basque". In J. Franco eta A. Landa (arg.), *Grammatical Analysis of Romance and Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 179-194.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2008. "Indar sintagmak, Foku sintagmak eta ezkeraldeko buruak euskaran". Liburu honetan.
- Oyharçabal, Beñat. 1985. *Les relatives en Basque*. Paris: Département de Recherches Linguistiques.
- Oyharçabal, Beñat. 2006. "DSaren barneko zenbait ordena kontu". In B. Fernández eta I. Laka (arg.), *Andolin Eguzkitza gogoan*. Bilbo: EHU, 741-756 .
- Rebuschi, Georges. 2000. "À propos d'une construction non-standard du basque". *Lapurdum* 5, 237-282.
- Roca, Francesc. 1996. *La determinación y la modificación nominal en español*. Universitat Autònoma de Barcelona doktorego tesia.
- Scott, Gary-John. 2002. "Stacked Adjectival Modification and the Structure of Nominal Phrases". In G. Cinque (arg.), *Functional Structure in DP and IP*. Oxford: Oxford University Press. 91-120.

- Sproat, Richard eta Chilin Shih. 1988. "Prenominal adjectival ordering in English and Mandarin". In *Proceedings of the Eighteenth Annual Meeting of the North Eastern Linguistics Society*. 465-489.
- Sproat, Richard eta Chilin Shih. 1991. "The cross-linguistic distribution of adjective ordering restrictions". In C. Georgopoulos & R. Ishihara (arg.), *Interdisciplinary approaches to language*. Dordrecht: Foris. 565-593.
- Trask, Robert Lawrence. 1981. *Synchronic and diachronic studies in the grammar of Basque*. University of London doktorego tesia..
- Trask, Robert Lawrence. 2003. "The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names". In J. I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 113-170.
- Travis, Lisa de Mena. 1989. "Parameters of Phrase Structure". In M. R. Baltin eta A. S. Koch (arg.), *Alternative Conceptions of Phrase Structure*. Chicago: University of Chicago Press. 263-279.
- Truswell, Robert. (2007) "Attributive adjectives and nominal templates". University College London eskuizkribua. *Linguistic Inquiry*-n agertzeko.
- Zabala, Igone. 1999. "Izen-sintagma konplexuak: adjektiboen eta izenlagunen segidak". In J. C. Odriozola (arg.), *Zenbait gai euskara teknikoaren inguruan*. Bilbao: EHU-UPV. 107-157.
- Zuazo, Koldo. 1998. "Euskalkiak gaur". *Fontes Linguae Vasconum* 30. 191-233.
- Zubiri, Juan Jose. 2000. "Izen sintagmaren egitura determinazioaren arabera". *Fontes Linguae Vasconum* 85, 367-403.
- Zwart, Jan-Wouter. 2006. "Uncharted territory? Towards a non-cartographic account of Germanic syntax", Groningen University-ko eskuizkribu argitaragabea.

*Xabier Artiagoitia*

<xabier.artiagoitia@ehu.es>

*Euskal Herriko Unibertsitatea*

*Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila*

*Unibertsitataren ibilbidea 5*

*01006 Gasteiz*

# Simetria ala Simetria eza? Hitzordenaz hausnarrean<sup>1</sup>

Itziar Laka Mugarza

ELEBILAB Psikolinguistika Laborategia  
(UPV/EHU)

## Laburpena

*Lan honetan, giza hizkuntzek ageri duten hurrenkeratzea azaltzeko asmotan garatu diren buru-parametroaren eta antisimetriaren hipotesiaren inguruko gogoeta eskaintzen dut, batik bat hizkuntzaren jabekuntzan eta prozesamenduan aurkitzen dugun ebidentzia kontuan harturik. Hurrenkeratzea bera hausnargai hartzen dut lehenik eta, hurrengo, hurrenkeratze ereduak azaltzeko hipotesi nagusi biak. Lanean zehar, keinu- eta soinu-hizkuntzak, jabekuntzaren lehen-lehenengo aroak eta euskal perpausen hitzordenaren prozesamendua ulertzeko egin ditugun lehen urratsak darabiltzat mintzagai. Gogoeta honen ondorio nagusia, hipotesi antisimetrikoaren aldeko ebidentziaren urritasuna da.*

## 0. Atarikoak

Hizkuntza guztiek ez dute hitz-hurrenkera bera erabiltzen proposizio bera adierazteko, jakina denez: euskaraz *katuak saguak harrapatzen ditu* esan ohi dugu, baina gaztelaniaz *el gato caza ratones*, eta ingelesez *the cat chases mice*, informalki itxura dezakegun [*harrapatu (katua, saguak)*] proposizioa adierazteko. Hizkuntzalaritzan, tipologian bereziki, asko aztertu izan da hurrenkera-ereduen gaia (Greenberg 1963, Dryer 1992) eta, ondo samar ezagutzen diren esparruetan gertatu ohi den legez, behin hizkuntza askotako datuak jaso eta eredu nagusiak aurkitutakoan, hipotesi orokorrak sortu dira, eredu nagusi horiek azaltzen saiatzeko.

Hizkuntzalaritza sortzailean hipotesi nagusi bi ditugu gaur egun hurrenkera-ereduak azaltzeko: batetik, *Hatsarre eta Parametroen* teoriarekin bateratsu sortu zen *Buru-parametroa* (Chomsky 1981), eta bestetik *Sintaxiaren Antisimetria* (Kayne 1994). Begietan duzun artikulua

---

<sup>1</sup> Eskerrak eman nahi dizkiet antisimetriaren hipotesiari buruzko jardunaldien antolatzaileei, X. Artiagoitia eta A. Elordietari bertan parte hartzeko aukera emateagatik; era berean, eskerrak eman nahi dizkiet jardunaldietan parte hartu zuten denei, eta bereziki X. Ormazabali iradokizun eta desadostasun pizgarriengatik. Pertsona hauek guztiek, noski, ez daukate lan honetan aurki daitezkeen hutsen inolako errurik. Lan hau UPV/EHUko GIU06/52, MEC-eko SEJ2007-60751/PSIC eta CSD2007-00012 ikerkuntza proiektuen babespean burutu da.

honetan, batik bat hizkuntzaren izaera, jabekuntza, gaixotze eta prozesatzeari buruz jardungo dut, hipotesi bi horien alde sendo eta ahulak argitzen laguntzeko asmoz.

Ondoko lerroetan, hurrenkera-eredu nagusiak azaltzeko azken urteotan eskaini diren hipotesi biren inguruko gogoeta arin bat eskaintzen dut. Lehenik, hurrenkeratzeari berari buruzko zenbait ohar egingo ditut, soinu- eta keinu-hizkuntzen arteko antzekotasunen haritik. Hipotesi biak laburki aurkeztu ondoan, jabekuntzaren eta prozesamenduaren alorretatik iradoki daitezkeen aldeko zein kontrako gertakari batzuk aztertuko ditut. Hausnarketa honen ondotik, ateratzen dudana ondorioa da Kaynek (1994) proposatutako hipotesi antisimetrikoaren aldeko aztarnak gutxiago eta ahulago direla.

## 1. Hurrenkeratzeaz

### 1.1. Zergatik hurrenkeratzea?

Hausnar dezagun lehenik hurrenkeraren nolakotasuna; har dezagun adibidez euskaraz Determinatzaile Sintagmaren egitura adierazten duen araua:<sup>2</sup>

(1) DS → IS+D

Formula horrek adierazten du zer antolaketa darabilgun euskaraz Determinatzaile Sintagmak sortu-ulertzean. Epsteinek (2007) dioskunez,<sup>3</sup> arauok arazo bereizi biri buruzko informazioa eskaintzen digute: hizkuntza-aleen *taldekatzeaz* batetik, eta haien arteko *hurrenkeratzeaz* bestetik. Adibidez, (1) arauaren kasuan:

(a) *Taldekatzea*: DS-k elementu bi bil ditzake, izen(sintagm)a eta determinatzailea.

Beraz {katu, a} taldea DS da.

(b) *Hurrenkeratzea*: Euskaraz izen(sintagm)a determinatzailea baino lehen ekoizten da.

<sup>2</sup> Euskarazko DS-ri buruz xehetasunik nahi duenak, ikus adibidez Artiagoitia (1998), Trask (2003), Oyharçabal (2006).

<sup>3</sup> Jatorrizko aipuan: "A defining formal characteristic of such rules is that each one expresses two kinds of information, namely containment relations and precedence relations. For example, (7) above [*testuan ageri den (1) erregela da aipuko (7) hau*] expresses your knowledge that

(i) a. A noun phrase may consist of, or contain, two elements, namely a determiner and a noun. Equivalently, a set of the form {noun, determiner} is known by you to be one kind of noun phrase.

b. The determiner (e.g. *the*) precedes the noun (e.g. *dog*). (Epstein 2007:56-57)

*Taldekatze* (edo *sintagmakatze*) eredu unibertsala da uste dugunez, baina *hurrenkeratzea* hizkuntzen araberakoa. Zergatik aurkitzen ditugu hizkuntza-formetan *taldekatzea* eta *hurrenkeratzea*? Minimalismoaren ikuspegitik (Chomsky 1995) *taldekatzea* hizkuntzak lotzen dituen atal kognitiboetatik batek dakar, hots, atal semantiko-kontzeptualari zor zaio; haren betekizunetara egokitutako antolaketa da. Esanahiak *agintzen* duen antolaketa da taldekatzearena, semantikoki zer-zerekin doan “jakin” behar duelako atal kontzeptual-intentsionalak hizkuntza-forma interpretatu ahalko badu. Izan ere, hizkuntzak anbiguotasunik gabeko taldekatzeak eskaintzen dizkio semantikari. Har ditzagun (2a,b) adibideak:<sup>4</sup>

- (2) a. [[amamaren auzo]ko lagunak]  
 b. [amamaren [auzoko lagunak]]

Hurrenkeran, (2a) eta (2b) berdinak dira, baina taldekatze desberdina dute; horrexegatik jasotzen dituzte adiera bereziak, izan ere: (2a) esapideak (amamaren+auzoa) taldea osatzen du; beraz, “amamaren auzo” bati buruzko zerbait aipatzen gabiltza, kasu honetan hango lagunak, eta ez, esaterako, “osabaren kalekoak”. Bigarrenak (2b) ez ditu (amamaren) eta (auzoko) osagaiak beste osagai batean biak bakarrik biltzen, eta, beraz, bai amamarenak eta baita auzokoak ere diren lagunak ditu mintzagai, ez esaterako, amamaren lagunak izan arren auzokoak ez direnak. Ondorioz, (2a) adibideko lagunek ez dute nahitaez amamarenak izan behar, baina bai haren auzokoak, eta (2b) adibidean aitzitik, amamarenak eta auzokoak izan behar dute lagun horiek derrigor. Jakina da hizkuntza-formak “sintaktikoki anbiguoak” izan daitezkeena, goiko adibideotan bezala. Anbiguotasun hori *taldekatze ezberdinak baina hurrenkeratze bera* duten hizkuntza-formek erakusten dute. Hurrenkeratzeak sortzen du anbiguotasuna, ez taldekatzeak.<sup>5</sup>

Gatozen hurrenkeraren arazora bada: hizkuntzak uztartzen duen atalen batek agindutakoa ote da hau ere? Aspalditxotik sumatzen dugu erantzuna baiezkoa dela, sintaxi/semantikan berez ez dagoela hurrenkeraterik: “...ordering is part of the phonological component, a proposal that has been put forth over the years in various forms” (Chomsky 1995: 334). Soinuaren bitartez gauzatzen diren hizkuntza-formen kasuan nabarmena da hurrenkeratzearen beharra: hitzak eurak ere segmentuz osatzen dira, eta segmentu horiek, diskretuak izanik, bata

<sup>4</sup> Eskerrak X. Artiagoitiari bila nenbilen adibide mota hau eskaintzeagatik.

<sup>5</sup> Lausotasun semantikoa gerta daiteke, edo anbiguotasun lexikoa, baina horien iturria eta izaera bestelakoa da.

bestearen atzetik ekoitzi behar dira. Era berean, hitzak kateatzean, bata bestearen atzetik ekoitzi behar ditugu: “One asymmetry imposed by the phonetic interface is that the syntactic object derived must be linearized” (Chomsky 2005:15).

## 1.2. Keinu-hizkuntzak eta hurrenkeratzea

Egin berri dugun onarpen hau soinuaren bitartez gauzatzen diren hizkuntzetan erraz egin dezakegu, baina badira sentsu-mugimenduzko beste gauzatze bide batzuk erabiltzen dituzten hizkuntzak, keinu-hizkuntzak alegia, ikusmenak antzematen dituen mugimenduen bitartez ekoizten direnak. Horietan ere aurkitzen ote dugu hurrenkeratzerik, ala hizkuntza horietan zilegi da aldiberekotasuna? Keinu-hizkuntzen ekoizpenak espazioan mugitzen diren eskuak darabiltza artikulatzaile, gorputzaren gerritik bururako eremua ukituaz. Azken hiru hamarkadotako ikerkuntzak erakutsi duenez, keinu-hizkuntzek antolaketa fonologikoa daukate, soinu-hizkuntzenaren kidekoa dena: segmentuak, silabak, hierarkikoki antolatutako ezaugarri fonetikoak eta gehienbat aurpegikeren bitartez adierazten diren ezaugarri suprasegmentalak (Brentari 1998; Sandler eta Lillo-Martin 2006). Haatik, keinugintzak artikulatzean eta pertzepzioan dituen ezaugarri bereziek badute eraginik keinu-hizkuntzen eredu fonologikoetan, batik bat hurrenkeratzearekin zerikusia izan lezaketen zenbait kontutan: soinu-hizkuntzetan, esaldi bakoitzeko segmentu gehiago ekoitzi ohi dira keinuzkoetan baino, keinu-hitzak monosilabikoak dira oso maiz, eta elementu autosegmentalak konplexuagoak izan ohi dira (Sandler eta Lillo-Martin 2006).

Ezberdintasun hauek gorabehera, badirudi keinu-hizkuntzetan, soinuuzkoetan legez, hurrenkeratzea behar-beharrezko ezaugarria dela. Shengas, Kita eta Özyürek (2004) lanean espreski aztertzen da mugimendua bezalako elementuen segmentatze eta hurrenkeratzea. Horretarako, Nikaraguan gertatutako keinu hizkuntzaren sorrera (edo, zehazkiago esanda, *kreoltzea*) aztertu dute eta, hiruzpalau belaunalditan gertatu den sortze/kreoltze horretan hizkuntzaren gune-guneko ezaugarriak garatzen ikus ditzakegu. Ikertzaile hauek, marrazki bizidunak ikusarazi zizkieten adin ezberdinetako hiru keinudun<sup>6</sup>-talderi, eta baita gaztelaniadun elebakar kontrol-talde bati. Horietariko bideo batean, katu batek bola-jokoaren bola irensten du, eta dardarka (mugimenduaren nolakotasuna) egiten du aldapan behera doan artean (mugimenduaren noranzkotasuna). Keinudunen lehenengo taldeak, keinu hizkuntza zaharrago zirenean ikasi zutenek alegia, nolakotasuna eta noranzkotasuna aldi berean adierazi

<sup>6</sup> Zilegi bekit *keinudun* asmatzea, *hiztun* ereduaren atzetik, bereziki keinu-hizkuntzen hiztunak aipatzeko.



zituzten, keinu/mugimendu bakar batean, kontrol taldea osatzen zuten gaztelaniadun elebarraren mugimenduen antzera. Baina keinudunen bigarren eta hirugarren taldeek, hizkuntza hau oso gaztetandik erabili eta garatu dutenek, kreolgileek alegia, hurrenkeratze zurruna erakutsi zuten, nolakotasuna bakarrik adierazten zuten mugimenduak noranzkotasuna bakarrik adierazten zutenetik bereiziz (segmentatzea) eta elementu bi horiek bata bestearen ondotik kateatuaz (hurrenkeratzea). Elementu diskretu eta kateatuak osagai egituraren (taldekatzearen) nahitaezko ekaiak ditugu, eta keinu hizkuntzetan, hiztunok erabiltzen ditugun mugimenduetan ez bezala, beti agertzen da elementu horien arteko hurrenkeratzea. Areago, Estatu Batuetako ume gorrek berez sortzen dituzten keinu-komunikazio ereduak antz handiagoa dute alde honetatik Taiwaneko ume gorren keinu-ereduekin, gor ez diren haien amek hitz egitean erabiltzen dituzten mugimenduekin baino (Goldin-Meadow 2003). Beraz, keinu-hizkuntzez ikasten dugunak sendotu egiten du hurrenkeratzea hizkuntzaren ezaugarri orokorra dela, ez bakarrik soinu-hizkuntzen ezaugarria.

Hurrenkeratzea sentsu-mugimenduzko atalaren eskakizuna dela onartuta ere, horrek ez du erabakitzen hipotesi nagusi horren barnean egin daitezkeen aukera arras ezberdin biren artean:

(a) Sentsu-mugimenduzko atalak agintzen du hurrenkeratzea, soinua/keinua baino orokorragoa den fonologia-atalean. Hurrenkeratzea hizkuntzaren ezaugarri berezia da, hizkuntza-modalitateaz gaindikoa.

(b) Sentsu-mugimenduzko atalak agintzen du hurrenkeratzea, baina ez soilik hizkuntzaren kasurako, baita ere mugimendu- zein ekintza-andanak planifikatu behar diren kasu guztietarako. Hurrenkeratzea hizkuntzaz gaindiko ezaugarria da.

Ikuspuntu neurolinguistiko batetik, keinu- zein soinu-hizkuntzek Broca eremuaren aktibazioa sortzen dute neurri berean. Honek erakusten digu Broca eremuaren lana hizkuntza-modalitateaz gaindikoa dela, ez dagoela soinu-hizkuntzen ahozkotasunari bereziki lotua.<sup>7</sup> Brocaren eremuaren erdia den BA45 atala bereziki, soinu-entzumenaz gaindiko hizkuntza-ariketetan aktibatzen da, modalitateak eremu horretan inolako eraginik ez duela erakutsiaz (Corina et al. 1999, Emmorey et al. 2007). Gorago eskaintzen diren aukera bien arteko hautu hori oraindik guztiz erabaki gabe dagoen arren, zenbat eta gehiago dakigun burmuinaren jokabideaz, geroz eta itxura egiazkoagoa hartzen du hizkuntzaz gaindiko eragiketa kognitibo orokorragoen aldeko aukerak (hots, (b) aukera). Luze jo gabe, egungo neurozientziek

---

<sup>7</sup> Keinu- eta soinu-hizkuntzen batasun neurologiko hau sendoa da, nahiz Broca eremua anatomikoki oso hurbil dagoen aho-aurpegiko artikulatzaileen eremutik, baita entzumenaren *cortexetik* ere.

erakusten digute Broca eremuak hizkuntzaz gaindiko eta esparru orokorreko hainbat prozesutan parte hartzen duela, hala nola kontrol-kognitiboan (Thompson-Schill et al. 2005), edo hierarkikoki antolatutako ekintza-egitasmoak hautatu edo galaraztean (Koechlin eta Jubault 2006).

Orain arteko gogoetak bidezkoak baldin badira, orduan hizkuntzak elkarrekin lotzen dituen atal kognitibo ezberdin biren eskakizunek erabakiko lukete hizkuntza-formen antolaketa nagusia: semantikak (atal kontzeptual-intentsionalekoa den aldetik) agintzen du taldekatzea, eta fonologiak (sentsu-mugimenduzko atalekoa den aldetik) hurrenkeratzea. Horregatik dauka hizkuntza-formak antolaketa bikoitz hau, aldagaitza lehena, aldakorra bigarrena.

## 2. Buru-parametroa eta Antisimetria

### 2.1. Eredu tipologikoak

Azal dezagun orain, labur, zertan diren buru-parametroaren eta antisimetriaren hipotesiak. Hitz hurrenkerari buruzko irudi orokorra eskaini zigun lehenengoetariko hizkuntzalaria Joseph Greenberg izan zen: garaiko hizkuntzalari gehienen harridurarako, Greenbergekin zuzendutako datu-inkestetatik ateratako emaitzek argi erakutsi zuten bazela batasunik munduko hizkuntzen aniztasun harrigarrian hitzordenari zegokionez. Perpausari erreparatu eta S(ubjektua), O(bjektua) eta V(aditza)<sup>8</sup> elementuen arteko hurrenkerak aztertzean, hizkuntzak talde nagusi bitan banatzen zaizkigu gehienbat, eta ez hiru elementuren artean litezkeen konbinazio guztietan:

(3)	HITZORDENA	HIZKUNTZA-KOPURUA	%
	SOV	180	45
	SVO	168	42
	VSO	37	9
	VOS	12	3
	OVS	5	1
	OSV	0	0

<sup>8</sup> Nazioartean erabiltzen diren S, O, V deiturak gordetzen ditut artikuluan zehar, horregatik A(ditza) litzatekeenari, hemen V deituko diot. O elementuari dagokionez, *objektu zuzena* adierazten du laburdurak, eta ez Aditz Sintagma inguruko zeinahi elementu.

Taula honetan jasotzen ditugun datuek (Tomlin 1986:22) ondo erakusten dute hizkuntzen banaketa desorekatua, SOV/SVO taldeen aldera nabarmenki lerratzten dena. Greenbergen lanean aurkitu eta azken urteotan areago aztertu izan da hurrenkera ereduen orokortasuna; nabarmena da hurrenkera eredua sistematikoa dela, ez nolana hikoia. Har esaterako Baker (2001:60) liburutik hona ekartzen dugun erkaketa:

(4)	<b>A elementua</b>	<b>B elementua</b>	<b>ingeles-hurrenkera</b>	<b>japoniera-hurrenkera</b>
	Aditza	Objektu zuzena	A ondotik B	B ondotik A
	Aditza	P-Sintagma	A ondotik B	B ondotik A
	Aditza	Mendeko Perp.	A ondotik B	B ondotik A
	P[re/post]-posizioa	Izen Sintagma	A ondotik B	B ondotik A
	Izena	Izenlaguna	A ondotik B	B ondotik A
	Konplementatzailea	Mendeko perp.	A ondotik B	B ondotik A
	Laguntzailea	Aditz nagusia	A ondotik B	B ondotik A

Osagai ezberdinen hurrenkeren arteko korrelazioak sendoak dira. Azken adibide bat, Greenbergen lana garatu duen Dryer (1992) hizkuntzalariaren lanetik hartua dugu, denetarikoa osagaien arteko hurrenkera-sistematikotasunaren areagoko erakusgarri:


(5)	<b>VO ereduaren korrelatua</b>	<b>OV ereduaren korrelatua</b>
	adposizioa+IS	IS+adposizioa
	aditz kopula+predikatua	predikatua+aditz kopula
	“nahi”+AS	AS+”nahi”
	aditz laguntzailea+AS	AS+aditz laguntzailea
	ezezko laguntzailea+AS	AS+ezezko laguntzailea
	konplementatzailea+P	P+konplementatzailea
	galdera-partikula+P	P+galdera-partikula
	menderatzaile adberbiala+P	P+menderatzaile adberbiala
	artikulua+Izen multzoa	Izen multzoa+artikulua
	plural hitza+Izen multzoa	Izen multzoa+plural hitza
	Izena+genitiboa	genitiboa+Izena
	Izena+perpaus erlatiboa	perpaus erlatiboa +Izena
	adjektiboa+konparazio-estandarra	konparazio-estandarra+adjektiboa
	aditza+PS	PS+aditza
	aditza+moduzko adberbioa	moduzko adberbioa+aditza

Hizkuntza askoren datuetatik ikusi izan da, beraz, Greenbergekin aurkitutako ereduak sendoak direla, hurrenkera-korrelazioak ez direla nolanhikoak; ereduak egon badaudela. Ikerkuntza tipologikoan aurkitutako orokorpen horiek guztiek azalpen bat eskatzen dute.


## 2.2. Buru-parametroa

Hatsarre eta Parametroen teoriak (Chomsky 1981, Baker 2001) parametro bitar baten bitartez azaldu nahi izan ditu hizkuntzetan aurkitzen ditugun hurrenkera-ereduak: parametro horren izena *buru-parametroa* da. Eredu honetan, sintagma eraikitzailea X-barra teoria dugu: buru batek (X) bakarrik isla dezake sintagma osoa [<sub>XS</sub>X], edo *Osagarri* bat hartuta [<sub>XS</sub> O X], edo sintagma konplexuagoak era daitezke, *Espezifikatzailedunak* [<sub>XS</sub>Espez [<sub>X</sub>·O X]]. Buru parametroak aldagaitza den sintagma-egitura horretan aukera bitar *simetrikoa* eskaintzen du:

- (6) a. Buru-lehen: hurrenkera bedi honela [<sub>XS</sub>X Osagarria] (=7a)  
 b. Buru-azken: hurrenkera bedi honela [<sub>XS</sub> Osagarria X] (=7b)




Parametro honek azaldu egin ditzake goragoko datu-korrelazioak (= 3, 4, 5). Azalpena ez da arazorik gabea, noski. Arazoen artean, balio “nahasiak” dituzten hizkuntzak (neerlandera eta alemaniera adibide ezagun bi aipatzearren), buru batzuk lehen eta beste batzuk azken omen dituztenak. Euskararen kasurako ere, hizkuntzalari batzuen proposamenetan zenbait buru funtzional lehentzat jo izan dira, adibidez Konplementatzaile burua (Ortiz de Urbina 1989) edo ezeztapena (Laka 1990), esaterako. Ez dago argi aukera parametrikoko hau (eta parametroak oro har) gramatikan kodifikatzen diren ala kategoriek taldeka zein banaka gordetzen ote duten parametroen balioa. Baina arazoak arazo, estaldura enpirikoari dagokionez, buru-parametroak erraz azal ditzake aurkitutako korrelazio greenbergtarrak, hierarkia beraren hurrenkeratze *simetrikoak* sortuz:




Hartzen duen izenak berak argitzen duen legez, sintaxiaren *antisimetriaren* hipotesiak buru-parametroak eskaintzen dituen ispilu-aurreko irudi simetrikoetatik bat (8b) ukatu egiten du. Hipotesi honen arabera, osagaien hurrenkeratzean Gramatika Unibertsalak aukera bakarria dauka:  $[X_S X \text{ Osagarria}]$ . Ondorioz, hurrenkera honetatik aldentzen diren hitzordena denak areagoko eragiketa sintaktikoei zor zaizkie, ezin daitezke bere horretan sortu hasierako elkartzean. Antisimetriaren hipotesian abiapuntutzat hartzen du Kaynek “...that the human language faculty is in fact rigidly inflexible when it comes to the relation between hierarchical structure and linear order. (Kayne 1994:xviii)”, hots, taldekatzea eta hurrenkeratzea ez dira

ikuspegi honetan antolaketa beregainak. Bereziki, Kayneren ikuspegian, hierarkiak (hots, taldekatzeak) erabakitzen du bete-betean zein den hurrenkera: “Heads must always precede their associated complement position” (Kayne 1994:xviii).<sup>9</sup>

Honen ondorioz, euskara bezalako SOV hizkuntza postposiziozaleen hurrenkera buruazkenak ezin daitezke jatorrian sortu elkarketa (*merge*) hutsaren bitartez. Era berean, “buruazken” deitura, hipotesi antisimetrikoaren arabera, etiketa deskribatzailea baino ez da. Hurrenkeratzeari dagokionez euskararen nahikoa antzekoa den japonieraren kasuan: “For languages like Japanese, complement positions can no longer be taken to be to the left of their head. (...) in Japanese complements necessarily appear in specifier/adjoined positions that are hierarchically higher than the position of the head” (Kayne 1994:xiv).<sup>10</sup> Japoniera edo euskara bezalako hizkuntzetan, *osagarri-buru* hurrenkera ezin daiteke (9a) bidez sortu. Betiere (8a) edo (9b) bezalako egituratik hasi eta, (9c) eratorpen sintaktikoaren ondorioa da antisimetriaren hipotesiaren arabera:



Honela, gaztelania edo ingelesa bezalako hizkuntzetan aurkitzen dugun hurrenkera jatorrian sor daiteke (9b), eta bertan gelditu, baina euskararen kasuan, esaterako, osagarriak ezkerretarako, hierarkian goranzko mugimendua egin behar du (9c). Adibide bi ematearren:



<sup>9</sup> “Buruak beti dagokien osagarri posizioaren aurretik joan behar dute.”

<sup>10</sup> “Japoniera bezalako hizkuntzetarako, osagarri posizioak buruaren ezkerretara daudenik ezin onar daiteke hemendik aurrera. (...) japonieraz, osagarriek nahitaez burua baino hierarkikoki gorago dauden espezifikatzaile/adjunktu posizioetan agertu behar dute.”

*Buru-osagarri* hurrenkera da gramatikak oinarrian elkarketatik sor dezakeen bakarra, eta gainerako denak mugimendu bitartez eratorriak dira hipotesi antisimetrikoan. Baina hipotesi honetan, *asimetria* ez dago bakarrik (8b, 9a) eraketaren ezintasunean, baita konplexutasun sintaktikoan ere: kasurik soilenean, buru-azken diren egiturek areagoko eragiketa sintaktikoak burutzen dituzte. Kasurik soilenean, egitura buru-azkenak buru-lehenak baino sintaktikoki konplexuagoak dira. Buru-parametroaren hipotesian, ordea, egitura buru-lehen eta buru-azkenak, konfigurazionalki simetrikoak direnez, simetrikoak dira baita ere konplexutasun sintaktikoari dagokionez. Batak ez du nahitaez besteak baino eragiketa sintaktiko bat gehiago bete behar. Beraz, hipotesi simetriko eta asimetrikoa ditugu lehian: (a) buru-parametroak bai konfigurazioari dagokionez, eta baita konplexutasunari dagokionez ere, hizkuntzek egiten dituzten aukera biak baliokidetzat hartzen ditu; (b) antisimetriaren hipotesiak, ordea, bai konfigurazionalki eta baita konplexutasunari dagokionez ere, ez ditu baliokide balio biak: egitura buru-lehena soilagoa da, eta egitura buru-azkena konplexuagoa. Kontuak honela, azter dezagun simetria/asimetria honen inguruko zantzurik aurkitzen ote dugun psikolinguistikan jorratu ohi diren zenbait esparrutan.

### 3. Hizkuntzaren jabekuntza eta hurrenkeratzea

Hitz-hurrenkerari buruzko ezagutza oso goiz garatzen da. Haurrek ez dute hurrenkerazko hutsik egiten hitzak kateatzen hasten direnean (Bloom 1970, Brown 1973, Pinker 1994). Hizkuntzaren jabekuntzan ezagutza ekoizpena baino lehenago dator, eta hitzordenari dagokionean ere, hitzak kateatzen hasi baino lehenagotik, haurrek badute dagoeneko euren hizkuntz(ar)en oinarriko hurrenkera-ereduaren berri. Hamazazpi hilabete inguruan haurrek hitz solteak baino egiten ez dituzten arren, hitzordenari buruzko informazioa erabiltzen dute ulermenean laguntzeko: pantaila biren aurrean ipinita, entzuten duten perpausaren hitzordenarekin bat datorren egoera erakusten duen pantailara luzeago begiratzen dute hitz bakarreko ume hauek (Hirsh-Pasek & Golinkoff 1996). Beraz, hitz hurrenkeraren eredia gramatikaren beste ezaugarriak baino lehenago ezagutu eta erabiltzen dute haurrek. Bereziki, kasu-morfologia, aditz komunztadura eta lekualdatzea (pasiboak, igoerak, ...) baino askoz lehenago aurkitzen dugu hitz hurrenkeraren erabilera egokia haurrengan.

Honek dagoeneko azalpena eskatzen du: haurrak ez dira zalantzan ibiltzen hurrenkeratzean. Bereziki, eta axola digun gairako, hizkuntza buru-azkenak garatzen

dabiltzan haurrek ez dituzte egitura buru-lehenak ekoizten. Antisimetriaren hipotesia gogoan hartuta, ez litzateke harriztekoa izango haur euskaldunek hasiera batean egitura buru-lehenak ekoiztea, mugimendu sintaktikoa behar duten egituretan haur guztien garapenean ikusten dugun bezala (galderak, pasiboak, ezeztapena...). Haatik, hizkuntza buru-azkenen jabekuntzatik jasotzen ditugun datu eta orokorpenek ez dute horrelakorik erakusten. Esaterako, haur euskaldunek ez dute *\*renamama* edo *\*riamama* bezalako hutsik egiten, nahiz hurrenkeraren garapenean ondoko eratorpena egin behar duten hipotesi antisimetrikoaren arabera:

- (11) a. [<sub>PS</sub> ren [<sub>DS</sub> amama]                    b. [<sub>PS</sub> amama<sub>i</sub> [<sub>PS</sub> ren [<sub>DS</sub> t<sub>i</sub>]]]  
       c. [<sub>PS</sub> ri [<sub>DS</sub> amama]                    d. [<sub>PS</sub> amama<sub>i</sub> [<sub>PS</sub> ri [<sub>DS</sub> t<sub>i</sub>]]]

Bereziki nabarmena da, eta azalpenen bat behar luke, zergatik ez ditugun (11a,c) bezalako ekoizpenak hizkuntza buru-azkenak garatzen diharduten haurren hizkuntzan. Euskararen esparruan, Barreña (1993), Ezeizabarrena (1996) eta Zubiri (1997) lanak arakatzearan ikusten dugu haurrek ez dituztela (11a,c) bezalakoak egiten. Bestetik, oraindik morfologiaren ekoizpena guttiz garatu ez denean, oso bakanka, (12a,b,c) bezalakoak jaso izan dira:

- (12) a. amane Pe(d)ro  
       ‘*Pedroren Amane*’                    (O. 1;08;29)  
       b. gaztaia pottokia  
       ‘*Pottokiaren gaztaia*’                (M. 1;09)  
       c. tutu ama  
       ‘*amaren tutua*’                    (P. 2;2)

Baina ohar bedi (12)-ko adibideak ez direla zinez (11)-ren eredukoak. Euskararen jabekuntzari buruzko luzetarako ikerkuntzek erakusten duten datu erdua (13) adibideetakoak dugu; alegia, morfologiarik gabe ere, morfologiak aginduko lukeen lekuan agertzen dira osagaiak:



- (13) a. An(d)oni ti(k)ta(k) (O. 1;08;29)  
 b. Mikel popota (O. 1;11;05)  
 c. amatxi etxea (P. 2;8)  
 d. Amaso aita (P.2;8)  
 ‘*Damasoren aita*’

Jabekuntzan haurrek egiten dituzten hutsek interes handia daukate, baina neurri bereko interesa dute haurrek *egiten ez dituzten* hutsek. Hurrenkeraren ikerkuntzan, haurren hutsegite-  
 ezak zerbait iradokitzen digu: hurrenkera ez dela *saiatu-eta-erratu* bidetik ikasten. Nondik  
 ateratzen dute orduan ezagutza hori? Hitz egiten hasi orduko ba al dakite haurrek zein den  
 oinarritzko hurrenkera?

Ikertzaile askoren iritziz, bai. Haurrek hitzak segmentatu eta ikasi orduko, badakite zein  
 den haien hizkuntzaren oinarritzko hitzordena, hiztegiari ekin aurretik ikasi dutelako. Mazukak  
 (1996) argudiatu zuen lehen aldiz hitz-hurrenkeraren jabekuntza hitzen segmentatzea eta  
 hitzen esanahia baino lehen garatzen dela, eta prosodiaren egiturak “markatzen” dituela  
 hurrenkera-ereduak. Honela, haurrek prosodian aurkitzen duten informaziotik eratorriko  
 lukete hizkuntzaren hurrenkera-eredua. Mazukak baita ere argudiatzen du hurrenkerak  
 laguntzen diola gero haurrari hitzak segmentatzen, kategorizatzen, eta haien esanahiak  
 antzematen, eta ez alderantziz, beste inon inoiz horrelakorik iradoki izan bada ere (Radford  
 1990). Mazukaren jatorritzko proposamena areago garatu izan da; bereziki, egitura prosodikoa  
 eta buru-lehen/buru-azken hurrenkera-ereduen artean lotura trinkoa dagoela proposatu dute  
 Christophe, Nespor, Guasti eta Van Ooyen-ek (1997), baita Mehler eta Nesporrek (2004) ere.  
 Ikertzaile hauek erakusten dute badela ebidentzia, oinarritzko hurrenkeraren eta egitura  
 prosodikoaren artean lotura estua dagoela erakusteko: dirudenez, esaldi fonologikoak  
 aztertzean, nagusitzen den elementua bukaeran daukate orain artean ikertu diren hizkuntza  
 buru-lehenek, eta hasieran hizkuntza buru-azkenek.

Hipotesi honen arabera, haurrek dagoeneko ezagutzen duten hizkuntzaren atal baten  
 bitartez (prosodiaren bitartez) ekingo liokete hizkuntzaren hurrengo atalen garapenari  
 (hiztegiari eta sintaxiari). Hipotesi honek badu abantaila nagusi bat: hurrenkera eredua hitzak  
 segmentatu, kategorizatu eta ulertu baino lehen nola garatuko litzatekeen azaltzen du, eta  
 ondorioz hurrenkera-ereduak berak lagunduko lioke haurrari hitzak banatzen eta  
 kategorizatzen, jabekuntzan inoiz oiloa-eta-arrautzarena bezala planteatu izan den gramatika

eta hiztegiaren hasierako garapenaren paradoxa konponduz. Bigarrenik, hipotesi honek badu azalbiderik lehenago aipatu dugun hutsegite-ezaren arazorako: haurrek ez lukete oinarrizko hurrenkeran hutsik egingo, hitzak lotzen hasten direnerako hizkuntzaren prosodiak adierazten dielako zein den hurrenkera hori. Honela, haurrek oinarrizkoak ez diren hurrenkera konplexuetan bakarrik egingo lituzkete hutsak, horiek ez bailituzke prosodiak iragarriko.

Christophe et al. (1997) lanean, buru-parametroa da ikertzaileek eredu hartzen duten hipotesi sintaktikoa: “This variation in word order across languages is captured by the head-direction parameter which takes one of two values, *head-complement* or *complement-head*” (211 or.).<sup>11</sup> Haatik, egileek azpimarratu nahi dute hurrenkeratzearen jabeakuntzaren arazoa azaldu egin behar dela aukeratzen den hipotesi sintaktikoa gorabehera: “We would like to note, in addition, that the learning problem does not depend on the linguistic formalism or on the specific theory chosen to account for surface word order variation across languages. Infants have to eventually acquire the surface word order of their mother tongue (in order to correctly interpret sentences and produce them). Thus, even in a theory in which the underlying word order is supposed to be universally Subject Verb Object (Kayne 1994), the fact that surface word order varies across languages has to be accounted for through language-specific movement operations: in this case, children have to learn about these movement operations, a problem which is equivalent to learning about underlying word order when it is assumed to vary across languages.” (ibidem).<sup>12</sup>

Egileek lan horretan hurrenkerari buruzko hipotesi bien artean aukerarik egiten ez duten arren, uste dut hurrenkeraren hipotesi prosodikoa bateraezina dela antisimetriaren hipotesiarekin. Hizkuntza buru-lehen eta buru-azkenen jabe egin nahi duten haurrek burutu beharreko lana ez da berdina: “haur buru-lehenek”, nolabait esateko, hipotesi hutsari ekiten diote, oinarrizko elkarketak sortzen duen hurrenkerari; honek ez du lekualdatze/mugimendu eragiketarik eskatzen. Haatik, “haur buru-azkenek”, oinarrizko elkarketaz jabetu eta, horren gainean eragin beharreko lekualdatze sintaktikoak antzeman eta sortu behar dituzte. Hipotesi antisimetrikoan jabeakuntza bera ere antisimetrikoa den neurrian, azaldu beharko genuke

<sup>11</sup> “Hizkuntzen arteko hitzordena aldagarritasun hau buruaren norabide-parametroak biltzen du, bi baliotik bat hartzen duena, *buru-osagarri* edo *osagarri-buru*”.

<sup>12</sup> “Gainera, azpimarratu nahi genuke ikaste-arazo hau ez dela hizkuntzetan azaleko hitzordenaren aldagarritasuna azaltzeko aukeratzen den teoria espezifikoaren arabera. Haurrek beren ama-hizkuntzaren azaleko hitzordenaz jabetu behar dute (perpausak egokiro ulertu eta ekoizteko). Honela, sakoneko hitzordena unibertsalki Subjektu-Aditz-Objektu dela dioen teoria batean ere (Kayne 1994), hizkuntzetan azaleko hitzordena aldatzen dela azaldu behar da hizkuntzaz hizkuntzako mugimendu eragiketen bitartez: kasu honetan, haurrek mugimendu eragiketa hauek ikasi behar dituzte, sakoneko hitzordena aldagaria dela ikastearen pareko arazoa dena.”

zergatik ez ditugun ekoizpen-eredu antisimetrikoak aurkitzen korpusetan. Izan ere, hurrenkeraren jabekuntza guztiz simetrikoa da: haur denek, buru-lehen zein buru-azkenek, denbora berean eta progresio berean ekoizten dituzte oinarrizko hurrenkerak. Aitzitik, buru-parametroaren simetriak ez luke ezer azaldu behar hizkuntza mota bi hauen hurrenkerak oso goiz eta neurri berean garatzen direla azaltzeko. Hurrenkeraren hipotesi prosodikoa erraz lotzen da buru-parametroa bezalako hipotesi simetriko batekin, baina ez da ondo lotzen asimetrikoa eta mugimendu bitartez antolatzen den sintaxiaren antisimetriarekin.

#### 4. Perpausaren hurrenkera prozesatzen

Azken urteotan, hizkuntzalaritzak eta hizkuntza-prozesamenduaren azterketak geroz eta konbergentzia maila handiagoa erakusten dute, bai erabiltzen dituzten hizkuntza-ereduetan, eta baita ikertzen dituzten gertakarietan edo eskaintzen dituzten azalbideetan ere. Hizkuntzalaritza sortzailean, azken hamarkada honetako garapenek geroz eta garrantzi handiagoa ematen diote hizkuntzaren prozesatzeak hizkuntzaren arkitekturan izan dezakeen eraginari. Hizkuntza-prozesamenduan, bestetik, eragiketa sintaktikoez sortzen dituzten kate eta egitura konplexuek prozesamenduan sortzen dituzten zantzuak aurkitu zirenetik hona, sintaxi teoriatik geroz eta hurbilago daude alor honetan burutzen diren lanak eta lortzen diren emaitzak. Honela, konplexutasun sintaktikoa esparru bietan jorratzen den gaia dugu: sintaxi teoria sortzaileak hasieratik aztertu izan du konplexutasun sintaktikoa, erregela itxuraldatzaileen bitartez lehenik (Chomsky 1957, 1965), eta gero *Hatsarre eta Parametroen* ereduen bitartez (Chomsky 1981); azken eredu honetan garatu zen mugimendu-teoriak, izan ere, eragin handia izan du hizkuntza-prozesamenduaren ikerkuntzan. Euskararen hurrenkeren prozesatzea aztertu duen Erdozia ikertzailearen hitzetan: “Egun erabiltzen diren azterketa tekniken bidez, perpausak ulertzeko behar ditugun eragiketak zeintzuk diren eta nola prozesatzen diren azter dezakegu. Perpausen prozesamenduan, konputazio baliabide edo eragiketa hauek, prozesu sintaktikoak oroimenean (*memory*) jarraikorki mantentzeko, eta egitura kontzeptualen aktibazioan erabiltzen dira (Gibson eta Shütze 1999). Beste era batera esanda, zenbat eta prozesu sintaktiko konplexuagoak izan, orduan eta zama handiagoa ezarriko diogu oroimenari, eta gure egitura kontzeptualak denbora gehiagoz mantendu beharko dira aktibatuta” (2006b: 293). Beraz, eragiketa sintaktikoez, burmuinean gertatzen diren gertakariak izaki, baliabide mentalak erabiltzen dituzte, eta konplexutasun sintaktikoa

handiagotuz doan neurrian, erabili beharreko baliabideek ere gora egiten dute, denbora gehiago erabiliaz. Adibidez, mugimendu edo lekualdatze sintaktikoa konputatu ahal izateko, gogoratu egin behar gara (oharkabeen bada ere) lekuz kanpo aurkitutako osagaiekin, eta gainerako osagai eta elementuak konputatzen jarraitu behar dugu, lekuz kanpoko osagaien jatorrizko lekuak eta perpausaren elementu guztien arteko harremanak egokiro antzeman arte (Gibson 1998). Burmuinaren lana adierazten duten zantzu elektrofisiologikoen ikerkuntzan (*Event Related Potentials [ERP]*), Kluender eta Kutas (1993) lanean erakutsi zen lehenengo aldiz gero behin eta berriz errepikatu izan den emaitza: alegia, egitura sintaktikoaren konplexutasuna antzeman daitekeela ERPen bitartez.

Hurrenkerari buruzko hipotesi simetrikoak eta asimetrikoak, hots, buru-parametroak batetik eta antisimetriaren hipotesiak bestetik, proposamen zeharo ezberdinak egiten dituzte burua azkenean duten hurrenkeren egitura sintaktikoei dagokienez. Ikusi dugunez, lehenengo hipotesiak ez du nahitaez mugimendu sintaktikorik proposatzen hurrenkera horiek sortzeko, baina bigarrenak bai. Mugimendu sintaktikoak hizkuntza-prozesatzean zantzuak uzten baditu, orduan prozesamendu-ikerketetan lortzen diren emaitzak esanguratsuak dira hurrenkerak azaltzeko eskaintzen diren egitura sintaktikoen artean egokienak zein diren erabakitzeko garaian.

Erdoziak (2006a,b) euskal hitz hurrenkera ezberdinen prozesamenduari buruzko ikerkuntzari ekin dio, prozesatzeko behar den denbora, prozesatzeak ulermenean duen eragina eta prozesamenduak sortzen dituen osagai elektrofisiologikoak aztertuz. Orain arteko emaitzek erakusten digute euskaraz SOV eta OSV hurrenkeren erkaketan, lehena nabarmenki azkarrago irakurtzen dutela hiztunek, huts gutxiago egiten dituztela hurrenkera hori ulertzean OSV hurrenkera ulertzean baino, eta baita ERPen arabera OSV perpausak P600 izeneko osagaia sortarazten dutela: “objektua lekualdatuta duten perpausen aditzetan, konplexutasun sintaktikoa adierazten duten ebidentzia elektrofisiologiko esanguratsuak (P600) lortu dira euskaraz” (Erdozia 2006b:303).

Areago, Erdoziak burututako lan esperimentalek erakusten dute SOV/OSV hurrenkeren artean anbiguoak diren perpausak prozesatzean, hiztunek SOV hurrenkera aukeratzen dutela ahal den guztietan. Izan ere, eta artikulua bukaera aldera gatzela, egin dezagun Erdoziaren emaitzetan haril daitekeen sasi-esperimentu txikia hemen. Artikuluaren atarian esaten nizuenez, “euskaraz *katuak saguak harrapatzen ditu* esan ohi dugu, baina gaztelaniaz *el gato caza ratones...*”. Egia da hori, bai, baina bada euskal perpausak adieraz dezakeen

beste zerbait ere: sagu jakin batek katuak harrapatzen dituela, alegia. Bizi garen munduari buruz dugun ezagutzaren kontra doanez, ez da harritzekoa perpausak bigarren adiera hori duenik ez ikustea lehen kolpean. Hala ere, Erdoziaren ikerketek argi erakusten diguten legez, munduaren ezagutzak erabakitzeko aukerarik ematen ez digunean ere, adibidez *haurrak emakumeak ikusi ditu* bezalakoak irakurtzean, ez omen gara anbiguotasunaz jabetzen, eta zuzenean jotzen dugu SOV interpretaziora, bestea kontuan hartu gabe ere. Ez dirudite gauza bera, bada, inondik inora prozesamenduari dagokionez, SOV/OSV hurrenkerek.

Honek guztiak iradokitzen digu, batetik, euskalaritzan aspalditxotik eskaintzen den azalbide baten alde egiten dutela orain arteko emaitzek: gainerako baldintzak berdin direla, SOV hurrenkeraren egitura sintaktikoa OSV hurrenkerarena baino soilagoa dela (de Rijk 1969, Ortiz de Urbina 1989, A. Elordieta 2001, beste askoren artean).

## 5. Azken buruan

Hizkuntzen hurrenkeratzea azaltzeko hipotesi nagusi biri buruzko gogoeta labur honetan azaltzen saiatu izan naizenez, simetria eta simetria eza ezaugarri darabilten azalbideak ditugu buru-parametroa eta antisimetriaren hipotesia. Buru parametroak, buru-osagarriaren arteko harremana hurrenkeratzeko dauden aukera logiko biak zilegi hartuta, hizkuntzek oro har batera zein bestera egiten dutela proposatzen digu. Antisimetriaren hipotesiak, ordea, osagai egiturak nahitaez [buru-osagarri] hurrenkera inposatzen duela proposatzen digu, teoriaren ekaitzat aurkezten den *Linear Correspondence Axiom* delakoaren bitartez. Axioma hau ez da beste edonondik eratortzen, eta beraz gramatika unibertsalaren baldintza espezifikoztat jo behar dugu. Buru-parametroaren hipotesiak ez bezala, antisimetriaren hipotesiak konplexuagoak diren egitura eta eratorpen sintaktikoak aldarrikatzen ditu hizkuntza buru-azkenen azalpenean; haatik, ez da konplexutasun honen zantzurik aurkitzen hizkuntzaren jabekuntzan edo prozesamenduan. Kayne (1994) lanean eskaintzen zaigun hurrenkerari buruzko hipotesiak argudiatzen du buru-lehen eta buru-azken aukerak ez direla simetrikoak, eta badirela hizkuntza-tipologian simetria falta honen adibideak. Egitasmo hau burutzen den neurrian, egoki liteke hurrenkera bat oinarrizkotzat eta bestea eratorritzat jotzea, baina simetria ezaren erakusgarririk ez den artean, soilagoa dirudi buru-parametroaren bidezko azalpenak, ez baitio axioma berezirik erantsi behar hizkuntzaren teoriari. Honi dagokionez, harira ekarriko nuke sintaxiaren ikuspegi minimalistaren bidetik Chomskyk egiten duen

hausnarketa hau: “Labeling underlies a variety of asymmetries: for example, in a head-XP construction, the label will always be the head, and the XP a “dependency”; for substantive heads, an argument with a semantic role that it assigns. Therefore, such asymmetries need not be specified in the syntactic object itself, and must not be, because they are redundant. *A head-complement structure is a set, not an ordered pair*” (Chomsky 2005:14 or.).<sup>13</sup> Neuk azpimarratutako bukaerako hitz hauekin bat nator, eta hurrenkera sentsu-mugimenduzko atalak hizkuntzari agindutako ezaugarria den neurrian, ez dut uste egokia denik, ez enpirikoki ez eta kontzeptualki ere, egitura hierarkikoa axioma bitartez hurrenkera bakar bati lotzen zaionik onartzea.

### Aipamen bibliografikoak

- Artiagoitia, Xabier. 1998. “Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan”. *Uztaro* 27, 33-61.
- Baker, Mark. 2001. *The Atoms of Language: The Mind’s Hidden Rules of Grammar*. New York: Basic Books.
- Barreña, Andoni. 1993. *Haur euskaldunen hizkuntzaren jabekuntza-garapena: INFL eta KONP funtzio-kategorien erabileraz*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Bloom, Lois. 1970. *Language development: Form and function in emerging grammars*. Cambridge MA: MIT Press.
- Brentari, Diane. 1998. *A Prosodic Model of Sign Language Phonology*. Cambridge MA: MIT Press.
- Brown, Roger. 1973. *A first language*. Cambridge MA: Harvard University Press.
- Chomsky, Noam. 1957. *Syntactic Structures*. Mouton, The Hague. [euskal itzulpena *Egitura Sintaktikoak*. Bilbo: Klasikoak, 2003]

---

<sup>13</sup> “Labeltzea [label bat sortzea] datza hainbat asimetriaren azpian: adibidez, buru-XS eraikuntza batean, labela betiere burua izango da, eta XS “buruaren araberako menpekoa”; buru mamitsu baten kasuan, berak banatzen duen rol semantikoa daraman argumentua. Beraz, ez dago zertan asimetria hauek objektu sintaktikoan bertan adierazi, eta ez da horrelakorik egin behar, erredundanteak direlako. *Buru-osagarri egitura taldea da, eta ez hurrenkeradun pareta*”.

- Chomsky, Noam. 1965. *Aspects of the Theory of Syntax*. MIT Press, Cambridge, Massachusetts. [gaztelaniazko itzulpena *Aspectos de la teoría de la Sintaxis*. Madril: Aguilar, 1971]
- Chomsky, Noam. 1981. *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.
- Chomsky, Noam. 2005. "Three factors in language design". *Linguistic Inquiry* 36, 1-22.
- Christophe, Anne, Marina Nespou, Emmanuel Dupoux, Maria-Teresa Guasti & Brit van Ooyen. 1997. "Reflexions on prosodic bootstrapping: its role for lexical and syntactic acquisition". *Language and Cognitive Processes*, 12, 585-612.
- Corina, David P., Susan L. McBurney, Carl Dodrill, Kevin Hinshaw, Jim Brinkley & George Ojemann. 1999. "Functional roles of Broca's area and supramarginal gyrus: evidence from cortical stimulation mapping in a deaf signer". *NeuroImage* 10, 570-581.
- Dryer, Matthew S. 1992. "The Greenbergian Word Order Correlations". *Language* 68, 81-138.
- Elordieta, Arantzazu. 2001. *Verb Movement and Constituent Permutation in Basque*. Utrecht: LOT Dissertation Series.
- Emmorey, Karen, Sonia Mehta & Thomas J. Grabowskib. 2007. "The neural correlates of sign versus word production". *NeuroImage* 36, 202-208.
- Epstein, Samuel. 2007. "Physiological Linguistics, and Some Implications Regarding Disciplinary Autonomy and Unification", *Mind & Language* 22:1, 44-67.
- Erdozia, Kepa. 2006a. *Euskal Hitz Hurrenkerak Azterketa Psikolinguistiko eta Neurolinguistikoen bidez*. Doktorego tesia, UPV/EHU.
- Erdozia, Kepa. 2006b. "Euskarazko hitz-hurrenkera ezberdinak prozesatzen". In Beatriz Fernandez & Itziar Laka (arg) *Andolin Gogoan. Essays in Honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: EHUKo Argitalpen Zerbitzua. 291-306.
- Ezeizabarrena, Maria José. 1996. *Adquisición de FLEX en euskera y castellano por niños bilingües*. Doktorego tesia, University of Hamburg, Alemania.
- Gibson, Edward. 1998. "Linguistic complexity: locality of syntactic dependencies". *Cognition* 68, 1-76.
- Gibson, Edward & Carson T. Schütze. 1999. "Disambiguation preferences in noun phrase conjunction do not mirror corpus frequency". *Journal of Memory and Language* 40, 263-279.
- Goldin-Meadow Susan. 2003. *The Resilience of Language*. Psychology Press, New York.

- Greenberg, Joseph. 1963. *Universals of Language*. MIT Press, Cambridge, Massachusetts.
- Hirsh-Pasek, Kathy & Roberta M. Golinkoff. 1996. *The origins of grammar: Evidence from early language comprehension*. Cambridge MA: MIT Press.
- Kluender, Robert, & Marta Kutas. 1993. "Bridging the gap: Evidence from ERPs on the processing of unbounded dependencies", *Journal of Cognitive Neuroscience* 5, 196-214.
- Koechlin Etienne and Thomas Jubault. 2006. "Broca's area and the hierarchical organization of human behavior". *Neuron* 50:6, 963-974.
- Laka, Itziar. 1990. *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*. MIT Working Papers in Linguistics, Dissertation Series, Cambridge MA. [Berrargitaratua: 1991, *ASJU* 25:1, 65-138]
- Matzke, Mike, Heinke Mai, Wido Nager, Jascha Rüsseler & Thomas F. Münte. 2002. "The cost of freedom: An ERP-study of non-canonical sentences". *Clinical Neurophysiology* 113, 844-852.
- Mazuka, Reiko. 1996. "How can a grammatical parameter be set before the first word?". In James L. Morgan & Katherine Demuth (arg.), *Signal to syntax: Bootstrapping from speech to grammar in early acquisition*. Mahwah, NJ: Lawrence Erlbaum Associates. 313-330.
- Mehler, Jacques and Marina Nespou. 2004. "Linguistic rhythm and the development of language". In A. Belletti (arg.), *Structures and Beyond. The Cartography of Syntactic Structures. Vol. 3*. Oxford: Oxford University Press. 213-222.
- Nespou, Marina & Irene Vogel. 1986. *Prosodic Phonology*. Dordrecht: Foris.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1989. *Parameters in the Grammar of Basque*. Dordrecht: Foris.
- Oyharçabal, Beñat. 2006. "DSaren barneko zenbait ordena kontu". In Beatriz Fernandez & Itziar laka (arg.) *Andolin Gogoan. Essays in Honour of Professor Eguzkitza*. Bilbo: EHuko Argitalpen Zerbitzua. 741-756.
- Pinker, Steven. 1994. *The language instinct*. London: Penguin Books.
- Radford, Andrew. 1990. *Syntactic theory and the acquisition of English syntax*. Cambridge: Basil Blackwell.
- de Rijk, Rudolf P.G. 1969. "Is Basque an S.O.V. language?". *Fontes Language Vasconum* 1-3, 319-351. [Berrargitaraturik in De Rijk, Rudolf P. G. 1998, *De Lingua Vasconum: Selected Writings. ASJUren Gehigarriak*, XLLIII. 13-37]
- Sandler, Wendy & Diane Lillo-Martin. 2006. *Sign Language and Linguistic Universals*. Cambridge: Cambridge University Press.



- Shengas, Ann, Sotaro Kita, & Asli Özyürek. 2004. "Children Creating Core Properties of Language: Evidence from an Emerging Sign Language in Nicaragua". *Science* 305, 1779-1782.
- Siegal, Michael. 2004. "Signposts to the essence of language". *Science* 305, 1720-21.
- Thompson-Schill, Sharon L. Bedny, Marina Goldberg & Robert F. 2005. "The frontal lobes and the regulation of mental activity". *Curr. Opin. Neurobiol.* 15:2, 219–224.
- Tomlin, Russell S. 1986. *Basic Word Order: Functional Principles*. London: Croom Helm.
- Trask, Larry. 2003. "The Noun Phrase: nouns, determiners and modifiers; pronouns and names". In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *A grammar of Basque*, Berlin: Mouton de Gruyer. 113-170.
- Zubiri, Juan José. 1997. *Izen Sintagmaren eta kasuen jabekuntza eta garapena hiru urte arte (Goizuetako bi haur euskaldun elebakarren jarraipena)*. Doktorego Tesia, EHU.

*Itziar Laka*

<itziar.laka@ehu.es>

UPV/EHU

*Euskara Zerbitzua*

*Errektoreordetza I.solairua*

*Sarriena z/g, Leioa, Bizkaia*

Izenburu luzeko liburu honen azpian, euskal sintaxiaren perpaus egitura ulertzeko modu bi kontrajartzen dituzten artikuluak (denak gaur egungo gramatika sortzailearen ikuspegitik idatziak) ezkutatzen dira: artikulu batzuetan euskarak oinarrian *osagarri-buru* hurrenkerari jarraitzen diola defendatzen den bitartean, beste batzuetan, antisimetriaren bidetik, euskarak ere funtsean *buru-osagarri* hurrenkera daukala esateko dauden argudioak aurkezten dira. Euskal gramatikaren eta gramatika unibertsalaren inguruko goi-mailako eztabaida zientifikoa dena batez ere euskaraz eta modu ahalik eta ulergarrienean ematera dator liburu hau, interesa izan dezaketen irakasle eta ikasleen lagungarri.